

AMEZKETA

Etxez etxe

Liburuaren osagarria

-II-

2011ko apirilaren 15ean *Amezketan etxez etxe* aurkezterakoan argi eta garbi utzi genuen eranskin bat izango zuela liburuak Interneten. Izan ere, orrialdeen haien kopuruak agindurik, gaur egun zutik dauden eraikinak soilik baitatoz liburuan. Hori horrela, ia 50 eraikin geratu ziren orrialde haietatik kanpo. Bai, artxiboetan jasotako materiale asko geratu zen islarik gabe liburuan. Internetez eskaintzea erabaki zen. Beraz, liburuak biltzen duena eta txoko honetan dagoena hartu beharko genituzke ikuspegi zabala izateko. Beste modu batera esanda, liburuaren osagarritzat hartu behar da Interneteko eranskin hau.

Egia esateko, nire ahaleginaren zatirik bihurriena, irristakorrena bigarren zati honetan dator. Hemen aipatzen diren eraikin gehienek arrastoak galdurik dauzkagu. Areago. Zenbaiten kasutan, non zeuden ere ez dakigu. Beldur piska bat ematen du horrelako zurrumbiloan murgiltzeak. Jakingo ote dugu, uneoro, buruari urgainean eusten? Ez da lan samurra izango.

Dena den, esker oneko lana da etxe eta gainerako eraikinen historia aztertzea. Besterik uste izanarren, jaiotzen ikusi gaituen teilatupeak asko markatzen gaitu, arrasto nabarmena uzten digu gure baitan.

Duela urte batzuk, *LA VANGUARDIA* egunkariak argitaratu ohi duen *Culturas* gehigarritik pasarte hau jaso nuen, Alicia Guerrero Yestek idatzitakotik:

La cabaña de Heidegger

Gaston Bachelard afirmaba en su Poética del espacio que la casa y el universo no son dos espacios yuxtapuestos: la casa constituye una transposición simbólica y constructora de la posición del individuo en el mundo y este es el sentido en que se manifiesta la relación entre Heidegger y esa cabaña, die Hütte –como él la denominaba–, un lugar donde residió largas temporadas, dedicado a la reflexión y la

escritura, recibiendo la visita de escogidos alumnos y otros pensadores, y también paseando, esquiando y ayudando en labores forestales a los lugareños”.

Heideggerren etxola

UNTEN UND OBEN

*“Gaston Bachelardek bere **Espazioaren poetikan** zioen, etxea eta unibertsoa ez direla bata bestearen gaineko bi espazio: pertsonak munduan duen bere egongunearen/egoeraren eraikitzailea eta transposio sinbolikoa dela etxea, eta zentzu honetantxe adierazten dela Heidegger eta berak deitzen zion bezala, **die Hütte**, etxola horren arteko harremana; egonaldi luzeak eman zituen lekuan, gogoeta eta idazteari emana, ikasle aukeratuen eta beste pentsalarien bisitak hartuz, eta baita ere pasierak eginez, eskiatuz eta bertakoei baso-lanetan lagunduz”.*

Bistan dago zenbaterainoko garrantzia duen gizakiari babesa eman ohi dion aterpearen kontuak aztertzeak.

Eraikinak, nork eta nola?

Norbaitek zera galdetu dezake? Gure egunetara ailegatu diren baserri zaharrenak XVI.mendekoak baldin badira, zer nolako aterpetan bizi ziren aurreko amezketarrak? Adituen iritzira, itzuliz, oholez egindakoetan izan ohi zuten babesa. Babes urrikoak ez ezik, deserosoak izan behar derrigorrez. Negua luze egingo zen estalpe haietan.

Poliki poliki harrizko etxeak diseinatu eta egiteko gauza ziren profesionalak sortu ziren, bai hargintzan eta bai zurgintzan. Profesional haiei *maisú zurgina* edota *maisú hargina* esaten zitzairen. Sarritan ikusi ahal izango dira izen horiek liburu honetan.

Gerora, 1650. urtetik aurrera, baserriaren proiektua egiteko gauza ziren profesionalak ugarituz joan ziren, eta maisu hargin eta zurginen zeregina proiektugile berri horien esanetara lana egitea izan ohi zen.

Gehientsuenetan, etxe berria nahi zuenak oso garbi eduki ohi zuen zer nolakoa behar zuen: non, zenbat solairukoa, ukuihua, ganbara, zenbat harriz eta zenbat zurez, ate nagusia nora begira, lehioen kopurua, gelak, sukaldea...

Harria, hondarra, zura eta karea izaten ziren behar beharrezko elementuak. Eta noski, teilak.

Hiru garaitan ordaintzen ziren etxe berriaren jabeak lanean zihardutenei: 1-. Lehenengo herena, obrei ekiterakoan. 2. Bigarren herena, teihatua ematerakoan. 3-. Ahal zela, ahal zen guztia luzatu ohi zen hirugarrena ordainketa. Kasu askotan, dirutan ez baino *ale* eta *ganadutan* egiten zen hori. Horrelako kasuren bat badago liburu honetan.

Bada, ordea, baztertu beharko ez genukeen beste kontu bat. Nahiz eta garai bateko eraikin asko oraindik zutik egon, dezente dira behin betirako galdu genituenak. Zerrenda luze samarra gerta liteke:

-Barrenetxea, Barabarrena, Kapagindegi biak, Otxoarena, Lakuntzarena, Jostundegi, Errementaldegi, Olloki, Jauregiberriena, Iturbeltzaga, Mari Irunena, Torretxeberri, Miraballes (Bialix), Irulegi (Arretxe eta Torrearen artean), Artetxe (gaur egungo Errementarinea edo Mizpirasagastiren aurrean), Ibarluzea goena (Papelerako sarrera dagoen lurretan), Lizeagako errota biak, Ierabizkarko bat,, Arantzaztikoak, eta horiek bezala Larragain, Loikadi, Lorentzena biak, etab.

Pentsatzekoa denez, zerrenda honetan izen gehiago sartu beharko genuke. Hori horrela, nabarmen aldatuko litzateke gaur egungo herriaren itxura eta tankera. Bai, Plazan bertan etxeak galdu dira eta baita goiko lurretan baserriak ere.

Etxeak eta baserriak Amezketan

Garai bateko Amezketan, salbuespenak salbu, eraikin gehientsuenak, guzti guztiak es esatearren, nekazaritza eta artzaintzari lotuak zeuden. Beraz, nahiz eta etxeak Plaza inguruan egon, *baserri* sailean sartu beharko genituzke. Nire iritzian, *Torrea, Laturu, Intxausti, Juliñe* eta *Juan Lopezena* leudeke arau horretatik kanpo geratuko liratekeenak. Hori etxerik zaharrenen artean. Berriagoetan: *Urretanea, Letradunea, Garagartzanea.*

Ez dezagun pentsa gauzak beti beti gaur bezala izan direnik. Hemendik urte batzuetara euskal baserrien historia egiten bada, XX.mendea gertatutakoa aipagarria izango da, ze, bakar batzuek ezik, gehientsuenak zeharo aldatuak izan baitziren, sarritan baserriko eginkizunetarako zeuzkaten zatiak behin betirako galduz, eta helburu horrekin utzi zituztenak ere guztiz eraldatuz. Beraz, eboluzio handia ezagutu duen eraikina da baserria. Apunte hauek argi eta garbi adierazten dute zein izan den baserri askoren jatorri eta abiapuntua. *Arantzazuko Amaren Egutegia 2008ko urriak 23.* Begira:

“Aspalditik izan da baserria gure asaba zaharren babesleku eta bizileku. Lurrari berari etekina ateratzeko, batzuek bordatik gehiago zuten etxe ongi eraikitakotik baino. Baserria etxebizitza zen beste ezer baino lehen, baina baita, lurrak eta azienda barne, garai bateko ekonomi erakunde ere.

Jatorria Erdi Aroan du. Orduko baserriak oholezko txabolak ziren. Harrizko lehen etxe patxada ederrekoak XV.mendean eraiki ziren, eta nekazari aberatsek bakarrik izaten zuten horrelako eraikuntza egiteko ekonomi ahalmena Haritz-egurra, berriz, dohanik garraia zezaketen herriko basoetatik.

XVI.mendean baserri asko egin zen harriz eta egurrez. Baserri gehienek, dolarea eta upategia ere bertan izaten zituzten. Garai ona izan zen hura euskal baserriko etxe eta aziendentzat. Mendearen bukaera aldera, merkataritzak eta itsasontzigintzak krisialdian behera jo zutenean, jendea baserrira begira jarri zen eta baserri guztiak bete ziren”.

Bi puntu gehiago oraindik. *Etxe* eta *baserri* kontzeptuak erabiltzearekin Amezketako eraikin guztiak hartzen al ditugu? Ez, inolaz ere ez. Zerrenda askoz aberatsagoa da: *saletxe, borda, ganaduborda, ardiborda, etxola/txabola...*

Egia esan, *saletxe* kontzeptuak buruauste bat baino gehiago eman digu. Ibon Sarasolaren Euskal Hiztegira joz gero, begira zer ikusiko dugun hitz honetaz:

*“1 saletxe.iz.(*1745, 1912; saletse 1847). Ardientzako bazka gordetzen den lekua.II Artegia”.*

*2 saletxe.iz.(*1745,1855). Gauzak saltzen diren, salmentak egiten den etxea. Ik.saltoki; denda. Ez nire aitaren etxea saletxe egin”.*

Garai bateko agirietan ez dira bereizten *etxea* eta *baserria*. Areago. *Baserria* edo gaztelaniazko bere ordaina edo baliokidea-*caserío*-ez dator agiri zaharretan. Eskribauek bazekiten zer nolako eraikinez ziharduten agiriak idazterakoan, hau da, familientzat bezala aziendarentzat balio zuen eraikina. Beraz, *etxea* horrek berentzat *baserriaren* esanahia zuen garai batean. Horretan ez dago zalantzarik. XIX.mendera etorri behar da *kaleko etxea* edo *kale-etxea* eta *baserria* bereizteko. Hori litzateke esate baterako *Urretanea-Migelene* etxearen kasua.

Oso besterik gertatzen zaigu aldiz beste bi kontzepturekin. Agirietan maiz ikusi ahal izango ditu irakurleak *borda* eta *saletxe*. Ez da lan samurra hitz hauen baitan dagoen muina oso zehatz bereiztea eta xuxen jakitea zer adierazi nahi den hitz horrekin. XVIII.mendeko agiri batean *Bordatxuri* etxetzat dauka eskribauak, eta sepultura-eskubidea duena Amezketako elizan. Ez dakit egiaz hala izan zen, baina *Fernando Amezketarra* famatua gaur *Apatxeko borda* esaten zaion horretan bizitakoa zela esan ohi da. Juan Ignazio Zabala, ezkondu zenean, *Loidi saletxen* jarri zen bizitzen. Oso eraikin txikia zen *Loidi saletxe*. Hala ere, ezkonberriek bertara jo zuten.

Inma Goikoetxea eta Juan Inazio Eloseggi Aldasorok *Tolosako Leku Izenak* liburuan idatzi dutenez, *“hitz arrunta da saletxea, abereak gordetzeko etxea izendatzen duena. Borda askorekin gertatu bezala, lur beharren eta nekazaritzaren aurrerakaden ondorioz, etxe bihurtu ziren”.*

1694ko agiri batek honela dio:

“Y como vienes del dicho Martin de Sarasola su casa Espilla su huerta y tierras sembradas y valdias y manzanales, castaños, y robledales con lo demas pertenecido de ella y la borda de ganado que tiene en Galarza”.

Ezagutu genuen *Espilla saletxe* hura, beraz, hasiera batean *ganadu aterpea* zen, eta gerora bilakatu zen *etxebizitza*.

Esan nahi dena hau da: Babesa eta aterpea eskaintzen zituen edozein eraikin izan ohi zela, zerbait egokiturik, *aterpe-bizitza*. Eta agiri zaharretan ez zela beti beti bereizten noiz zen *borda-borda* eta noiz *borda-bizitza* edota *saletxe-bizitza*.

Baserriak 1974 aldera

Iñaki Lizanasoro Matek, 1974an, *Caseríos de Guipuzcoa/ Gipuzkoa'ko Baserriak* liburu argitara eman zuen. Amezketako baserrien zerrenda osatu aurretik, laburpen modukoa eskaitzen du. Honela dio:

<i>Familias campesinas</i>	90
<i>Familias que ocupan fincas propias</i>	75
<i>Familias que ocupan fincas arrendadas</i>	15
<i>Caseríos en explotación: Unifamiliares</i>	71
<i>Plurifamiliares</i>	10
<i>Caseríos desahitados y en ruinas</i>	36
<i>Caseríos transformados para otros menesteres</i>	1
<i>Caseríos que ostentan escudo de armas</i>	2

Segidan, baserri bakoitzaren egoera zein den argitzen du liburuak. Amezketan hutsik zeudenak:

-Altunberri, Antziarbe, Argaia goena, Artola saletxe, Basetxea, Espilla saletxe, Galartza (¿), Irigoena onuzkoa, Larragain, Lillodi, Loiola zarran 2 etxebizitza, Olariaga, Saletxeberri, Toledo Lamitegi (sic), Tomasenea zar, Tomasen saletxea, Urkola, Urkola saletxe. Ugartekoak: Agirainen 2 etxebizitza, Etzupel, eta Zuzitzan 2 etxebizitza. Hauez gainera, Linazasorok zioen, Azkonobieta (sic) granja bihurtu dela.

1974an erorita zeudenak:

-Borda, Bordatxuri, Ganbaraetxe, Gaspar saletxe, Torreberria, Torresaletxe, Urbizegi.

Armarria, eskudoa zutenak:

-Jauregi Haundi eta Armaetxe. Azken hau erori zenean, behin betirako galdu zen bere armarria.

Dezente aldatu gaur egun Linazasorok utzitako txostena, liburu honetan ikusiko den bezala. Hutsik zeudenen zerrendako batzuk erorita daudenen sailera edo erabat galdu direnetara pasatu dira: *Gaspar saletxe, Espilla saletxe, Urkola, Agirain, Etzupel*...Beste kasu batzuetan berriz ordezeko berriak egin dira: *Olariaga, Bordatxuri, Armaetxe*. Azkenik, etxebizitza izandakoaren ordezkordak jaso da: *Eguzkitza*.

Aralarko babeslekuak eta txabolak

Badakit jakin, garai batean, Amezketako artzainen txabolek ez zutela arkitektura aldetik balio izpirik eta erosotasunari dagokionean, hutsaren pareko zirela. Halaz guztiz, aipamen xume bat zor zaie. Izan ere, erauntsia datorrenean edozein zulo baita aterpe estimagarri. Hori gertatzen zitzaien garai bateko artzainei ere. Zotalez estalitako edozein babesleku izan ohi zen balio handiko grai batean, urte asko ez direla preziso.

Hiru txabola mota behintza ezagutu ditugu guk geuk ere. Zaharrenen sailean 1950ra artekoak sartu beharko genituzte. Oso eskasak bere horma eta sabaiaren egiturari. Osasunarentzat ere ez berebizikoak. Hiru departamentu: karrera, lotokia eta gatzalekua. Sabaia, zotalez estalia. Txabola mota honen historia 1950.ara arte luzatu zen. Ez lehiorik, ez iturririk, ez tximirik...

Tolosako *Amigos de Aralar/Aralar'ko Adiskideak* mendi bazkunak sortu zuteneko XXV. urteurrena ospatzeko argitaratutako aldizkarian, garai haietako txabola baten marrazkia dator. Marrazkiaren barrenean honako iruzkin hau dator:

“Interior de una “txabola” o borda típica de pastores de la Sierra de Aralar. No tienen más luz ni ventilación que la que pueda entrar por la puerta, y el humo del hogar sirve para ahumar los quesos...y al pastor, cuyo camastro puede verse a su lado. Estas bordas o chozas son en el mayor parte de los casos, un verdadero antro, lóbrego y destartado, donde toda incomodidad y suciedad tiene su asiento, siendo más propias para lbergar ganado, que como vivienda de seres humanos civilizados en pleno siglo XX... (Dibujo de M. Domenech).

ARGAZKIA: 1. ALDIZKARITIK

Tolosako Mendizale Elkarte berberak, 1978an, aldizkari/liburu dotorea argitaratu eman zuen *ARALAR Aralar'ko Adiskideak 1928-1978* tituluarekin. Oso maila bikaineko lanak biltzen dira bertan. Horien artean dago Aita Alberto Begiristain beneditarraren artikulua: *Gogorapenak*. Honela hasten da bere idatzia:

“Berrogei ta hamar urte “Aralar-go Adiskideak” deritzan bazkuna eraiki zala. Lantxo ontan argitaratu nai nituzke bazkide oriek Aralar-go artzaien alde egindako lanak. Mendigoizale jatorra beti izan da inori alguntzeko, gogo onekoa. Mendiko bakardadean eta arrixkuetan iñork baño obeto ikusten bait-du zeñ atsegiña dan norbaiten laguntza. Beraz, tolosar mendigoizaleak asi ziranean, Aralar-mendia zear, ango tontorrek igaro, gain aietatik urrutira ikusten diran gauza zoragarriaz gozatzen asi ziranean, ikusi zuten an inguruko artzaiak nola bizi ziran. Leio gabeko txabola txar batzuetan. Antxe toki batean beren gauza guztiak (ezer gutxi): aldatzeko soñekoren bat; janaria prestatzeko tresnak: zartagia ta lapikoa; toki berean artzain baten izkillu nagusiak: kaikua esnea jecteko, apatza matoia egiteko eta zumitza matoia estutuaz apatz gañean gaztaia egiteko. Atarian, beti egoi aldetik, aterpe bat erdizka ormaz inguratua; txoko batean tximinirik gabeko sutokia; lurrean edo iru anka gañean tinkatutako muskil bat eserleku bezela. Aterpe ortantxe artzen dituzte artzaiek beren

otorduak eta egiten dituzte beren gaztak. Etzan-tokia, berriz, txabola barruan, jentillenena ere era ortakoa izango zan”.

Ezin hobeto argitu nolako txabolak ziren haiek. Zeinen eskasak ziren ez dago hobeto adierazterik.

Bai, 1950 aldera hasten dira txabolei erosotasun gehiago emateko ahaleginak. Aurreneko urratsetako bat *tximinia* ipintzea izan zen. Aurrerapauso nabarmena. Zotalaren ordeztaila erabiltzeari ere orduan ekin zitzaion. Gero, *su bajaran* ordeztaila *ekonomikak* ezartzea etorri zen eta zenbait kasutan ura txabolaraino ekartzea ere bai. Eta hormak masaz hartzea, eta lehioak ateratzea... Poliki poliki eraldatzen, antzaldatzen joan zen mende luzeetan mudantza gutxi ezagututako *etxola/txabola*. Itxurazko mahaiak, itxurazko aulkiak, txukadera, kamainaren ordeztaila oheak... Butanoaren erabilera ere berehala sartu zen txaboletan. Bene-benetako iraultza ezagutu zuten Aralarreko txabola gehienek.

XX. mendearen azken hamarraldian ailegatu zen, hala ere, aldaketarik sakonena. Poliki poliki txabola berriak egiteari ekin zitzaion Aralarren. Erosotasuna eman nahi izan zitzaion eraikin berriei, hau da, artzainak ere izan zezala pertsonak bezala bizitzeko egokiera. Gaurko hauek ez dute zerikusirik haurtzaroan ezagutu genituen eraikin makets eta miseriazko txabola haiekin. Lekutan geratu dira; Gaur egun ez dago *antros, lóbregos y destarados* esaterik. Eraikin txukunak eta dotoreak dira gaurkoak aurrekoen ondoan.

ARGAZKIA: 2.Elordiko txabola. GUREGIPUZKOA.NET

Txabolen gaurkoratzean eta egokitzean aldaketa sakona eman den bezala, bada kontu bat aldatu ez dena: garai batean bezala egun ere, txabolak herriarenak izatea. Artzain bakoitzak hainbesteko bat ordaindu behar izaten zuen. Hala ere, horretan ere beste modu batera jokatzeko zuten gure aurrekoak:

“Resulta el que acudían anteriormente el uno con la arroba de queso, y el otro con un carnero, y de esta forma los demás que utilizaban de los seles, y cabañas que oy pertenecen privativamente a la villa de Amezueta, así ahora se les a de imponer para en cada año y á cada Persona el mismo gravamen, franqueándoles con toda libertad dichas cabañas y seles, o sino miraran los Señores Cargohabientes si se puede promediar esta pension, pareciéndoles sobradamente rigurosa; y en defecto insistir en que así sea y en que de la misma manera se obliguen

Etxea jasoko bazen, lurra behar

Asko ez, baina badira apur batzuk etxe berria egiteko lur kontuak aipatzen dituztenak. Horietako bat, adibidez, 1645koa da. Otsailaren 11an, Migel Toledo eta Maria Lorentzena letratuarengana joan ziren, buruan zutenaren berri ematera:

“ Otorgamos y conocemos por esta presente carta que vendemos y damos en venta Real por juro de heredad para aora y de aquí adelante para siempre jamas a Ygnacio de Echeverria y Maria de Yraola su muger vecinos de la misma villa para si y para sus hijos herederos y sucesores y para quien dellos huviere titulo y causa voz y razon legitima en qualquier manera es a saver un suelo y sitio de casa donde estuvo fundada la casa de **Lorencena** (que se germo por incendio de fuego) con la tierra que tiene contigua y pegante a la parte del rio, el qual dicho suelo y sitio alinda por la parte de delante con la calle y calzada Real desta Villa de Amezqueta, y por la otra parte contraria con el rio de la misma Villa y por un lado de hacia la plaza della con la casa llamada **Galarzaechea**, y por el otro lado con un camino que sale de la dicha calçada azia las casas de Zavala, y se lo demos por libre de vinculo y mayorazgo y censo perpetuo ni al quitar obligacion e ypoteca y de otra carga que persona alguna sobre el tenga por precio de ocho ducados de monedas de vellon que por el dicho suelo y sitio nos dio y pago antes de agora la dicha Maria de Yraola”. GAOPT1039.

Migel Toledok eta Maria Lorentzenak saldutako lur-sail hartan jasotako etxea zein izan ote zen? *Lorentzena* esaten zitzaiona, apika? Seguru asko, baina ez gaude zeharo ziurtatzeko moduan.

-Azken oharpen zenbait

Beste zenbait herritan bezala, gurean era baserri asko dira aurreko lerroan aipatu diren osagarriak eransten zaizkienak. Kasu batzuetan kopapena argitzen digute: *goena* eta *barrena*, *garaikoa* edo *goikoa* eta *behekoa*. Batzuek eraikinaren adina edo adierazten digute: *berri*. Tamaina ere argitzen duenik bada: *Haundi* eta *Txiki*.

-Barrena: *Agirre Barrena, Toledo Barrena, Zabalbarrena, Etxaiz Barrena.*

-Aurrebarrena: *Zuriarrain Aurrebarrena (Aundiko)*

-Bitarte: *Etxaiz Bitarte, Argaia Bitarte.*

-Goyena/Goena: *Etxaiz Goena, Zabalgoena, Toledo Goena, Argaia Goena, Agirre Goena, Hirigoena.*

-Barrena: *Barrenechea, Hiribarrena.*

-Garaikoa eta Goikoa:

Zalantzarik gabe, *garaikoa* hitzak *goiko*, *goialdeko* adierazi nahi digu. Garai batean gogotik erabiltzen zen etxe-deiturei erantsita: *Galartzaga Garaikoa (Gaiko)*, *Oteiza Garaikoa*, *Larreta Garaikoa (borda)*.

Horiez gainera, *Garaikoetxea* ere hortxe daukagu.

Badakit ondo asko zaila dela gaur egun hitz honen erabilpeba, baina lastima litzateke erabat baztertzea.

-Azpikoa: *Galartzaga azpikoa*

-Berri eta Zahar: *Berantetxe berri, Loiola Berri, Errota Zahar, Erretoretxe Zahar, Torre Etxeberri, Torreberri.*

-Handi/Haundi eta Txipi/Txiki:

Idazki zaharretan normaltasunez erabiltzen da *handia*. *Jauregi* oinetxeaz ari delarik, agiri batean baino gehiagotzan ikusi dugu *handia* kalifikatiboa.

Txipi kalifikatiboari buruz zer esan liteke? Gaur egun erabat bazterturik baldin badaukagu ere, garai batean ez zitzaien arrotz egiten adjetibo hau amezketarrei. *Txiki* ere erabiltzen zuten, baina *Txipi* gutxietsi gabe eta behin baino gehiagotan irakurri ahal izango da ondoko orrialdeetan. Horietako bat 1770.urtekoa da: *Unanbide chipia*. Sig.:P030-01.

Hurrengo aipamena 1733ko urtarrilaren 12koa da. Amezketako zenbait esteren deitura ematen ari delarik letradua, *Elizalde, Gorostidi eta Zuriarrain chipia* aipatzen ditu.

Bai, asko aurreko mendeetan asko erabiltzen ziren nolakotasun adjetibo hauek. Zerrenda polita egin daiteke gure herrian:

Jauregi Haundi eta Jauregui Txiki, Etxeberri Haundi eta Etxeberri Txiki, Elizegi Txiki, Arransoro Txiki, Mendiko Txiki, Unanbide Txiki, Iparragirre Haundi eta Iparragirre Txiki, Iraregi Txiki, Larruntza Haundi eta Larruntza Txiki, Benta Txiki. Santsategi Haundi eta Txiki.

-Honuzkoa: *Irigoena Honuzkoa.*

-Haruzkoa: *Irigoena haruzkoa.*

Etxeak errentan hartzea

Aurreko mendeetan, etxeak erosterik ez eta, ohitura handia zegoen alkilerrean hartzeko. Adibide bakarra ekarriko dugu txatal honetara. 1800. urtean Jose Arrataka eskribauak idatzitako eskritura duzu hau. Begira:

*“Escritura en arriendo de la mitad de la Casa **Aleguiriechea** y pertenecidos por Juan Antonio de Gorostegui á favor de Manuel Antonio de Liceaga para tiempo de cuatro años que comenzaron á correr el día once de Noviembre del año ultimo pasado por la renta anual de sesenta ducados de vellon; pagaderos en cada uno de los tres primeros años quarenta y tres ducados de vellon a Joaquin Antonio de Ybarlucea y quarenta y tres y medio en el ultimo año al mismo Ybarlucea para en pago de ciento y setenta y dos ducados que debe dicho Gorostegui, y los restantes que faltan para los sesenta ducados anuales, haya de pagar dicho Liceaga al mismo Gorostidi...”*

Honen tankerako ehundaka agiri dago artxiboetan. Ehundaka. Guztiak ere oso antzekoak dira bere idazkeran. Horrelako asko irakurri ahal izango ditu liburu hau arreta pittin batez jarraitzen duenak.

Familia bat baino gehiago teilatupe batean

Garai batean, oso etxe gutxi ziren familia bakar bati aterpea eman ziotenak. Usuena familia bat baino gehiagoren bizileku izatea zen. Hori bai, bakoitzak bere zati jakina izan ohi zuen. Bi adibide. 1771an, *Ezkelberro* lau zatitaten eman zen alkilerrean. Gauza beretsua gertatu zen Lizeaga eta Eizagirrekin. 1824an, *Espillaren* erdia Fernando Amezketarraren semeetako batek hartu zuen, hau da, Bartolome Bengoetxeak.

Etxeizenak eta Amezketan galdutako abizenak

Garai bateko agiriak aztertuz gero, etxeizena zeramaten familia asko zegoen Amezketan: Loidi, Gorostidi, Sagastume, Zuriarrain, Lapatza, Galartza, Zurutuza, Agirre, Argañarats, Iparragirre, Toledo, Lizeaga, Etxeberria, Garagartza, Ibarluzea, Agirrebarrena, Arizmendi, Altuna, Toledo, Zabala, Zubillaga, Bernarats, Jauregi, Karrera, Lapatza, Ibarluzea, Torrea, Artetxe, Arretxe, Larruntza... Guztiak ere Amezketako etxeen deiturak ziren horiek eta gerora familien abizen izatera pasako zirenak.

Gaur egun ere oso ezagunak zaizkigu gehientsuenak, baina bakar batzuk aspaldi samar galdu ziren. Batzuk nabarmentzearren, zazpi hauek egingo nituzke: *Amezket*a, *Garagartza*, *Argañarats*, *Lapatza*, *Loidi*, *Ibarluzea* eta *Lizeaga*. Etxe zenbait galdu diren bezala (Artetxe, Sagastume, Lorentzena handia eta txikia, Maisuena, Ibarluzea, Lillodi, Gaspar saletxe, Allaneginea, Portiri...), abizen horiek ere desagertu egin dira Amezketatik. Ez dago arrastorik.

ARGAZKIA: 3. LAPATZA.

Abizen berbera bi mendez zenbait etxetan

Askok ez badira ere, zenbait etxetan bizi izan diren familien abizenak ez dira aspaldi honetan batere aldatu. Belaunaldi zaharrak joan, berriak etorri...aldaketarik ez abizenetan. Hori, esate baterako, oso nabarmena da *Alegietxe* esaten zaionean. Azken bi mendeotan, *Gorostegi* abizena eraman izan dutenak bizi izan dira. Gauza bera gertatzen da *Apatxe* eta *Agirrebarren*arekin. Eta antzeko zerbait, *Arrantsoro* eta *Sagastum*erekin. Nolanahi ere, zerrende zerbait luzeagoa da:

- **Perutxonea**/Galartza

-**Aundiko**/Sarasola

-**Unanbide**/Karrera

-**Zurutuza**/Agirre

-**Arrieta**/Artsuaga

-**Irigoena**/Sagastume

-**Etondo**/Agirrezabala.

-**Borda**/Agirre

-**Zillartegi**/Bernarats

Jauregi Haundiko familiaren egiazko ondasunak

Sarritan azpimarratu nahi izan dudun puntua da hauxe. Historiaz ez ezik ondasunez ere oso familia aberatsak izan ziren Jauregi Handiaren jabeak aurreko mendeetan. Hori ez dago zalantzan ipintzerik. Areago. Amezketak ezagutu duen etxerik boteretsu eta aberatsena izan da historian.

Aurreko adierazpen hau egiaztatzeko eta baieztatzeko jo dezagun 1763ra, Fernando Amezketarra jaio baino urtebete lehenagora. Garai hartan Jose Joakin Eraso eta Amezqueta zen Jauregi Haundiaren jabea. Berak kontatzen zituen ondasunak hauek ziren urte hartan:

-**Jauregi Haundi**, eta honi zegozkion ondasunak: baratze, soro, belaze, baso eta mendi.

-**Tolaretxe edo Jauregi Txiki**. Urte hartan Martin Arizmendiri utzita zeukan errentan. Martinek Jauregi Haundiari zegozkion lurren erdia ustiatzeko baimena zeukan. Errentaren balioa: 35 peso, 2 arkume eta 4 kapoi.

-**Irigoena**. Ignazio Artola eta Maria Ana Belokiri emanda zeukan 9 urterako. Errentaren balioa: 442 erreal, 4 kapoi eta 2 arkume.

-**Albitzuri**. Gaspar Galartza zen bere maizterra. 9 urterako hartuta zeukan. Errenta: 32 peso, 4 kapoi eta 2 arkume.

-**Auzoetxe**. *Ausaechea* dator idatzirik. Ignazio Agirrezabalak zeukan errentan hartuta. Etxeaz gainera, Jauregi Handiaren lurren erdia eta gainerako ondasunen erdiaz baliatzeko eskubidea zeukan Agirrezabalak. Errenta: 38 peso eta horiez gainera 4 kapoi eta 2 arkume, urteoro.

-**Aritzio**. Agirian *Aiezio* deitzen zaio. Migel eta Juan Antonio Gorostegiri errentan emanda zeukan Jose Joakin Errenta: 18 peso, 4 kapoi eta 2 arkume.

-**Mendiko**. Don Joseph Joachin de Eraso y Amezquetak, horrela baitator agirian, Atanasio Altuna, Juan Altuna, Frantzisko Zabala eta Frantziska Etxaizi eman zien errentan 9 uretarako. Urteko errenta: 30 peso, 4 arkume eta 4 kapoi.

-Ierabizkarko bi errotak. Errota hauen alokairuak ematen zuena Amezketako herria eta Jauregi Handiaren jabearen artean banatzen zen, erdibana.

-Arantzaztiko bi errotak. Bi errota hauen errentaren heren bat Jauregi Haundiko jabeari zegokion. Beste biak, Amezketa eta Abaltziskeko Kontsejuena zen.

Abaltzisketako **Zubeldia Txikia** ere Jose Joakin Eraso y Amezquetarena zen. Maizterra bolada hartan, 1763an, Pedro Agirre zen. Urteko errenta: 22 peso eta 2 kapoi entregatu beharra.

Ondasun-zerrenda hau gutxi balitz, hauez gainera, Amezketako eliza nagusian eta San Martingo basilizan biltzen ziren harrarrenak, diezmoak Jauregiko jabeak jasotzen zituen.

Garai hartan ez zegoen Amezketan Jauregi Handiko familiari hurbildu zekioken beste etxerik. Gainerakoak askoz ondasun gutxiagokoak ziren.

Kortesiazo tratamentuak: *Don* eta *Doña*, *Señor* eta *Señoraren* erabilera

Maiztasun handiz ikusten dira dokumentuetan errespetuzko tratamentua edo hitz-kortesia erakusten duten titulu hauek. Kasu guztietan ere gizarte maila islatzen du. Nola lortzen zen hori garai batean? Hiruzpalau modutan:

-Gizon zein emakume batek ondasun asko zuenean.

-Gerrateren batean meritu bereziak egindakoa.

-Maila nabarmeneko ikasketak bukatzen zirenean.

-Amezketako elizan erretoietza lortzen zuenaren kasuan eta apaiz-laguntzaile ere zenean.

Ekin diezaiogun ***Don*** eta ***Doña*** hitzen kasua aztertzeari.

Nahiz eta bere garaian Jauregi Haundikoak aberatsenak izan, herrian bazen ondasun ugariko pertsona gehiago ere.

1650an, Amezketako agintariak herritar guztiekin kontuak argitu eta garbitu nahiean zebilen. Ugarte haundi eta Lapatzako jabeak 200 eta 50 dukat eman nahiezta zebiltzan. Agirian esaten denez, herriko ordezkariak ahal osoa zeukaten jabearekin tratoa ixteko:

*“con la señora **doña** Barbara de Lapaça tenedora y poseedora de la dicha casa de Ugarte andia y sus caserías. Y con la señora **doña** Anamaria de Eleiçalde Idiaquez tutora y curadora de sus hijos y del señor **don** Juan de Lapaza, difunto caballero de la Orden que fue de Santiago”.GAOPT1007.*

1684ko agiri batek ere antzeko informazioa eskaintzen digu. Garai hartako Amezketan zeuden bi familia aberatsenak elkarrekin uztartu nahiean zebiltzan, eztei-

kontratu bat zela bide. Batetik, Lardizabaltarrak. Bestetik, Jauregibarriatarrak. Gaur egun ez dago gure herrian haien ondorengorik, baina XVII.mendearen bukaeran indar handikoak ziren familia horiek Amezketan.

1684ko ekainaren 15ean itzal haundiko pertsonak bildu ziren Amezketara, ezkontzeko asmoetan zebiltzan **Don** Juan Bautista Lardizabal eta **Doña** Maria Josefa Jauregibarriaren asmoak onestera.

Zergatik dakigu itzal handiko pertsonak zirela? Dokumentuetan esanahi handikoa izaten da, izen propio baten aurrean, dela **Don** dela **Doña** ikustea. Hori oso nabarmena da 1684ko bilera hartara bildutakoak aztertzen badira. Esate baterako, **Don** Jose Lardizabal lizentziatua Idiazabalgo Bikarioa, eta bere bi anaia: Frantzisko eta Esteban idiazabaldarrak. Hauez gainera, Seguran bizi zen Martin Lardizabal eta **Don** Juan Bautista Lardizabal, arestian aipatutako Frantziskoren eta **Doña** Magdalena Elosegiren semea. **Don** Juan Bautista Lardizabal horrek bere aitaren onespenearekin parte hartu zuen bileran. Orain arteko hauekin batera, **Don** Juan Ignazio Elosegi lizentziatua Lazkaoko Bikarioa eta bere anaia Juan Bautista eta Baltasar Elosegi, azken hau Itsasondan bizi zena eta bertako alkatea.

Guzti hauek mahaiaren alde batean zeuden. Ikus ditzagun besteak zeudenak. Lehenengo eta behin, **Doña** Maria Igerabide anderea. Amezketan biziaren, Baliarraingoa zen **Doña** Maria jaiotzez. Arrasateko **Don** Martin Jauregibarria kapitainarekin ezkondu eta, Amezketan jarri ziren bizitzen. 1684rako hilik zegoen kapitain hau. Bileran zegoenetako beste bat, **Don** Antonio Zubeldia Orendaingo Erretorea.

Emaztegaia, **Doña** Maria Josefa hau, **Doña** Maria Igerabideren biloba zen eta **Don** Antonio Jauregibarria Mendibilen alaba naturala.

Ikusten denez, **Don** eta **Doña** asko dago agirian. Jokoan zegoena ere ez zen berriketakoa. Amona **Doña** Maria Igerabidek ondasun hauek utzi nahi zizkion bere biloba **Doña** Maria Josefari:

*“Primeramente la casa principal de su avitacion y morada (**Juanlopezene**a, guk) sita en la plaza publica desta Villa con su huerta cerrada de paredes a un lado y con sus tierras y pertenecidos y derecho de vecindad y sepultura propia que tiene en la Yglesia parroquial desta Villa.*

*Yten la casa inmediata a la dicha principal ala parte de abajo llamada **Abalividerena** con su huerta y tierras y pertenecidos y con de vecindad y sepultura.*

*Yten la casa llamada de **Portiri** sita en la plaza vieja desta Villa con su huerta y tierra y pertenecidos con su derecho de vecindad y sepultura en la parroquial.*

*Yten **otra casa** en la plaza desta dicha Villa inmediata a la del Concejo y Ayuntamientos della a la parte de abajo con su huerta y pertenecido y derecho de vecindad y sepultura.*

*Yten otra casa llamada **Gambara echea** sita en el barrio de Zubillaga desta Villa con su huerta y pertenecido y derecho de vecindad y sepultura.*

*Yten la casa y caseria de **Yparraguirre la mayor** sita en jurisdiccion desta Villa con su huerta y tierras manzanales montes y demas pertenecido.*

*Yten la caseria de **Urrizbiribil** sita en jurisdiccion desta Villa con su huerta y tierras sembradias prados y valdias y montes y demas pertenecido”GAO-PT1046*

Zergatik dakigu *bera bizi eta erretiratzen zen etxea* Juanlopezenea dela? Aurreko agiria sinatu eta handik bi urtera, bere ondasunen berri ematerakoan, horixe aipatzen duelako aurren-aurrena:

“las casas de Juanlopezena, Placo, Portiri, Gambaraechea, Aiaciona (sic)”.

Hau guztia gutxi balitz, gainera Baliarraingo *Igerabide* oinetxea eman zion *Doña Mariak Don Juan* Bautistari. Hala ere, zerrenda osoa eskaintzeko beste ondasun hauek aipatu beharrean gaude:

*“Yten las tierras y pertenecidos de una casa llamada **Olloqui** que fue sita en esta Villa y se arruyno, las cuales estan agregadas y y repartidas a las dichas casas de **Abalivide** y **Portiri**.*

Yten una tierra y heredad sembradía cerca de la plaza publica desta Villa que esta dada en arrendamiento a Rodrigo de Arrataca vecino desta villa.

*Yten unos manzanales llamados de **Olloqui**, y otros llamados **Jaureguizar** y otros llamados **Echeguibel**, que estan a la parte del rio, todos en jurisdiccion desta villa.*

*Yten los montes castañales y robledales llamados **Anciaran** y **Argaya azpia** en jurisdiccion desta Villa, que todas las dichas casas sus tierras y pertenecidos y manzanales castañales y montes son conocidos por sus nombres y linderos notorios”GAO-PT1046.*

Luze joko liguke zerrenda osoa egitea, baina nabarmen dago ez zirela txatxetakoak Jauregibarria-Igerabide familiaren ondasunak Amezketan. Etxe askoren jabe zen, ikusi denez. Aberatsa oso, aldi hartan behintzat. Horregatik egokitzen zitzairen izen-atariko bezala **Don** edo **Doña** ipintzeko eskubidea

Jo dezagun 1787ra. Abuztuaren 21ean Juan Antonio Lantz eskribauak izenpetutako agirian adierazten denez, **Don** Joakin Bautista Artola zortzi etxeren jabe zen. Begira zerrenda: *Torrea, Zabalgoena, Miraballes, Torreberria, Sagaizar, Irigoena honuzcoa, Otxoanea, Marilakarranea* eta agirian esaten den modura, *la nueva nombrada Artolanea*. Azken eraikin hau Amezketako Plazan zegoen eta oso oker ez bagaude, gaur egungo *Letradunea* edo *Domingonea* zen. Bistan dago, don Joakin Bautista ez zela nornahi herrian, zortzi etxeren jabe izanik.

Txatal honetan ikusi den bezala, kasu batzuetan **Don** eta **Doña** hitzen aurretik **Señor** eta **Señora** idazten ziren.

Herriko alkateari ere, karguan zegoen bitartean, **Señor** tratamentua ematen zitzaion. Urteko agintealdia uzten zutenean kortesiazko hitzik gabe ikusten dira alkate izandakoen izen-deiturak. **Señora** ere sarritan ikusten da izkribu zaharretan.

Terminologiaz azken bi apunte

-**ARATS.** Beti deigarri egin zaizkit *Argañarats* eta *Barrenarats* deiturak. Azken zatiko *arats* horrek pizten zidan interesa. Amezketatik kanpo ere ezaguna bukaera hori. Esate baterako, *Altzolarats* Zarautz aldean. Bada, *errekatoxo-errekasto* esan nahiko luke. Hori horrela, Argaia aldetik jaisten den erreka txikiak ureztatzen duen parajeari deitu beharko genioke *Argañarats*.

-**GIBELA.** Gaur egun ez da erabiltzen Amezketan. Garai bateko agirietan behin baino gehigotan ikusi dut. Jakina denez, *atzea*, *atzeko aldea* adierazi nahi du. 1733ko urtarrilaren 12ko agiri batean esaten denez, Elizalde eta Seroretxearen ingurutik jaisten zen errekastoari buruz ari delarik, *Elizalde gibela* esaten da.

1760ko otsailaren 25eko idatzi zen dokumentu batek ere hitz hori erakusten digu:

-“*Mandindegui guibela, mas halla de la regata que baxa de las Casas de Ypenzas*”.

Familia boteretsuak

Aurreko mendeetan egon ziren Amezketan ondasun ugariko eta herriko gorabeheretan eragin handiko familiak. Bakar bat aipatzearren Artolatarrena egingo nuke. XVII, XVIII eta XIX. mendeetan baziren Amezketan Artola deiturako eskribauak, egon ziren Artola abizeneko alkate-epaileak.

Horietako bat izendatzearren, don Joakin Bautista Arizkorreta Artola egingo nuke. Behin baino gehiagotan izan zen Amezketako alkate. Gizon ikasi eta eskolatua zen. Agiri askotan *lizentziatu* tituluarekin azaltzen da. 1797an, Galartza garaikoko Migel Ignazio gizagajoak bere buruaz beste egin zuenean, Don Joakin Bautista Arizkorreta Artola zen agintari nagusia herrian. Berari egokitu zitzaion gertaera triste hura argitzea eta eliz-gizonekin tratatzea.

Eskribauen sailean Juan Antonio Artola nabarmenduko nuke. Urte asko egin zuen Amezketako gorabeherak agirietara eramaten. Gure datuak egiazkoak baldin badira, 1793an hil zen Juan Antonio letradua. Ia hogeita hamar urte eman zuen Amezketako letradutza egiten.

Artolatar hauek bezala, *Agirrezabala* sendia ere ezin utziko dugu bazterrean. Askok mugitu ziren herrian, bai alkatetzan eta bai letradutzan.

Gauza berbera esan beharko genuke *Arizmendi* familiaz ere. Gogotik parte hartutakoa da aurreko mendeetan.

Familia zenbaitekin bezala, Amezketako etxeekin gauza beretsua gertatzen da. Ez dute guztiek informazio maila bera agiri zaharretan. Bai, kasu batzuetan informazio asko dago eta besteetan, berriz, nahikoa urri. Esate baterako, *Artetxe* eraikinari buruz behar beste eta gehiago aipamen dago. Beste etxe batzuk berriz oso konta ahaletan azaltzen dira, nekez eta informazio apurrarekin.

Puntu hau oso aintzakotzat hartu beharrekoa da. Oso zaila da etxe guztiei trataera bera ematea.

Abizenak eta etxe-izenak nola bereizi

Ondo orrialdeetan abizen asko aipatuko dira. Askotan pertsona baten izena ikusiko da aurren-aurrena eta gero, segidan abizen bakar bat. Aurreko txatalean gertatzen zen bezala: Juan Antonio Artola. Kasu horretan ez da adierazi nahi Juan Antonio letradura *Artolakoa* zenik. Baina, zenbaitetan adierazten da, bai, nongoa zen ere. Horretarako ezinbestekoa da bi deitura bata bestearen segidan etortzea. 1737ko agiri batean zera esaten da: *Juan Sarasola Espilla*. Hemen oso garbi dago Juan Sarasola hori *Espillakoa* zela. Edota, beste agiriren batean Antonio Artola Loidi ikusiko bagenu, letradura *Loidiko* pertsona bati buruz ari dela jakin beharko genuke.

Lan estimagarria egin zuten letraduek, baina kasu batzuetan zeinen ondo letorkeen bigarren deitura ere ipintzea; Zenbat argibide gehiago emango ziguten...

1793ko azaroaren 27an egindako eskritura batean esaten da “*parecieron presentes Juan Jose de Larreta de **Loiolazarra**, y Juan Francisco de Lavaien*”. Bistan dagoenez, *Larreta* hori *Loiola* zaharrean bizi zela. Eta, Juan Frantzisko Labaien? Ez dakigu, lastima.

Beraz, pertsona bat no bizi zen jakiteko bigarren deitura azaltzea ezinbestekoa da.

ARGAZKIA: 4. LOIOLA ZARRA

Erljio jaiegunen garrantzia egutegian

Ez dago pentsatzerik zenbaterainoko eragina zuen Elizaren liturgia-egutegiak gizarte zibilaren egutegian. Hileko egun jakin bat ez baino Elizak ezarritako jaiegunak hartzen ziren oinarritzotzat. Behin eta berriz ikusiko da hori liburu honetan.

Egun seinalatuak, oso seinalatuak ziren honako hauek:

-San Martin

-San Bartolome

- Pizkunde Pazkoa
- Martxoko Amabirjina
- Abuztuko Amabirjina.
- Eguberriak
- Errege eguna
- San Migel. Alkate berria aukeratzeko eguna.
- San Juan

- Errotei buruzko xehetasunak

Aurreko mendeetan Amezketak zortzi errota lanean ezagutu zituen. Lan samurra da zerrenda hau egitea:

- Lizeagaerrota goikoa eta behekoa,
- Ierabizkar edo Goenerrota Goikoa,
- Ierabizkar behekoa edo Goenerrota behekoa,
- Arantzazti Goikoa eta Behekoa,
- Argañarats Errota
- eta azkenik, Ugarteko errota.

Larrunarri (Txindoki) aldetik datorren errekarari, Lizeaga baserritik hasi eta *Ierabizkar* edo *Errotazarreko* zubiraraino doan zatiari, gutxinez, *Igaran erreka* deitzen diogu amezketarrok. Filologoek erakutsi digutenez, gure *errota* adierazteko hitzik zaharrenak *ihera*, *eihera* eta *igara* izango genituzke. Beraz, *Igaran erreka* deitura emateak *Errota erreka* esan nahiko luke. Ez hori bakarrik. Bistan geratzen da, gainera, *Ierabizkar* hitzaren muina zein den: *Errota bizkar*.

Lizeaga inguruko errotei buruzko datu asko ez dago. Daukaguna Fernando Amezketarren garaikoa da, hau da, 1819ko martxoaren 17koa:

*“escritura de arriendo por parte de Juan Antonio de Loydi del **molino nuevo de Sagastumea**, existente en la proximidad de la **Casa Liceaga**, con dos muelas corrientes y todos los arreos necesarios”.*

Ierabizkarko Goikoa esaten ziotena, seguru asko, XIX. mendearen azken aldian edota XX.mendearen hastapenetan erori zen. Errota honen hiru horma zutik zeinen larri zeuden geratu da gure akorduan: *errotarriaren* pusketa bat edo beste ere artean ikusi zitezkeen. 1955 aldeko kontuak dira hauek.

Hobeto eutsi die *Ierabizkar Behekoa* edo *Errotazahar* eraikinak denboraren hozkadei. Guk ez genuen lanean ezagutu. Amezketako Udalak erosi eta 2009an guztiz eraberritu zuen. Asmoa lehenagokoa zen: 2007an 80.406 euroren kopurua ezarri zuen *Errotazahar* itxuratzeko.

Arantzazti esaten zitzaienak erremate ezberdina izan zuten. *Goikoa* suak kixkali zuen 1979an. *Behekoa* 2007an eraitsi zuten bere lekuan eraikin berria jasotzeko.

Egoera honean daude, ondo zainduta alegia, *Ola* eta *Ugarteko errota*.

Amezketako etxeen balioa neurtzeko erizpidea

Gaur eguneko amezketar zenbait egon daiteke aurreko mendeetan bere jaiotxea zer nolakoa zen jakiteko irrikaz, hau da, sustantziazko ote zen ezagutzea eskertuko lukeenik. Sustantziazkoa, noski, beti ere parametro ekonomikoetan. Asebeteko gaituen erantzunik ez dago. Hala ere, nire iritziz, argibide txiki bat galdera honek eman dakiguke: gure etxeari dagokionean, zenbateko errenta ordaindu behar izaten ote zion maizterrak etxejabeak? Hauxe genuke argibide egokia.

Adibide bat lagungarri gertatuko zaigu. Garai batean, *Eizagirre* etxean lau maizter bizitzen ziren. Guztien artean 75 dukat ordaindu beharko zizkiotela eskatu zien jabeak. 75 dukat eman beharra dirutza eskatzea zen. Beraz, lehen mailako etxe baten aurrean geundeko. Jo dezagun beste muturrera. *Saletxeberri* eraikinean bizitzegatik etxejabeak 16 dukateko errenta ezarri zion maizterrari. Bistan denez, maila apaleko aterpe bat izango genuke *Saletxeberri*.

Hori horrela, errenta 60-70 dukat zutenak etxe onak ziren. Erdibidekoengatik 35-45 eskatzen zuten. Txiroenak 16-30etan errenditzen ziren. Eta bazen merkeagorik ere. 6 dukatengatik errentan ematen zirenak.

Ondoko orrialdeetan, etxez etxe abiatzen garenan, maiz adieraziko da errenta kontua. Hor ikusi ahal izango dugu zer nolako maila zuen etxe bakoitzak.

1706ko agiri baliosoa: Amezketako etxeen zerrenda interesgarria.

Agiri argigarrien artean sartu beharrekoa da 1706ko. Amezketako eraikinak bi sailetan banatzen ditu. Hasierako multzoan etxerik handienak edo sartzen ditu. Bigarrenean, berriz, xumeenak. Zerrenda honen muina horrela ulertzearekin ez dut uste interpretazio okerrean murgiltzen naizenik.

Bigarren alderdi on badu du zerrenda honek. Urte hartan diru-bilketa egiterakoan kontuan hartu behar ziren etxeak aipatzen dira banan-banan, eta ordena egokian. Estimatzekoa da letraduak hartu zuen bidea. Agiriaren izenburua:

“Repartimiento de la foguera de este año de 1706-que tiene cada fuego 645 mrs y se carga ademas lo del Cavallero XXXX Juntero que le toca este año a esta Villa y se carga ademas al Alguacil por recoger las quiebras.

<i>Las dos de Zuziza</i>	<i>las dos de Yparraguirre</i>
<i>Aguirain</i>	<i>Urrizbiribil</i>
<i>Ezupel</i>	<i>Zurutuza</i>
<i>Etondo</i>	<i>las dos Loiolas</i>
<i>Echerri</i>	<i>Etarte andia</i>
<i>Zurain</i>	<i>Eguzquiza</i>
<i>Cachaverro</i>	-----
<i>Ugarte andia</i>	<i>Aiacio</i>
<i>Eleicegui</i>	<i>Berrenaras</i>
<i>Arrieta</i>	<i>Miquelena</i>
<i>Las tres Argañas</i>	<i>Goienechea</i>
<i>Las dos Oteizas</i>	<i>Sempertegui</i>
<i>Argañaras</i>	<i>Carrera</i>
<i>Lapaza</i>	<i>Zavalbarrena</i>
<i>Las dos Aguirre</i>	<i>Oria</i>
<i>Artola</i>	<i>Aleguiriaechea</i>
<i>Las tres Toledos</i>	<i>Aguirrezavala</i>
<i>Azconavieta</i>	<i>Zavala</i>
<i>Izaguirre</i>	<i>Alvizuri</i>
<i>La nueva casa de Aguirre barrena</i>	<i>Las tres Arizmendis</i>
<i>Saroechea</i>	<i>Las tres Echaices</i>
<i>Larreta</i>	<i>Larramendi</i>
<i>Urcola</i>	<i>Lillodi</i>

Echeverria

Loidi

Arransoro

Las dos Galarzas

Las dos Unambides

Mendico

Liceaga

Yeregui

Elorrain

Zuriarrain de alla

Zuriarrain goiena

Gorostidi

Lorenzena

Barrenechea

Capagundegui

Arguinechea

Fransena

Maindiaindeguia (sic)

Portiri

Sansategui

Yturbelzaga

Juan Lopezena

Rementaldegui

Laturu

Ybarlucea

Artechea

Sasturain andia

Arresea

Sagastume

Irulegui

La Torre

Ergoiena

Las dos Irigoienas

Espilla

Larrunza

Berantechea no ai al presente avitacion y no se le carga

Casas Menores

Miravalles de Torre

Miravalles de Irigoiena

Astianmutilleta (sic)

La Borda de Maisuena

Altunberri

Zaval chipia

Zavalgoena

Urquibar

Etarte menor

La Borda de Miquelerena

Aldavaldea

La borda de Artola

La borda de Aguirrebarrena

Las dos Linoviagas

Zupimusua

Echechoa de Zubillaga

Gambaraechea

Thelleria vitartea

Ambrosiorena

Echarte Galarzaechea

Marinarena

Ochoarena

Ana mariena

Benta

Flaco

Barabarrena

Aiacioena

Pasqualena

Mizpira sagasti

Las dos Loicadis

Sasturain chipia

Apaechea

Larrunza mayor

Ugalde menor

Armaechea

Ugalde maior

Jacuechea

Echecho

Elizalde

Garaicoechea

Garagarzaberria”

Zerrenda honek argibide batzuk eskaintzen dizkigu, baina burukomin handia eragin ere bai. Adibide bat. Agiri zenbaitetan esan ohi da: **Ambrosionerena** edota beste deitura batez **Barrenechea**. Aurreko zerrenda honetan ordean bereizi egiten dira biak.

- kontua. Hor ikusi ahal izango dugu zer nolako maila zuen etxe bakoitzak.

Amezketako “auzuneak”

Izkribu zaharretan maiz, askotan ikusiko dugu euskarazko hitz honen gaztelaniazko baliokidea edo ordaina. Bi erataraz idazten zuten letraduek. Batzuetan, *barrio*. Hurrengoan, *varrio*. Zer dago “auzune” hitz honen muin-muinean? Eremu jakin batean dagoen etxe sailari buruz ari dela agiria.

1650ko agiri batean esaten Frantzisko Lorentzenak bere etxe eman zuen hipotekan:

- *“la casa de Lorencena en el **varrio de Telleria**”*.

Noski, agiriak ez digu adierazten auzo horretan kokatzen ziren etxeak, baina Arantzaztiko errota, Telleria, Auzaetxea eta besteren bat sartu behako genituzke. Hala ere, aipagarrienak beste batzuk dira. Esate baterako:

- **Plazako auzunea:**

Mende asko dira, lau gutxienez bai, *Plaza* deiturako etxadia ezagutzen duela Amezketa herriak. *Kalea* ere deitu ohi zaio etxarte honi. Bien arteko aukera egin behar izanda, *Plazarena* egingo nuke. Askoz gehiagotan dator forma hori agiritan *Kalea* baino. Aspaldiko deitura da, izan ere, *Plaza*. Apunte soil modura honako hau dakargu:

*“Yten digo que el año de **mil y seiscientos y quarenta y nueve** casados el dicho Miguel de Galarça y Ana Maria de Amezqueta mi hermana a la qual por su dote y legitimas que le pertenecian en la casa solar de la Torre y su pertenecido me obligue a darle una casa que tenia en la **plaza de Amezqueta**, como en efecto se la di y mas en dinero ducientos ducados pagados a çiertos plaços, que el ultimo se cumplio por Navidad del año de mil y seiscientos y cinquenta y dos”:PT1054*

Agiri zenbaitetan, gainera, beste xehetasun interesgarria dator Amezketak bere garaian bi *gune* edo *plaza* ezagutu zituela aitortzeko. 1684ko iskribu batean zera esaten da:

*“Yten la casa llamada **Portiri** sita en la **plaza vieja** desta Villa”*.

Plaza zaharrean zegoela esateak *Plaza berria* ere zela adierazi nahiko luke, ustez. Hori bera esan nahiko liguke beste pasarte honek ere:

*“La plaza antigua y primitiva de la villa de Amezqueta que hoy llaman **la Plaza Vieja**, es jurisdiccion propia y privativa del mismo Palacio d Amezqueta, con su nogal en medio, donde en tiempos pasados hasta ahora pocos años ha celebrado la dicha Villa sus fiestas publicas de toros”*.

Pasarte hau Domingo de Lizaso azpeitiarrak idatzi zuen bere *Nobiliario de los Palacios, Casas Solares y Linajes Nobles* obran, XVIII.mendearen lehengo herenean.

Zer esan nahi digute datu hauek? 1684rako bazirela gunee horretan, *Plaza* esaten diogun horretan alegia, *zaharra* eta *berria* zeritzatenak. Ez gara, hori bai, bata zein bestea non zeuden esateko.

Dena den, argi eta garbi dago azken laurhun urteotan Amezketak bere *Plaza* izan duela. Etxadi honetan sartu beharko genituzke: *Benta*, *Santsategi*, *Mandindegi*, *Ezkietanea*, *Ibarluzea*, *Arotzarena*, *Arginetxea*, *Anbroziona*, *Juanlopezenea*, *Artolanea* edo *Letradunea*, *Barberonea* edo *Ortuzarrene*, *Arratakanea*, *Torresenea*, *Plantxanea*, *Arginetxe*, *Laturu*, etab.

Gerora, hortxe egon edo eraiki ziren *Kontseju Zaharra* eta *Berria*, Pilotalekua, besteak beste. Esan liteke, beraz, alde horretatik ez duela mudantza handirik ezagutu Amezketarentzat garrantzi handiko gertatu den eremu honek.

Hala ere, nola joan ote zen osatzen eta egituratzen Amezketarentzat bihotz izan den auzune hau? Sos batzuk eman litezke egiazko erantzuna edukitzeagatik. Ez daukagu ordea. Besterik ezean, murgildu gaitezene ariketa xume batean. Historian Amezketak ezagutu duen etxe sailik handiena betidanik eremu horretan egon da. Etxe asko izateaz gainera, gehientsuenak oso elkarren ondoan zeuden eta daude orain ere. Hori ezaugarri nabarmena du auzune honek. Etxe dezente, eremu txikian. Ez da hori gertatzen ez Larrondon eta ez Ergonean ere. Sakabanatuago daude hemen etxeak.

Etxadi horretan finkatu zuten Amezketako herri-agintariek lehenengo Kontsejua. Baita bigarrena ere 1637 aldera egin zenean. Ordurako pilotalekua ere bertan zegoen, Laturutik Santsategi-Penta artean. Horiez gainera, familia onaren etxea zen *Juanlopezenea* edo gaurko *Doloxenea*.

Orain arte idatzitakoak zalantzarik sortzen ez digun bezala, ez beza pentsa irakurleak puntu guztiak, xehetasun guzti guztiak argi eta garbi daudenik. Egia da, bigarren Kontsejua egin zenean, Amezketako *Plaza* izango zena erabat mugaturik geratu zela. Zerk eragiten digu beraz zalantza? Galdera honek: Oso argi ote dago “*Plaza*” datorren agirietan gaur egun buruan daukagun espazio hori adierazten zutenik? Zalantza egitekoa da. Sarritan *plaza* hitza Ibarluzea etxeari loturik dago. Esate baterako, 1639ko izkribu batean, letraduak *Lakuntzarena* etxea non dagoen adierazteko, zera dio:

“*sita en la plaza de Ybarluzea de esta dicha villa*”.

Bigarren azalpena. Non ote zegoen orduan *Ibarluzeko plaza*? Ez dago erantzun biribilik. Agiri zaharrek azaltzen digutenez, bi eraikin zeuden *Ibarluzea* deiturarekin: *Ibarluzea* barrena eta *Ibarluzea* goena. Lehendabiziko *Ibarluzea* hori gerora *Juanlopezenea* bilakatu zen. Bigarrena, *Ibarluzea* goena, berriz, gaur egun Papelerako sarrera dagoen puntu horretan zegoen.

Nire iritzirako, *Kontseju zaharra* eta *Juanlopezenea* eraikinen artean zegoen eremu hori edukiko zuten *Plazatzat*.

-Ergoena etxartea:

Bigarren auzune honetan sartu beharreko eraikinak *Errementarinea* edo *Mizpirasagasti* eta desagertutako *Artetxetik Irigoenara* artekoak: *Sasturain aundia*, *Sasturain txikia*, *Loikadi Aundi* eta *Txiki (Martanea)*, *Urretane*, *Irigoen biak*, *Juanetxe*, *Espilla*, *Ugalde*, *Larruntza txiki eta handi*, *Apaetxe*, *Ierabizkar errotak*, *Intsausti*, *Garagartzane* edo *Erretoretxe Zahar*, *Arretxe*, *Artetxe*, *Irulegi*, *Urtsulategi*, *Jakuete*, *Torrea*, *Ergoiena* edo *Juliñe*, *Elizondo*, *Garaikoetxe*, *Azpikoetxe*, *Elizalde*, *Seroretxe*, *Erretoretxe*, etab.

Azken aldi honetan *Ergoene* eliza nagusiaren inguruan dagoen etxadiari deitzen diogu. Sasturain-Loikadi ingurukoei *Kotxeta* eremuan kokatzen ditugu.

Argazkia: Guregipuzkoa/Aralar Amezketak 1915.

-Zubillaga etxartea:

Argibide bat aurren-aurrea. Gure ustez, *Zubillaga* deitura etxe batena ez baino etxarte edo auzune batena gehiago da. Hori bai, kasu askotan auzune horretako etxeen aurretik ipintzen dena. Esate baterako, *Zubillaga Mikelerena*. Auzune honetan leudeke: *Jauregi haundi* eta *txiki*, *Jauregi barrena*, *Zubillaga Mikelerena* edo *Erdikoetxe*, *Karrera*, *Lapatza*, *Zillartegi*, *Dendalegi*, *Senperena*, *Armaetxe*, *Berrenerats*, *Aritzio*, etab.

-Arrondoko etxadia.

Askotan irakurriko dugunik ezin esan, baina aldian aldian *Arrondo* deitura ere badator dokumentu zaharretan. Eramu horretako etxeak: *Lizeaga*, *Mendiko*, *Unanbide*, *Unanbide txikia*, *Galartzegi*, *Miraballes (Bialix)*, *Sagastume saletxe (Arroane)*, *Galartzaga garaicoa*, *Galartzaga barrena* edo *azpikoa*, *Espilla saletxe* dira paraje honetan sartu beharrekoak.

-Eta Ugarteko auzoa?

Harritzekoa bada ere, Ugarteko baselizaren inguruan eraikitako etxadiak ez da aipamen gehiegi egiten izkribu zaharretan. Halaz guztiz, gaur egun baino gutxiago izanarren, etxe batzuk baziren eremu horretan. Dena den, bi nabarmendu beharrean gaude: *Ugarte Jauregi* eta *Ugarte Haundia*. Ezin ahaztu, ordea, *Etondoz*, *Etzupelez*, *Etxeberriz*, *Agirainez*, *Zurainez*, *Ugarteko Errotaz*, *Elizegiz*, eta abarrez.

Ugarte izenaz behin bat gehiagotan egin digute galdera. Zer esan nahi du? Nondik letorke? Beti horrela idatzi izan al da? Ez, *Huarte* ere egin da. Eta *Uhart* ere bai. Gaurko euskara arauak aintzakotzat hartuta, *Uharte* izan beharko luke. Norbaitek zera idatzi du:

-Ugarte no es “rodeada de agua” como dice Azkue, sino “entre rios” o “confluencia”.

Amezketako auzo honi dagokionean, bete betean asmatzen du interpretazio honek. Amezketak eta Bedaio ibaiek paraje horretan bat egiten dute eta.

-Zabala/Zubillaga/Arizmendi

Maiz ikusiko ditu irakurleak hitz dietura hauek ondoko orrialdeetan. Etxe asko dago Amezketan horiekin hasten zena.: Esate baterako, Arizmendi. Agirietan *Arizmendi Thomasenea* edo *Arizmendi Danzarinea* deitzen zaie gaurko *Tomasene* edo *Dantzarineari*. Antzera gertatzen Zubillagarekin: *Zubillaga Goenechea* edo *Zubillaga Miquelenea*. Taxu berekoa da *Zabala*. Dokumentuetan sarritan irakurri ahal izango *Zabala Peruchonea* edo *Zabala Martinea*.

“Partido” hitzaren erabilera.

Sarri sarri ikusten den hitza da hau ere agirietan. Zer adierazi nahi da hitz horrekin? Paraje bat, lur-eremu jakin bat, lur-sail handi samarra eta jakina...Ikus dezagun adibide hau. 1769ko irailareen 20an bi pertsona joan ziren Amezketako letratuarengana. Garai hartan Juan Antonio Artola zen. Lehenengoa Joakina Iraola zen, “*viuda que quedo por fin y muerte de Joseph de Carrera*”. Bigarrena, Juan Jose Ybarluzea. Eta adierazi zuten:

“*que la expresada Juachina es dueña y poseedora de la Casa nombrada de Mandindegui y de todos sus pertenecidos; y que entre dichos pertenecidos tiene y posee una tierra sembradía en el partido de Zaval azpia, confinante por oriente con tierra vendida por la dicha Joaquina al expresado Juan Joseph de Ybarluzea; por solano, con tierra de la casa Barrenechea; por setemprion con la tierra de la casa de Arozarena; por poniente con tierras de las casas Lorenzenas y Arguinechea*”.

“*En el partido de Zaval azpia*” esaldian bezala maiztasun handiz erabiltzen den hitza dela ikusiko dugu *partido* hori.

Leku-izenak aintzakotzat hartzea aurrerantzean

Aurreko mendean batipat etxe asko egin zen Euskal Herri osoan ere, eta baita gurean ere. Lekuizen zaharrak ez baino berriak, eta nire iritzi apalean ezer gutxi eskaintzen dutenak ipini ziren: *Leku-eder*, *Guztiona*, *Gure Ametsa*, *Txoko alai*, *Aitak emana*, *Anaiena*...Izen horietara ez baino zaharragoetara jotzea egokiagoa zelakoan nago. Ziurrenik izango da propioagorik;

Etxeak, saletxeak eta bordak.

Izango dira bakarren batzuk, baina oso konta ahala historian zehar suterren bat ezagutu ez duten etxeak. Liburu honetan bertan behin baino gehiagotan emango dugu gertaera horren berri. Gure akorduan daude oraindik *Sasturain* erre zeneko goizgaina, eta *Ugalde* eta *Seroretxe* ere egin zirenekoak. Eta hauek, *Ergone* eta *Kotxetan* soilik.

Zein ote zen arazo larri horri ezarri zekioken irtenbidea? Bazuten, bai, berea. Garai batean etxe asko ziren, baserrien artean gehientsuenak, inguruan *saletxea* nahiz

borda zutenak. Agiri zaharretan ere sarritan aipatzen da *halako etxe hura bere borda parearekin*.

Zenbait kasutan ez da gauza samurra dokumentu bat etxe bati buruz edo borda bati buruz ari ote den jakitea. Hori litzateke, adibidez, honako kasua. Ezkontza-akordioa sinatzen ari ziren Amezketan 1648ko ekainaren 5ean bi familia. Emaztegaiak zekartzan ondasunen artean zegoen:

*“La casa solar de **la Torre** con su huerta y tierras sembradías y baldias y mançanales castañales montes y lo demas pertenecido suyo con la casa de borda que tiene llamada Miraballes y su pertenecido”.*

Zer adierazi nahi zuen letradu jaunak *la casa de borda* horrekin? Zertan bereizten ziren?

Zalantzak zalantza, bistakoa da saletxe eta borden bitartez ihes egin nahi izaten zutela suaren arriskutik. Bedaioko auzoari begira 1770an ezarritako ordenantzetan zera esaten da:

“Que no hayan de custodiar ni encerrar paja dentro de las casas sino que en terrenos que a distancia proporcionada de ellas se les señalarme, deberán colocarla en almiarres para precaver a aquellas de incendios en cuanto se pueda”.

Nahiz eta neurri hauek Amezketan ere hartu, asko eta asko izan ziren suak kiskalitako etxeak. Liburu honek argi eta garbi utziko du puntu hori.

Apaizetxe eta Erretoretxeak Amezketan

Ez da zeregin samurra Amezketako apaiz eta erretoreek aterpea non izaten zuten jakitea. Informazio asko dago, baina argibideak eman beharrak sarritan zalantza sortzen du. Jakin badakigu harri irristagarrien gainean gabiltzala, eta ez beti beti beharko genukeen ziurtasunez: *Erretore Etxeberri, Erretoretxe Zahar, Erretoretxe, Apaiztegi, Apaizetxea...*

Zerbait esan behar bagenu, etxe askotara bildu ohi zirela esan dezakegu.

1613ko da lehen aipamena. Urte hartako maiatzaren 28an ados jarri ziren herri agintariak eta Domingo Sarasola hargina, lehendik egina zegoen *Margaritaetxeaz* probestuz, erretoretxe berria egiterari ekiteko. Arotz lanak, eta teilatua ematen zen lanik premiazkoena, Juan Zabalak hartu zituen bere gain. Juan Zabalarik 1616an 60 dukat eman zitzaizkion.

Mende horretan bertan, 1670 aldera, Gaintzako Pedro Sasian zurginari eman zitzaion arotz-lana. Eskritura horretan esaten denez, *Insausti* deiturako paraje batean omen zegoen erretoretxe berria. Nere ustez, mende bat edo eman zuten Amezketako erretoreek Intsaustiko etxera erretiratuz.

Etxe hori hondatzen zihoalako edo, 1799ko irailaren 30ean, agiri hau luzatu zituen herriko agintariei Juan Bautista Urretabizkaia alegiarak:

*“sabe que el Patronato de la Iglesia parroquial de Amezketa intenta fabricar de nueva planta la **Casa Rectoral** a bastante distancia de dicha iglesia por no haber comodidad en la cercanía para ejecutarla. Que el compareciente a la misma distancia y con mejor comodidad tiene fabricada una casa con tres altos, muy capaz y decente para la habitación del Rector”.*

Ergoenari buruzko deskribapen egokia: 1733.

Zoritzarrez, ez dira artxiboetan Amezketa nolakoa zen argitzen diguten deskribapenik ikusten. Salbuespenetako bat 1733koa da. Ergoena nolakoa zen hitz gutxitan esaten digu:

*“La casa llamada de **Elizalde** que esta contigua á la **Seroechea** a mano derecha subiendo desde la casa de la **Torre** la calzada que sube para la Iglesia Parrochial de san Bartholome de esta dicha villa con su huerta que se hace pegante á dicha casa **Elizalde** propia de la referida Josepha de Sarasola con todos sus pertenecidos. Y sobre la Persona y bienes del dicho Martín de Loidi su fiador y sobre sus casas de **Gorostidi**, **Zuriarrain chipia**, y la llamada **Balentinea**, que esta entre las casas de **Ursalategui** y **Jacuechea** á la parte interior del rio publico que vaja del monte de Aralar en el barrio de Ergoena”.*

Ez da beste munduko deskribapena, baina estimagarria edozein modura ere. **Balentinea**, ziurrenena, gaur *Juaneche* deituraz ezagutzen duguna da.

Ustekabeko laguntzak aldian behin

Berebiziko poza eragin ohi dio paper zaharrak miatzen dabilenari xehetasunez beteriko izkribuak irakurri ahal izatea. Ez da askotan gertatzen dena, baina aldian aldian ematen dira kasoak. Esate baterako, aspalditxo galduak dira Amezketan *Ana Mariena*, *Otxoena* edota *Iturbeltzaga* deiturak. Litekeena da horrela deitzen zitzaien etxeak oraindik ere zutik egotea, baina izen horiek aspaldi ahaztu ziren gure herrian.

1737ko idatzi batek argibide dotore askoak ematen dizkigu eraikin hauei buruz. Kontua da bolada hartan herritar batzuek mugarriekin eta erabiltzen zituzten lur-sailekin ez zebiltzala oso zuzen. Herriko agintariek gehiegikeria horien berri jakin nahi izan zuten eta kasu guzti guztiak euren begiz aztertu. Hone hemen batzuk:

*“Asimismo haviendo llegado a las huertas de las casas de **Ana Mariena**, **Ochoena**, y **Yturbeltzaga** sus mercedes allaron excesos en dichas huertas, del mojon que se halla en la huerta de la casa de **Francena**, y otro mas debajo de la de **Galarza echea**, y que habran dichos dueños. Haviendo llegado hacia la casa de **Auzaechea la bieja**, que es de Don Antonio de Eraso, hallaron pegante a ella hacia la casa de **Thelleria bitartea** una huerta, y en ella exceso segun declaracion de Antonio de Berrenaras, Maria Francisca de Ymaz, y sus mercedes mandaron abrir”.*

Etxeen deskribapen urriak

Lastima, baina ez da etxeen deskribapen zorrotzik egiten. Bakanen bat kenduz gero, ez dator dokumentuetan garai bateko eraikinak nolakoak ziren argitzen diguten oharrik. Salbuespenetako bat 1772koa da. Urte hartako maiatzaren 26an Migel Antonio Maiz maisu lurneurtzaileak (agrimensor) nahikoa zertzelada egokiak ematen dizkigu Artetxe eraikinari buruz. Garai hartan Madrilen bizi zen Jose Joakin Agirrezabalarena zen Artetxe. Ikus dezagun nola ikusten zuen Migel Antonio Maizek:

*“Lo primero es que dicha casa de **Artechea** esta situada en el mejor y mas ventajoso terreno de esta villa de Amezqueta por sus combeniencias, asi para asistir a la Parroquia a los oficios divinos, como para todo lo demas necesario de lo temporal.*

Su fabrica es quadrada y travajada la cantería con piedra labrada, y caliza hasta el primer suelo, y dende (¿) arriba hasta los tejados con ladrillo.

Tiene sus puertas principales al oriente, y los mejores aposentos al mediodía. Por poniente le ciega sus cimientos el rio que baja desde el monte Aralar,ó XXX (que es el primero que divisan desde la mar las embarcaciones que vienen al famoso puerto de Pasaje, y de San Sevastian que son en esta misma provincia y hai en el abundancia de metales, Arboles bravos, y pastos y aguas saludables, y la Xusticia, Reximiento y vecinos de esta villa de Amezqueta exercen Jurisdicion alta y baja mero mistio imperio en dicho monte y sierra a cuyo pie esta situada esta villa con todas facultades de prender, penar y castigar.

*Por setemprion mira dicha casa al varrio de **la Plaza** de esta villa; su edificio es antiguo y por tanto no se halla repartida en su interior tan decente que ahora se hace, pero con el coste de unos siete mil reales, se puede poner havitable para qualquiera persona particular de los que residen en esta provincia o en otra qualquiera parte.*

Tiene por alto cinquenta pies, y de ancho en cada una de sus quatro partes cinquenta y dos tambien pies regulares.

La cogen en medio dos tierras sembradias con proporcion de hazer una dilactada huerta y frutalera y las demas tierras sembradíás tiene por oriente y poniente a distancia de tiro de perdigon y su plazuela delante.

No es larga de montes bravos pues solo los que tiene son castañales. Dichas tierras sembradíás llegan hasta ochocientas posturas de tierra de manzanos de á quatrocientos quarenta y un pies cubicos cada postura todas de buena calidad y bastantes para cultivarlas para un casero.

La plazuela y camino para el no llevan onze posturas de tierra de manzanos y el terreno que ocupa la casa llega á algo mas de ocho posturas.

Los castaños llegan á quatrocientas posturas de pies de manzano. Y ademas tiene mediano manzanal que el año de su cosecha da pasadas quarenta cargas de manzana.

Todo el edificio de dicha casa con su terreno y tierras y castaños sin inclusión de los derechos de vecindad y sus aprovechamientos libres en toda la jurisdiccion de esta villa importa sesenta y dos mil reales de vellon segun la estimacion corriente de los vienes en este pueblo”.

Zenbat eskertzen diren maila honetako deskribapenak; Tamalez, ez zaizkigu asko iritxi Amezketako gainerako etxeez

Amezketako Plazaz hitz bi gehiago

Edozein dela ere, herri bateko *plaza nagusiak* garrantzi berezia izaten du. Horietan egin ohi dira erreibindikazioak, horietan ospatzen dira pozaldiak eta horietan negartzen zorigaitzak. Amezketan ere horrela izan dira gauzak.

Amezketaren historian hiru izan dira gutxienez *plazaren* tratamendua merezi izan duten guneak. Lehenengoa Jauregi Haundi oinetxearena izango litzateke. Hori esan liteke Domingo Lizaso azpeitiarrak XVII.mendean idatzitako *Nobiliario* obra famatuan esaten dena kontuan izanik. Honela dio Lizasok:

"En la jurisdicción de la villa de Amézqueta, de la Provincia de Guipúzcoa, florece con notoria antigüedad, calidad y lustre, la Casa Solar y Palacio de Amézqueta, de pariente mayor de la parcialidad oñecina, en un sitio llano y delicioso, junto al río principal de la misma villa.

*... La plaza antigua y primitiva de la villa de Amézqueta, que hoy llaman **Plaza Vieja**, es jurisdicción propia y privativa del mismo Palacio de Amézqueta, con su nogal en medio, donde en tiempos pasados hasta ahora pocos años ha celebrado la dicha villa sus fiestas públicas de toros".*

XVIII.mendeko agiri batek ere antzeko kontuak adierazten dizkigu. 1790eko ekainaren 17an idatzi zen izkribu batean Jauregi Haundi oinetxearen ondasunen artean aipatzen zen *Plaza zaharra* eta bere *intxaurrondo* famatua. Ekainaren 17 hartan Jauregiko nagusi berria bere ondasun guztien jabetza hartzen ari zen. Ondasun horien artean zegoen *Plaza zaharra*:

*“El espresado Alguacil mayor continuando dichas posesiones tomo de la mano al citado Don Jose Juaquin de Eraso, y lo introdujo en la **plaza vieja** de dicha villa, y estando en ella se paseo por la misma tiro piedras, y hizo otros actos de posesion que dijo la tomaba real, corporal velquasi quieta y pacificamente sin que hubiese havido contradiccion alguna, y sin perjuicio de otro tercero que mejor derecho tenga á dicha plaza vieja y todo su sitio, en la que dicho Alguacil le amparo, previniendo que aunque en las posesiones referidas en el requerimiento que ba por principio aprendidas en los años pasados de mil seiscientos, y diez y siete, mil setecientos, setenta y dos consta*

haverse tomado de un nogal, que havia en la mencionada plaza perteneciente a su citado Palacio no pudo aprenderla sino del sitio que dicho Arbol ocupaba, respecto de no existir este en la actualidad por haverlo arrancado en tiempo del anterior poseedor, y aun procedido a su venta segun ha llegado á comprender, y para que semejante acto no cause perjuicio alguno a su Mayorazgo haze el referido Don Jose Juaquin esta expresion con reserba de usar de su derecho como le convenga requiriendome a mi el escrivano lo ponga por diligencia para los efectos que haia lugar. Y el Alguacil mayor pidio que todo esto se ponga por testimonio, y firmo á una con dicho Señor Eraso, y en fee de ello y de que se le pongo en la forma suso dicha lo firme yo el escrivano. A lo qual se hallaron presentes por testigos los mismos que se contienen en las dilixencias precedentes=Jose Santiago de Urrutia=Don Jose Juaquin de Eraso=Antemi Jose de Arrataca”.

Lastima xehetasun gehiago ez eskaintzea dokumentuaren zati honek; Hor esaten denarekin nekez ziurtatu diteke non zegoen *Plaza zahar* hori. Zenbaitek uste duenez, gaur egun Beltzaren Plaza esaten zaion horretan edo egon zitekeen, baina ez da kontu segurua.

Dena den, herriko plaza hori egituratzen lagundu dutenak bi faktore izan dira. Batetik, aurrenekoa bertan egoteaz gain, 1740 aldera jaso zen bigarren Kontsejuak berebiziko bultzada eman zion. Horrez gainera, pilotalekua bertan egoteak ere bere eragina izan zuen, zalantzarik gabe.

ARGAZKIA: 5. PLAZAKO BAT

Udaletxe berriaren kokagunea erabakitzea urrats erabakigarria bilakatu zen Plazaren garrantziari ematerakoan, bai. Horregatik erabaki haren bitxikeriak eskuratu nahi izan genituenean, eta 1740.urtea baino aurreragoko kontuekin ari gara, *Plazaren* aipamena behin baino gehiagotan egiten da. Hona hemen, esate baterako, idatzi interesgarri bat:

“una heredad en la parte superior de la Plaza publica de esta villa para hazer en ella la casa concejil nueva que esta dicha villa intenta fabricar y que ahora para tasar, avaluar y medir dicha heredad, y dar su importe en el dicho paraje de la parte superior de la dicha Plaza”.

Aurreko pasarte honetan esaten dena kontua izanik, (*una heredad en la parte superior de la Plaza publica*), garai bateko plaza hura *Juanlopezenetik* hasi eta gaur egun Kontsejua dagoen punturaino luzatzen zela esan daiteke. Hipotesi honen alde letorke aurreko txatal batean aipatu duguna: *Plaza de Ibarluzea*.

Bigarren faktorea: pilota lekua. Kontseju berria bukatu eta handik urte gutxira, 1789 aldean, pilotan jokatzeko zen Amezketako plazan. Ez zen gauza asko behar kirol horretan jarduteko: zoru lau eta berdina, horma txikiren bat, sakea ateratzeko *botadera*

esaten zitzaiona eta kito. Ez zegoen beste ezeren premiarik. Nire iritzian, Pentatik Laturu-Letradunea bitarteko gune horretan zegoen pilota-plaza.

Arritzagako pilotalekua

Amezketako plazan zegoen pilotalekuaz gainera bazen beste bigarren bat ere. Arritzagan zegoen. Ez da gure asmakizuna, hori aitortzeko datuak daude eta. 1790ko ekainaren 1ean, Amezketako ordezkaritza batek *Jauregi Haundiari* zegozkion sarobeak bisitatzen izan ziren Aralarren. Lehen aurreratu bezala, garai hartan don Jose Joakin Eraso y Amezqueta zen ondasun haien jabe, eta horien artean Arritzagako sarobeak zegoen. Bisitari buruzko idatzia hau da:

“Y el dicho Alguacil maior dandose por requerido, con asistencia de mi el dicho escrivano y de los testigos que avajo se espresaran cojiendole de la mano al mencionado Don Jose Joaquin le introdujo en la plaza, ó Juego de Pelota de la fabrica de por quanto aseguraron los que se hallaban por circunstancias, ser aquel sitio el sel de Arrizaga, donde se paseo, y tomando unas chinasy pedacitos de piedra, y vena la tiro á una y otras partes, é hizo otros actos en señal de Real corporal velquasi posesion, que la tomo quieta y pacificamente del enumpciado sel de Arrizaga, sin perjuicio de otro interesado que mostrare tener mejor derecho á el, y le amparo para que no sea despojado de esta posesion”.

Mendi mendian horrelako kirol-gunea baldin bazegoen, esan liteke herriko plazan ere izango zela. Horrez gainera, pilotarako ere zaletasun nabarmena zegoela garai hartako Amezketan.

Eskribau edo letraduei esker

Garai bateko Amezketaren gainean orain arte idatzitakoak eta aurrerantzean egingo direnak eskribauei zor dizkiegu. Ez dago behar beste hitz egindako lan hori behar bezala eskertzeko. Argibide bikainak utzi zizkiguten, eta egiazko historia egiterakoan oso baliotsuak gertatu zaizkigunak. Ez dut pentsatu ere egin nahi zer izan zitekeen beste modu batera, hau da, letraduen dokumenturik gabe bageunde. Egia esan, agiri batzuk motz geratzen dira gaur egun ditugun premietarako. Hobeto esanda, xehetasun gehiago paperetara eraman izan balute, gu geu ere ziurrago, irmoago eta sendoago mugituko ginateke zenbait adierazpen egiterakoan. Dena den, eskasiak eskasi, lan txalogarriak egin zuten guztiek ere. Ustekabean seguru asko, baina informazio eta argibide aberats asko utzi ziguten gure aurrekoen Amezketaren hobeto irudikatze edota zuzenago ezagutzeko. Letraduei esker dakigu zer nolako arazoak zituzten gure aurrekoek eta zer nolako bideak hartu zituzten irtenbideak bilatzerakoan. Izan ere, ikusten zutenaren eta esaten zitzaienaren *notario zintzo* izan baitziren letradu haiek. Gure herriaz dauzkagun argibide guztiak, XV.mendean hasi eta XIX.mendera artekoak eskribauei zor dizkiegu.

Nahiz eta guretzat gaur egun garrantzi eta eragin handiko profesionalak izan, ez dirudi garai batean jendearentzat gizarte maila berezian kokatu beharrekoak zirenik

letraduak edo eskribauak. Ez dut dokumentu bat bera ere ikusi *Don* zein *Señor* tratamenduarekin.

Zer zen eskribau-letraduen zeregina? Hirukoitza zela esan genezake. Batetik, gaur egungo herri-idazkariak osatzen duten lana betetzen zuten neurri handi batean. Batez ere, herri-batzarretan hartzen ziren erabakiak paperera eramatea izaten zen beren eginkizun nagusia. Agiri askotan esaten da “*escrivano de ayuntamientos de la citada villa Amezqueta*”, hau da, herriko agintariak egin ohi zituzten bilkuretan esaten zena izkiriartzen zutenak. Bigarrenik, alkatearen esanetara egon ohi ziren letraduak, herriko lehen agintaria *epaile* zen aldetik, pleitoak sortzen zirenean edota gertaera ilunen bat argitu behar zenean. Letraduaren eginkizuna izaten zen aurren-aurreneko orrialdetik azkenekoraino pleituaren mutur guztiak biltzea: informazioa, lekukoaren testigantzak... Neurri batean, beraz, epaitegiko idazkariaren lana ere betetzen zuten.

Hirugarren bete beharra. Garai batean etxeak erosten ziren, eta idi-pareak, eta artaldeak, eta etxeak alkilerrean ematen ziren, eta testamentuak egiten ziren,... Akordio horiek indar gehiago izan zezaten, idatziz ikusi nahi izan ohi zituzten gure aurrekoek. Esandako guztia jasotzea, xehetasunak biltzea eta paperean islatzea letraduaren zeregina zen.

ARGAZKIA: 6. ARTXIBOKO ORRIALDEREN BAT

Adibide batzuk ematea argigarri gertatuko zaigula uste dut. 1820ko apirilaren 30ean garrantzi handiko bilera egin behar zuten Amezketan. Garai hartako legeak eskatu bezala, Gipuzkoako diputatuak aukeratzeko, herri guztietan *Parroki-hautesle* edo *Elector Parroquial* izendatu behar ziren herri guztietan. Bilerara jende asko etorri zen, eta besteak beste hau idatzi zuen letraduak:

“Y dijeron estando á Puerta abierta, que se habían juntado al objeto de cumplimentar todo lo que esta mandado por la constitucion de la monarquía Española y ordenes circuladas en su virtud... Se nombraron por Escrutadores á dichos José Ygnacio de Garagarza y Juan Bautista de Artola; y por secretario á mi, Miguel Ygnacio de Aguirrezavala Escribano”.

Argiro ikusten du Migel Ignazio Agirrezabalak zeintsu ziren bilera hartan bere graduak. *Idazkari*, alde batetik. Bestetik, *eskribau* edo letradu.

Herri agintari berriak urtero aukeratzen ziren. Ez zen horrelakorik letraduekin gertatzen. Gauza ziren bitartean lanean jarraitzen zuten. Lanbide emankorra zela esan genezake. Batetik, asko ez bazen ere, kobratu egiten zutelako, urtean hainbesteko bat. Hori erakusten du 1750.urteko agiri batetik hartutako pasarte labur honek:

“derechos de este auto, y del que prezedo no lleve por quanto en cuenta de ellos y de otros quehaceres me paga la villa diez ducados al año”.

Agiri askotan esaten zaigu gainera non idatzita dauden izkribuak. Herri osoari zegozkion arau, dekreto eta oharak herriko etxean hartzen ziren, eta kasu horietan letraduak bilera non egindakoa den azalduko digu: “*en la sala de la casa concejil*”. Beti ez baina, gogotik estimatzen zuten puntu hori argi eta garbi uztea.

Herri osoaren arazoak ez baina familia jakin eta pertsona zenbaiten kontuak jaso behar zituela eta bilera non egin zen ere adierazten du batzuetan letraduak. Ikus adibide hau:

“*En la Casa y escribanía de mi Miguel Ygnacio de Aguirrezavala Escribano Real de S. M. y del numero de esta villa de Amezqueta **que la tengo en el Barrio de Ergoyena***”.

Migel Ignaziok ez digu esaten *Ergoneko* zein etxetan zeukan bere eskribau-bulegoa. Gaur egun *Juliñea* esaten diogun horretan ote zegoen? Litekeena da.

Liburu honetan bertan maiz ikusiko denez, agiriak zein baserri edo etxetan idatzirik dauden esango digute letraduek.

Beste kontu batean ere oso zintzoak izan ohi ziren eskribauak: agiriaren data ematerakoan. Agiri guztiak urte-hilabete-egunaren berri emanez hasten dira. Apur batzuetan, ordua ere iapatzen dute. Honela ekiten dio gehienetan letraduak bere lanari:

“*En Amezqueta a veinte y dos de Julio de mil setecientos ochenta y nueve ante mi el escrivano y testigos parecieron presentes...*”.

Garai hartako idazkari-notario hauek herriz herri ibiltzen ziren zenbait kasutan. Letradu bera ikusi ahal izango dugu agiri bat Orendainen izenpetzen eta hurrengoan Abaltzisketan antzeko lana egiten. Nahiz eta letradu bera izan, agirien letra idazteko modua aldatu egiten dela ikusiko dugu. Zer esan nahiko luke xehetasun honek? Eskribauak berak ez baina *laguntzaile* batek egindakoa dela. Oso modu egokian ikusten da hori Fernando Amezketarra deklaratzera deitu zuten egun batean, *Mendikoko* Juan Ignazio Zabalak 1801eko Korputz egunean zer egin zuen argitzeko eskatu ziotenean. Fernandok plan ikusi omen zuen “*al expresado Juan Ygnacio de Zavala en la tardeada del citado dia del Corpus en la mencionada plaza jugando en ella a pelota con el **curial** o **amanuense** de Jose de Arrataca escribano de la propia villa*”.

Hiztegi batera joanez gero, *amanuense* horri euskaraz *izkribu-kopiatzaile* edo *idazlari* deitzen zaio, hau da, beste norbaiten agindura idazten duena da *idazlari* hori.

Ez dago esaterik zer nolako eragina duen agiriak irakurtzerakoan idazlari hauen letra-moduak. Batzuen aise irakurtzen da; besteena, berriz, nahiz eta gogotik saiatu asko kostatzen da. Irakurtzeko zaila izatea gauza bat da, eta bestea idatzitakoa behar bezala irakurtzen ari ote zaren ez jakitea...Esate baterako, Joseph de Artola edo bere idazlariaren letrakera ez da samurra irakurtzen. Zenbat buruauste eman behar zигun jakin izan balu, argiagoa egiten saiatuko zen;

Eskribauen aukeraketan herriko auzokide guztiek parte hartu zezaketen, hau da, *auzotasun* eskubidearen jabe zirenek. Jo dezagun 1793ko urriaren 12ra. Juan Antonio Artola eskribau hilberriaren ordekoa hautatu behar zen. Amezketako eskribautzaz arduratzeko bi hautagai zeuden. Biak, amezketarrak. 53 auzokide azaldu ziren hautaketan parte hartzera. Altzon eskribautzan ari zen Juan Antonio Lantzek 29 boto beregatu zituen. Orendainen ziharduen Jose Arratakak 24 boto izan zituen bere alde. Amezketako eskribau-lanak Lantzek egin zituen 1800.urtera arte. Osasunez makal zebilela-eta, karguari uko egitea deliberatu zuen. Horrekin batera, testamentua egitea ere bai. Ez zion badaezpadako ondarea, heredentzia utzi bere alaba Maria Josefa Lantzi; Bai, eskribau gehientsuenek, oso aberats ez dut esango, baina ondasun dezente egin zuten.

Ikus dezagun Juan Antonio Lantzek egindako testamentua. Bere mundualdia azkenetan duela badaki eta lanerako gauza ez dela:

“Hallandome en Cama de enfermedad corporal, mas en mi Sano Juicio y entedimiento natural”.

Bistakoa da, bai, buruz argi dabilela artean. Oso kontu zehatzak esango dizkio bere segidako eskribauari:

-“Ordeno y mando que sea sepultado en la Iglesia Parroquial de San Bartholome de esta villa, y sepultura, donde se halla enterrada Maria Luisa de Artola, mi difunta madre.

*-Casado legitimamente con doña María Ygnacia de Yrazusta, y Abalibide, de Orendain, hija de Juan Martínez de Irazusta y Maria Luisa de Garagarza, vecinos de Orendain, dueños de la Casa Solar de **Abalibide aundia**.*

-Reconozco por mi hija a Maria Josefa de Lanz y Yrazusta que es de edad de diez a once años.

*-Al tiempo que contraje matrimonio, Martin Esteban de Lanz y Maria Luisa de Artola, mis padres, me hicieron donación de **la Casa de Ugalde chiquia** con su huerta y pertenecidos.*

*-Antes de contraer matrimonio adquiri por via de compra **esta Casa de Laturu** con todos sus pertenecidos de Santiago de Lanz, por escritura del 26 de julio de 1787, ante Juan Antonio de Artola, escribano de Amezqueta. He ejecutado muchas y considerables obras de Canteria, Carpinteria, Albañileria y Ferrateria que pasaran de mil pesos poco más, o menos.*

*-E hecho plantar pasados ciento treinta Arboles Castaños, y algunos Robles, en un terreno **Ondazillegui** llamado **Choritegui** como en **Laturu gaztañadi** en Arrondoa, pegante al Castañal de **Yrigoena onuzcoa** algunos pocos Castaños.*

-Maria Ygnacia de Yrazusta tenia por dote y caudal novecientos y ochenta ducados de vellon:

-trescientos y ochenta ducados de la Casa de Abalibide

-ochenta ducados de un legado de Don Francisco de Yrazusta, Rector que fue de Orendain.

-cuatrocientos ducados de Don Francisco Antonio de Yrazusta, Presbítero Rector de Orendain, hermano de ella.

-doscientos ducados restantes por otro legado de Juan Ygnacio de Yrazusta y Abalibide, su tío Rector de Orendain por los buenos servicios que le hizo en diferentes años como Ama de llaves y con mas una cama cumplida y vestida, y una Arca de guardar Ropa.

- He recibido algunos reales cuya liquidacion esta aun sin berificarse, pero consta de Libro de Cuentas de mi dicho cuñado actual Rector de Orendain.

-El arreo prometido recibimos a ecepcion de una Novilla, y un ganado Zerdudo.

-Tengo diferentes Creditos y haberes, como tambien tenia varias deudas asi de dares y tomares, como de lo trabajado en mi oficio de Escribano.

-Lego el quinto de todos mis vienes muebles y raices derechos y acciones presentes y futuros a mi muger.

-Nombro Albaceas y testamentarios a mi Padre Martin Esteban y al Licenciado Joaquin Baupista de Arizcorreta de Artola, Abogado de esta villa, mi primo.

-Nombro por mi unica y universal heredera de todos mis vienes a Doña Maria Josefa de Lanz mi hija”.

Testamentu guztiak izan ohi dira argigarri eta baita hau ere. Lantz eskribauaren ondasunak eta bere alaba bakarrarenak ondo bistan geratu dira. Pulamentuzko gizona izan zela bistan dago.

Azken ohar bat Amezketako eskribauez. Amezketan garai batean egiten ziren bilera eta juntadizo guztiak eskaraz egiten ziren. Horretan ez dugu zalantzarik izan behar. Halaz guztiz, hitz jakin eta urri batzuk izan ezik, gainerako guztia gaztelaniaz idatzirik dago. Lastima;

“Ondazilegi” hitzaren muina

Aurreko txatalean, Lantz eskribauaren testamentuan *ondazillegui* hitzaren aipamena egiten da. Agiri askotan ikusi ahal izan dut. Gaur galduxea dago. Zer demontre esan nahi ote du, zer adierazi nahi ote du hitz honek? Bere mamiaz esplikaziorik zuzenena aita Julian Alustizaren *Euskal baserriaren inguruan* liburuak ematen du:

“Garai batean, Euskal Herrian, lurrak herriarenak ziren, gehienbat. Hala ere, edozein herritarrek sar zezakeen arbola-landarea lur haietan: berak jasoko zituen, gero, zura eta fruitua. Hortik dator ondazilegi delako eskibide horren izena ere (ondazilegi: ondo-edo arbola-eskubidea), noski. Edozein arbola-mota landa zitekeen, gainera: haritza, intxaurrondoa, sagarrondoa eta abar. Baina, batez ere, gaztaina-landareez baliatzen ziren, bere garaian alea jasotzeko asmotan.

Hamaikatxo vahaste eta borroka sortu zen bazterretan eskukide hori zela medio. Baina zutik iraun zuen, mendeak mende. Eta gaur egun bertan ere, nahiz eta herri-lurretan landaketa berririk egitea zilegi ez izan, lehendik landaturiko zuhaitzentzat oraindik balio du ondazilegi izeneko eskubide horrek”.

ARGAZKIA.7. BASOA.

Lantzek Txoritegi esaten zitzaion ondazilegian landatzea. Ola aldeko lur-eremua da Txoritegi hori, gaur egungo Eguzkitza berriaren gaikaldean.

Abizen edo deitura baten idazkera ezberdinak

Garai batean bere abizena *Zavala* zela eta orain alde guztietan *Zabala* ikusten duela esan ohi duen bat ezagutzen dut familian, urrutira asko egin gabe. Sarritan galdetzen dit ea nola datorren berea agiri zaharretan. *Zavala* idatzi behar dut edota *Zabala* erabiltzera errenditu behar naiz?-galdetzen dit maiz.

Garai bateko eskribau edo letraduak nekez hartu ditzakegu eredutzat, ispilutzat. Ortografiazale izugarriak ez zirela erakusten dute agiri zebaitetan. Orain modu batera, gero bestera...Adibide bakar bat ekartzearen, jo dezagun 1769ra. Amezketan lan handiak egindako letradua zen Juan Antonio Artola, asko idatzitakoa alegia. Bada, bere dokumentu batean idatziko du “*parecieron presentes Juaquina de Iraola...*” eta ia segidan, lerro batzuk aurrerago, “*la expresada Juachina es dueña...*”. Hona hemen pertsona berbera bi modutara idatzitako izenarekin...Ez dut uste gehiegi kezkatzen zuenik arazo horrek gure Juan Antonio Artola.

Gatozen beste adibide bat jorratzera. 1793an gaude. Eskritura bat egiteari ekin dio eskribauak: “*Esscritura de obligación de Juan Jph de Larreta principal, y Juan Francisco de Labaien su fiador, á favor del Señor Marques de la Paz*”. Eskrituraren atarian horrela idatzi ostean, zazpi lerro aurrerago, honela dio: “*parecieron presentes Juan Jose de Larreta de Loiolazarra, y Juan Francisco de Lavaian vecinos de Amezqueta*”. Labaien? Lavaian?...Horrelako kasu dezente ikusiko da liburu honetan: Liceaga/Lizeaga, Zavala/Zabala, Oriozavala/Oriozabala, Loydi/Loidi, etab.

A bai, garai bateko agiri asko *escrivanoak* idatzita daude eta ez *escribanoak*...egungo ortografian eskatuko lukeen moduan.

-Altuna edota Altunaga?

Azken mendeotako idazkeran zenbait hitzi bukaerako *-ga* kentzeko joera somatzen da. Aspaldi bateko *Altunaga* hura *Altuna* bihurtu zaigu. Amezketako kasuan horrelako adbide gehiago ere bada gure ustez; batzuk gainera oso nabarmenak. Hona hemen serenad labur bat:

-Urritza/Urritzaga.

-Zabala/Zabalaga.

-Galartza/Galartzaga

-Olaia/Olariaga.

-Arritza/Arritzaga.

-Beatza/Beatzaga

-Aitzxorrotxa/ Aizchorrochaga (1631).

-Iturbeltza/Iturbeltzaga.

Dokumentu bakanen batean gaurko *Espilla* ezaguna *Ezpillaga* idatzirik ikusi dugu. Ez dezagun ahaztu, gainera, garai batean bazela *Yturbelzaga* esaten zitzaion eraikina ere.

Abaltzisketan bazen *Isasa* deitzen zitzaion parajea. Ez dut zalantzarik. *Isasaga* zen jatorri jatorrian.

1.-Agirretxeberri

Ez nago non zegoen ziur esateko moduan, baina Sendotzako agiriak aztertu ondoren, zein parajetako eraikina zen aurreratu dezakegu. Adibidez, 1819ko agirietan haxe da Erretoreak erabilitako ordena: Azkonabieta, Berantetxe, Agirretxeberri eta Eizagirre. 1833koan, berriz, aurretik Azkonabieta dator eta segidan Berantetxe. 1863koan, azkenik, Eizagirre aipatzen da aurretik eta Azkonabieta segidan. Ez dago dudarik.

1758rako behintzat jasota zegoen etxe hau. Urte hartan Juan Garagartza zen bere jabea. Oso aberatsa zen Juan hau.

1767ko urtarrilaren 31an, Juan Garagartzak, don Jose Manuel Garagartzaren aita eta administradore zenak, Juan Antonio Artola letraduari haxe aitortu zion:

*“Parezco ante vuestra merced como mas haia lugar y digo que en veinte de diciembre ultimo hize donación intervivos del usufruto de la casa nombrada **Aguirre Echeverria** y de todos sus pertenecidos existentes en esta villa, que arriendan en cada año quarenta ducados de vellon, á favor de dicho Joseph Manuel mi hijo”.*

Oso interesgarria da 1773ko informazio hurrengo informazio hau ere, Juan Garagartzari buruz ari delarik:

*“y como vienes de Juan de Garagarza la casa nombrada de **Aguirre Echeverria**, y la casa nueva que esta haciendo en el varrio de Ergoiena en medio de las casas de **Arrechea**, **Sasturain** y **Loicadi aundia**, con sus huertas, tierras, montes, y demas pertenecidos á ella” GPAH.*

En 1819an bere jabea Jose Ignazio Garagartza zen eta Frantzisko Oriorabalarari errentan emateko modua egin zuen.

1839an erre egin zen etxea, eta Josefa Ignazia Mendizabalek berriro zutik ikusi nahi zuela adierazi zuen. Horretarako herriari laguntza eskatu zion Juan Jose Garagartza zenaren emazteak: kapiario, solibe eta abarretako behar zuen zura, alegia. Hona hemen agiria:

*“Josefa Ignacia de Mendizabal viuda de Juan Jose de Garagarza y en representación de sus hijos menores, posehedora del caserio de **Aguirreecheverria** de esta villa, a V.S. hace presente con toda consideración: que el edificio de dicho caserio ha sido quemado por un incendio casual, como es publico y notorio, sin que se haya salvado ningun maderamen. Aunque prebee los trabajos y gastos insoportables que va a tener, trata de construirlo, y en esta atención*

Suplica a V. S. tenga la vondad de franquear en sus Montes concegiles aquellos robles que sean actos (sic) para frontales, goyaras, solibos, cabrios y para otros usos, que necesita, y de paso providenciar, que cada propietario de esta villa le contribuya con los veinte reales que V.S. tiene decretado satisfacer para los que se vieren en igual desgracia, en que recibira mercedes. Amezqueta, y octubre 11 de 1839”AMUA-

0067/021

2-.Aizarnanea

Oso berri gutxi dago etxe honetaz. Plaza inguruan zegoela badakigu, baina hortik aurrera informazio gutxi dago. Apurretako bat 1863koa da. Urte hartan etxe honetan Jose Ignazio Ibarguren eta Luisa Antonia Galartza bizi ziren Josefa Ignazia alabarekin.

3-.Agirrezabala.

Azken aldian egin diren zerrendetan bere aipamena egiten ez bada ere, deitura honetako etxe bat Amezketan izan ez denik ezin esan gabe utzi. Bai, bazen honela esaten zitzaion etxea eta garrantzi handikoa gainera. Besteak beste, *Agirrezabala* abizena bere anparoan sortu zelako eta ugaria izan delako Amezketaren historian; gaur egun ere oso ezaguna delako gure herrian.

Gehiago esango nuke. Gaur egun *Alegirietxe*, *Martinea* eta *Perutxonea* etxeak dauden inguruan egon behar zuen, derrigorrez. *Ibarluzea* eraikinaz XX.mendean idatzitako informe batek zera esaten digu:

*Confina por el Este con camino real y rio que vaja del monte Aralar, por el Sur y Oeste con camino carril que se dirige a **la caseria llamada Aguirrezabala**.*

Beraz, gaur egun Papelerako sarrera/porteria dagoen inguru horretatik gurdibidea (camino carril) zegoen Agirrezabala baserrira.

4-.Aldabalde

Horrela esaten zitzaion etxeaz ezer gutxi jakin izan bada ere, bere garaian, XVII.mendean bazen *Aldabalde* esaten ziotena.

Bere lehen aipamena nahikoa antzinakoa da: 1648. Urte hartan Juan Lopez Goienetxea zen bere jabea. Handik urte batzuetara, 1668an, Antonio Urkiarena zen.

Asko ez baina argi pittin bat eman diezagukeena hurrengo aipamen hau da, 1694an idatzitakoa:

*“Y dixerón que la dicha Maria Juaniz de Arrue tenía una pieza de tierra senbradia en el termino y paraje que antiguamente llamaban **Aldavalde** junto a la vorda caída de la casa de **Carrera** sita en el barrio de Zubillaga”*GAO-PT1093

1709an, Andres Agirrezabala Goienetxerena zen eraikin hau ere:

*“como vienes propios de dicho Andres de Aguirrezavala **Goieneche** las sus casas llamadas **Goienechea** y **Aldabalde**”*GPAH-H387

1755tik 1793ra Migel Agirre dator bere jabe gisa agirietan. Ondoko urteetan ere Agirre abizeneko jabeak ditu etxe honek: Juan Antonio (1817), Gaspar (1820) edota Maria Ignazia (1830).

1842an, Gaspar Agirre zeritzanak Jose Joakin Agirreri eman zion jabetzan.

5-Aldaia

Baserria eta lurtsaila ezagutzen deitura horrekin; gutxienez horrela aipatzen da 1809an. 1848an Sendotza hartu zutenen artean, berriz, Juan Ignazio eta Jazinta Agirre zeuden, Martin Lorentzo Agirre eta Maria Joana Balerdiren seme-alabak. Orduko erretoreak idatzi zuenez, *Aldayaberrian* bizi omen ziren.

Egia esan, bigarren deitura bat ere bazuen:

*“Casa de labor, reducida hoy a borda, reconocida antes con el nombre de **Juan Josenea**... ”.*

XX.mendean, Jose Lorentzo Etxeberria Ezeizarena izan zen aldi batez; gero Ramon Etxeberria Ezeizarena.

6-.Allaneginea

Oso informazio gutxikoa da, baina bere aipamen bat baino gehiago ikusi dugu artxiboeta. Hona hemen adibide nahikoa zehatza:

*“Solar del edificio quemado y que no existen en el día sino escombros de sus paredes exteriores, situado en la calle de San Bartolome de la villa de Amezqueta, cuyo edificio debió llevar el numero diez y seis y distinguida tambien con el nombre **Allaneguinea**. Confina por Poniente con la expresada Calle, por Poniente con un retazo de terreno que la Villa ha procedido a su venta, por Mediodia con solar de la casa **Dambolinenea** y por el Norte con el solar de Agirrezabala...*

Bistakoa denez, Plaza inguruko etxea zen hau.

7-.Altunzarra

Horrela deitzen diogun etxerik ez dago gaur egun Amezketan. Bazela, ordea, ez dago zalantzan ipintzerik. 1733ko agiri batek argi eta garbi erakusten du hori. Garai hartan Juan Antonio Gorostidi eta Joakina Zubeldia ziren bere jabeak, eta egun batetik bestera ezkontzera zihoan seme Juan Antoniori eman nahi zioten etxea:

*“la casa **Altunzarra** con sus huerta y tierras sembradias, manzanales, y castañales, Robledales y todos los demas pertenecidos con su derecho de vecindad, sepultura y Patronato. Ademas dos cubas de embasar sidra, una yunta de bueyes, y la ganancia de cinco Bacas que tienen á medias, la mitad de las obejas, dos ganados cerdunos, uno maior y otro menor, y toda la remienta de labranza”.*

8-.Anduitzko borda

Udalak argitara emandako Mapan, 1998an, *Anduritz* deitura ematen zaio. Zer dela eta aipatu behar da Anduitzko borda liburu honetan? Sustantziatzko arrazoia legoke: 1936-1939ko gerrate ondoan, Aralar eta Amezketan, azken tiroak eraikin honen inguruan egin zirelako. Bi maki hil ziren 1945ean. Batek bere buruaz beste egin zuen; bigarrena guardia zibilek hil zuten. Hirugarren bat, zauritu egin zuten.

Umetan, astoaren anparoan, mendira igotzen ginen aldi bakoitzean, beti etortzen zitzaizkidan burura Amezketako jendeak ahopean esaten zituen istorio haiek. Gauza garbirik behin ere ez, baina zerbait gogorra gertatu zela bai borda honen inguruan.

Ongi dakigu noiz egindakoa den Anduitzko borda. Jo dezagun 1823ko maiatzera. Hirurteko Liberala amaitu berria da. Herriko agintariak oso kezkatutik daude udalaren ekonomiarekin:

“la misma se halla rodeada de una multitud de deudas contrahidas en la ultima francesada y aun posteriormente con motivo de las circunstancias tan lamentables en que se há visto, como lo es publico y notorio a todo el vecindario...Que para su pagamento no tiene al presente medio alguno de la tesoreria, ni permite la permite la penuria de la gente hazer derrama alguna en el vecindario”.

ARGAZKIA: 8. ANDUITZKO BORDA

Egoera larria zen hura. Izan ere, diru-kutxa hutsik egoteaz gainera, zordun baitzen udala zenbait herritarrekin. Hauek dirua aurreratu zioten udalari, egun batean itzuliko zieten ustez. Baina, ezin...Hori horrela, erabaki hartu zuten agintariek:

“el único medio que han podido adoptar dichos señores es franquear el usufruto de algunos terrenos sueltos concejiles”.

Dirua aurreratzailen artean zeuden Jose Antonio Pagola eta Ignazio Saralegi Larramendi. Pagola eta Saralegi akordio honetan konpondu ziren agintariek.

*“En recompensa de los respectivos desembolsos que tienen echos en beneficio de la misma (villa) fuera de las contribuciones generales en calidad de reintegro y ascienden a ochocientos veinte y ocho reales de vellon...tomaran en el expresado concepto de empeño el aprovechamiento ó usufruto de una tierra erial del parage de **Anduizco aizpeta** con unos pocos robles de calidad de trescientos y setenta y quatro posturas de la medida regular de quatrocientos quarenta y un pies quadrados cada una con **permiso de erigir una borda de ganado**”.*

Era honetan lortu zuten Pagola eta Saralegik Anduitzen ganadu-borda bat egiteko eskubidea.

Gaur egun egoera honean dago, XX.mendean berritu ona eman zitzaion eta.

9-. Antzinaskon basiliza Santuaranen

Ermita honi buruzko lehenengo albisteak 1668koak dira. Bikario Nagusiak Abaltzisketako erretorea aukeratu zuen basiliza jaso behar zen parajea aztertzeko, eta bere iritzia emateko. Amezketan haserre bizia piztu zuen erabakiak, gure herriko lurretan eraiki behar zelako. Hori bai, bi parrokien gain erori ziren kastuak. Garai haietako agiri batean honela dator.

“...que es al pie de la sierra de Aralar en el puesto que llaman Ancinasco que dista de la parroquia de esta villa una legua de camino muy aspero y en el prado donde esta fabricada una casilla con su texado a modo de hermita y dentro de ella esta una imagen de Nuestra Señora que llaman de Anciñasco en que los fieles tienen mucha devoción por estar en el camino real que va desde esta villa al valle de Arakil y al santuario de San Miguel de Excelsis...”.

1783ko maiatzaren 25ean Antziñaskoko ermita bota eta berria egiteko asmoarekin bilera egin zuten Amezketako Kontsejuan.

Urte hartan Juan Angel Artola zen alkatea, Migel Agirre Zurutuzakoa eta Matias Gorostegi errejidoreak et Iñigo Gomendio sindiko prokuradore nagusia. Eskuartean izan zuten gaia: Antzinasko parajea zegoen ermita bota eta berria egitea. Gai hau aztertzeko bilera deia zabaldu zuten. Auzokide multzo polita etorri zen udaletxera: Migel Galartza, Migel Sarasola, Juan Antonio Olano, Juan Lorentzo Agirre, Juan Karrera, Lorentzo

Etxeberria, Juan Frantzisko Lizeaga, Antonio Agirre, Juan Jose Ibarluzea, Martin Altuna, Martin Lizeaga, Manuel Karrera, Juan Antonio Olaso, Pedro Antonio Gorostidi, Juan Ignazio Agirrezabala, Bizente Ibarluzea, Karlos Toledo, Manuel Antonio Altuna, Bartolome Agirrezabala, Juan Altuna, Juan Bautista Lizartza, Juan Bautista Gomendio, Juan Antonio Iturbe, Juan Bautista Artola, Martin Galartza, Ignazio Lizeaga, Juan Lizeaga, Joakin Pagola, Karlos Loidi eta don Jose Juakin Agirrezabala, guztiak auzokide bereziak. Bilera hartako erabakiak dezente izan ziren. Jo dezagun dokumentura:

*“Esan zuten, don Jose Joakin Agirrezabalaren bitartez, Iruñeko Gotzaina den don Agustin de Lezo y Palomeque Jaun Txit Gorenaren bihozberatasunetik **Antziñaskoko** Sortzez Garbiaren Irudia bere baselizatik Eliza Nagusira ekarri eta Meza Santua ematen den Aldarean jartzeko baimena lortu dutela. Hori horrela, orain arteko bere ermita hori eraitsi eta berria, Sortzez Garbia Amabirjinaren izen berberarekin eta herri inguruan, edota bere lurretan, jasotzeko ematen zitzaizela lizentzia. Hori herritarren bizkarretik egin beharrekoa zela. Hau guztia Baigorri Lizentziatuak sinatu du hil honen hogeian eta horrela datorrela bere erabaki agirian. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiotela horregatik”.*

ARGAZKIA. 10. ANZIÑASKON DAUDEN ARRASTOAK

Hurrengo pasarte hauetan dator zatirik garrantzitsuenak. Zer egin? Nola? Non? Aski landua zeukaten proiektua :

*« Eta lortu duguna abian jarri dezagun, eta horretarako behar duten ahalmen osoa aitortzen diegu don Juan Angel Artola eta don Jose Joakin Agirrezabalari, herri honen izenean, bere auzokide eta bizilagunen babeseraz, behin Sortzez Garbiaren Irudia Aldare nagusiaren gainean kokatzen denean, horretarako prestatutako hutsartean, **Antziñaskoko** Amabirjinaren baseliza eraitsi dezaten; behin hori eginda, baseliza zaharretik berrirako balio dezaketen teila eta gainerako materialeak aukeratu beharko dituzte. Eta ermita berria, Amabirjina Sortzez Garbikoaren izen-deitura berberarekin jaso behar da, **Ybarluzea goena** eta **Ergoena** bitartean, Elizara doan bidearen albo batera. Era berean, eraikin berriaren diseinua eta kapitulatua egiteko eskubidea dute, eta horrez gainera, obretan behar diren ofizial, eskultore, hargin eta arotz, peoi eta gainerakoak kontratazeko. Gainera, Sortzez Garbiaren irudi itxurosoa eta beste aldareetakoak egiteko. Asmo honen kontrakorik sortuko balitz, herri honen izenean ahal osoa dute asmoa aurrera ateratzeko”.*

Usteak, erdia ustel... bilera hartan hartutako erabakia hutsean geratu baitzen. Ez zen ezertxo ere egin.

10.-Argaia bitartea

Aspaldikoa da *Argaia* bitarte deiturarekin ezagutzen den etxea. Hona hemen agiri zahar batean nolako aipamena egiten den 1641an:

“Carta de pago de Fermin de Yturvide y su muger vecinos de Tolosa a favor de Matheo de Çuvelandia vecino de Amezqueta.

*Sepase por esta carta de pago como nos Fermin de Yturvide y Catalina de Argaña Bitartea su muger vecinos desta villa de Tolosa y la dicha Catalina con licencia...que damos y otorgamos a Matheo de Çuvelidia vecino de la villa de Amezqueta carta de pago en forma de doce dycados que a la hora presente nos ha dado y pagado ante el escrivano y testigos desta carta en moneda de bellon (de que yo el escrivano doy fe) por tantos que nos devia de la renta de un año que se cumplio por el dia de San Martin proximo pasado de este presente mes y año de una casa que yo la dicha Catalina tengo en la villa de Amezqueta llamada **Argaña bitartea** y dada en arrendamiento al dicho Miguel (¿) por precio de doce ducados cada año con la condicion que el dicho Miguel aya de cumplir con los aniversarios que la dicha casa tiene obligación de hacer en la parroquial de la dicha villa de Amezqueta...*

En la villa de Tolosa a diez y ocho de noviembre de mil y seiscientos y cuarenta y un años...Francisco de Urbiztondo"GAO-PT1047.

1786an Migel Antonio Agirrezabala eta Margarita Aizpuruaren familia zegoen etxe honetan: Josefa Antonia, Maria Ana Joakina, Josefa Antonia, Ana Josefa eta Pedro Ignazio.

ARGAZKIA: 9. ARGAlA BITARTEA.

Bigarren familia bat ere biltzen zen Argaiabarrena etxera. Juan Jauregi eta Luisa Agirrebarrenak osatzen zuena. Juan Bautista semea ere eurekin bizi zen.

1819an Pedro Ignazio Agirrezabala eta Maria Magdalena Garmendia senar-emazteak bizi ziren bere seme-alabekin: Diego Ignazio, Ana Josefa, Kasimira, Margarita.

1833an ere Agirrezabala-Garmediatarrak biltzen ziren etxe honetara.

1843tik 1852era Antonio Padua Olotzagarena izan zen. Egia esan, pertsona honen izen deiturak gehiago ziren: "*Don Antonio de Padua Olozaga Garcia Quesada vecino de la ciudad de San Sebastian*"GPAH-H394.

Izen haundia, baina dirugosea ere tamaina berekoa bere inguruan:

"usando de la facultad que para ello el concede el articulo diez y siete de la Ley de diez y nueve de agosto de mil ochocientos cuarenta y uno, consigno a su esposa Doña Matilde de Cancinos y San Juan hija legitima del Sr. Don Antonio Maria Cancinos y Cordoba Marques de Iscar y de la señora Antonia de San Juan Vicente y Galarza Marquesa que fue de dicho titulo y esposa en primeras nupcias de dicho Señor Marques en concepto de viudedad en el caso de que dicha señora Doña Matilde sobreviva en dias para desde el dia siguiente al fallecimiento de dicho su esposo, de dicho Don Antonio por los dias de la vida de la misma señora y no mas, y mientras en ellos permanezca en el estado de viudedad sin pasar a otro alguno, la quarta parte de

*toda la renta de los vienes raices, capitales censales y demas derechos que se le adjudicaron en pago de la mitad de los vinculos y agregación en que ha sucedido por muerte del su señor Padre Don Jose Maria de Olozaga y Trabieso en la distribución practicada por dicho Señor Marques de Iscar como curador de los menores hijos...que la señora Dña Matilde reciba su importe directamente de los inquilinos de las fincas censualistas que la misma señalare y fueren suficientes al efecto, y la de que el dicho Don Antonio no pueda vender, ceder, enagenar y gravar ni redimir dichas fincas y censos, sin este gravamen que constituye e hipoteca los mismos en forma, siendo con respecto a esta Villa de Amezqueta los caserios de **Arrieta** y **Argayabitarte** con sus respectibos pertenecidos”GPAH-H394*

Bere alargunaldia alaitu nahi zuen Doña Matildek, ez dago zalantzarik. Horretarako Arrieta eta Argaia bitartera begira jarri zen...

1891an, etxe honetan jaiotako hiru pertsona joan ziren Sendotza hartzera: Jose Antonio, Maria Bautista eta Manuela. Beren gurasoak: Juan Jose San Sebastian eta Josefa Ignazia Balardi.

1913ko uztailaren 6an, Martin Jose Ormaetxea eta Martina Balderdi senar-emazteek haur bat izan zuten: Jose Frantzisko izena eman zioten.

Duela urte batzuk galdu zen etxe hau. Gaur egun bere luze-zabaleraren berri ematen duen arrastoa besterik ez zaigu geratzen. Haizelekuan egongo zen, baina oso eguteran.

11.-Arginetxe

Etxe berbera da. Hori ukaezina da. Deitura bien historia egin nahi duenak, besteak beste, bi izen propio nabarmenduko zaizkio: Jose Arrataka letradua eta Martin Bernardo Gorostieta. Biak azaltzen dira *Arginetxe*aren gaineko agirietan eta baita ere *Arratakari* buruzkoetan.

Gaur egun ez dago Amezketan horrela esaten diogun etxerik. Non ote zegoen, beraz, *Arginetxe* esaten zitzaion hura? Erantzuna ematerakoan 1812ko agiri batek eskainiko digu eskatzen dugun laguntza. Urte hartan haserre bizian zebilen Maria Antonia Agirre bere etxekoeneko Jose Joakin eta Joakina Antonia Elost aita-alaben kontra.

Auzitara eraman nahi izan zituen, eta horretarako, besteak beste, lekukoak behar zituen. Horien artean zegoen Bautista Ignazia Larreta anderea, Juan Manuel Zuriarrainen emaztea.

*“Dijo que que el dia de hayer veinte y seis, estando la testigo en su casa de de habitacion nombrada de **Arguinechea** entre las once y doze de la mañana, reparo que por la calle abajo vajaba Luisa Ygnacia de Elost a mujer de Estevan de Astiz vecina de esta villa para su casa de havitacion nombrada **Ugalde chiquia** y decia que ella no habia dicho tal cosa, sin que la testigo sepa sobre que recaya esta espresion, en cuyo*

tiempo salio a la ventana Joaquina Luisa de Arrataca mujer legitima de Juan Antonio de Lizarza, y habitante de la casa de **Arratacanea**, y la dijo a dicha Luisa Ygnacia que fuese al señor alcalde y que averiguase que no hubiese dicho tal cosa, y aunque obserbo tambien que dentro de la citada casa de **Arratacanea** habia alguna disputa entre Joaquina Antonia de Elostá, su padre Jose Joaquin y la citada Joaquina Luisa de Arrataca que habitan en dicha casa teniendo habitaciones separadas no sabe sobre que, si solo a brebe rato salio dicha Joaquina Antonia al cubierto de la misma casa y en el se puso sentada en una silla y estando en ella pregunto la testigo que disputa habien tenido, y contesto diciendo que ella baliendose de entengas no havia subido a su casa ningun muchacho con cuya espresion le parecio a la testigo que queria dar a entender que la querellante habia entrado algun mozo en casa. Que la testigo vive como lleba dicho en la casa de **Arguiñechea** pegante a la citada de **Arracatanea** de la habitacion de la querellante y por lo mismo sabe que esta es de buena vida y costumbres sin que se le haya notado cosa alguna contraria a su honor...no firma...27 años”.

Oso garbi dago, beraz, Arginetxe zeritzana Arrakatanea deituraz ezagutzen dugunaren aldamenekoa zela, Amezketako plaza inguruan.

Deitura honen jatorriaz ez daukagu datu asko, baina litekeena da etxe honetan bizi izandako Jose Etxeberria *Ergoienari* zor izatea. Bistan dago nongoa zen Jose Etxeberria hau. *Ergoena* edo *Julinekoa*. Maisu *hargina* zen Jose, lanbidez, eta lan dezente egin zuen Zestoako eliza ederrean 1670 aldera. Ez litzateke harritzekoa, beraz, xehetasun horretatik, bere ogibidetik sortzea Arginetxe izena.

1649an, dirudienez, Martin Urrestarazurena zen.

Gure ustez, 1671an María Lopez Etxeberria (1694ko agiri batean Maria Lopez Arrataca bezala dator) anderearena zen eta urte hartan izenpetutako eskritura batek ziurtatzen digunez, bere anaia Jose Etxeberriaren eskuetara pasatu zen etxearen jabegoa. Urte hartan ezkontzeko asmotan zebiltzan Jose Etxeberria *Ergoiena* eta Maria Lopez Arrataka. Abenduaren 27an egin zen ezkontza-hitzarmena. Atal batean honela dio agiriak:

“Y estando presente al otorgamiento desta escritura Magdalena de Echeverria y **Ergoyena** hermana del dicho Joseph de Echeverria, muger legitima de Pedro de Otamendi vecino de la villa de Abalcizqueta con su asistencia y con licencia que pidio al dicho sumarido para otorgar lo que de suso en esta escritura será contenido, y el dicho Pedro de Otamendi se la dio y concedio para el dicho efecto, y ella la acepto de que yo el dicho escrivano a su pedimiento doy fe, y usando de la dicha licencia dixo la dicha Magdalena, que por quanto ella tenia mucho amor y voluntad al dicho Joseph de Echeverria y **Ergoyena** su hermano por muchas buenas obras que la ha hecho, por tanto de su propia libre y espontanea voluntad sin apremio fuerza ni inducimiento alguno hacia y hizo donacion pura mera perfecta e irrevocable que el derecho llama entre vivos al dicho Joseph su hermano es a saver de la casa de **Arguinechea** sita en esta villa con su huerta y tierras sembradas y valdias y demas pertenecido suyo, y con

su derecho de vecindad y sepultura que tiene en la Yglesia parroquial de San Bartolome...dixo que le hacia y hizo con cargo y deuda de setenta y tres ducados de plata de censo principal que deve la dicha casa”GAO-PT1045.

Jo dezagun 1694era. Etxe honetako Antonio Etxeberria Arrataka ikasle gaztea diru eskasian nabarmenean ikusiko dugu. Filosofiako ikasketak amaitu nahi eta bitartekoen premia gorrian... Bere ama Maria Lopez Arrataka alarguna ere kezkatutrik dabil. Berrogei dukat nahikoa lituzte semeak. Horiek lortu nahi ditu:

*“Se halla sin medios para sustentarse y proseguir sus estudio sino es que se tome un poco de dinero a censo sobre la Casa de **Arguinechea** sita en esta villa y porque esto sera de gran utilidad para mi hijo pues sin este dinero no podra continuar sus estudios ni yo tengo con que poderle alimentar y es corta la renta de la dicha casa pues no da mas de catorce ducados y para que se me de licencia para tomar a censo quarenta ducados de vellon*”GAO-PT1076.

1760an Tomas Arratakaren eskuetan dago etxea; Tomas amezketarra zen jaiotzez, baina Tolosan bizi zena. Se encomendó a Juan Gorostegi *Alegueriechea*koari eskatu zitzaion Argiñetxeari zegozkion lurak neurtu eta tasatzea:

*“tierras que se hallan en el partido denominado **Elorza** pertenecientes a la casa **Arguinechea**, que confina por oriente con las tierras de la casa **Zabalbarrena**, por solano con las tierras de la Casa **Maisuena**, por poniente con las de **Penta** y por setentrion con las de la casa **Fransena**”.*

Handik urte batzuetara borobildutako dokumentu batek, pittin bat laburturik, Jose Arratakaren kontuak jorratzen ditu:

*“En la villa de Amezqueta, a ocho de noviembre de 1784, parecio presente Joseph de Arrataca, y dijo que Josepha Antonia de Zuriarrain y Maria Magdalena de Sarasola muger e hija de Francisco Ignacio de Sarasola de **Espilla** intentan tomar contra si y sus vienes a censo redimible ciento y cinquenta ducados de vellon en el redituado de tres por ciento para redimir sus bejaciones. Juan Antonio de Lanz es uno de sus fiadores. Hipoteca como vienes de este otorgante en calidad de tal fiador mancomunado la casa nombrada de **Arguinechea** con sus pertenecidos y otra que ha fabricado haora contra dicha villa de Amezqueta confinantes por mediodia con la casa de **Arozarena**, y por poniente con la casa nombrada **Galarza echea** por otro nombre **Maria Acencionea**, y por septemprion con tierra de la casa **Capaguindegui**, y por poniente con huerta propia de dichas dos casas”.*

Zita honetan aipatzen den etxe berriaz, 1785eko agiri batek honela dio:

*“y como vienes propios del mismo Arrataca fiador la casa llamada **Arguinechea** con sus pertenecidos y otra casa pegante a ella nombrada Arratacana que acaba de fabricar nuevamente”GPAH-H388*

1793an jabez aldatu zen etxe hau:

*“que hoy dia de la fecha se a presentado en el oficio de hipotecas de de ella (Amezqueta) una escritura de venta real de la casa nombrada **Arguinechea**, y de una huertica que tiene al lado de ella sitas en el varrio de la Plaza de esta villa otorgada por Joseph de Arrataca vecino de ella a favor de Juan Antonio de Elizalde, natural de la misma y residente en la de Azcoitia por la cantidad de cinco mil seisicientos y treinta y dos reales de vellon que confeso tenerlos recibidos antes del otorgamiento de dicha escritura”GPAH-H389*

1830ean, Martin Bernardo Gorostieta maisuarena zen. Hipotekan eman behar zuen batean, honela hitz egin zuen letraduaren aurrean:

*“Gorostieta la mitad de la casa de **Argiñechea** y la otra mitad de la de **Arracatanea**”GPAH-H393*

1858ko agiri bat argigarria da oso honen historia egiterakoan. Honela dio izkribuak:

*“Que Don Jose Camio vecino de San Sebastian por si y como comisionado de su madre Doña Fermina Mendizabal viuda y de sus hermanos Doña Clamentina, Don Ascensio y Doña Dolores Camio dio en venta real perpetua á Don Juan Francisco Aguirrezabala vecino de Amezqueta un terreno sembradio de cuarenta y dos posturas del parage de **Jauregui-aurrea**, otro terreno sembradio de trece y media posturas del parage de **plaza-guivela** y el solar ó area de la casa arruinada de **Arguinechea**”GPAH-H395*

Beraz, XIX.mendearen erdialdean eroritako etxea da hau.

12.-Arizmendi goena

Arizmendi goiena -horrela idatzirik baitator- Lope Martinez de Isastik Amezketako oinetxeen artean lerrotu zuen 1625an. Horrez gainera, A ezarri zuen bere deituraren ondoan, *armaduna* izan zitekeela adierazteko. Nire iritzitarako, gaur egun *Arizmendi* soil-soilik deitzen diogun etxea izan daiteke Isastik aipatutako hura. Beraz, hemen datorren informazio sorta liburukoari erantsi beharko litzaioke.

Etxe honi buruzko lehen datu zehatza 1637koa da.

*“Donacion de Martin de **Arizmendi goyena** a favor de Martin su hijo.*

*En Amezqueta a 29 de junio de 1637. Ante Rodrigo de Yguerabide parecieron presentes Martin de **Arizmendi goyena** y Catalina de Carrera su legitima muger...Y dixerón que por quanto Martin de Arizmendi su hijo legitimo esta casado y belado con Magdalena de Çubillaga...y deseando se conserbe la memoria de la su casa solar de **Arizmendi goyena**...donacion al dicho Martin de Arizmendi su hijo de la dicha casa*

solar de **Arizmendi goyena** y su huerta, tierras sembradas manzanales castaños robledales, borda de ganado, compras y mejoras, derecho de vecindad y demas pertenecido a la dicha casa. Y mas de ciento y cuarenta ducados de la dote que la dicha Catalina de Carrera llebo a la dicha casa de **Arizmendi goyena**...”.

Aurreko pasartean aipatzen den Katalina Karrera hori hil zenean, Martin Sarasolak, bere senarrak hau aitortu zuen 1695eko ekainaren 1ean:

*“Por aber muerto la dicha Catalina de Arizmendi su madre aora año y medio poco mas o menos dejando por bienes suios la casa solariega solar de **Arizmendi goyena** su huerta casa de ganado y demas pertenecidos a ella con los derechos de vecindad y patronato”...*

Lau seme-alaba izan izan zituzten Martin Sarasolak eta Katalina Arizmendik: Antonio, Migel, Magdalena eta Martin. Lau senideok, eskribauaren aurrean, zera erabaki zuten:

*“**Arizmendi goena** Martin Sarasolarena izango zela”GAO-PT1007.*

En el periodo 1733tik 1767ra doazen urteetan Joakin Sarasolaren izenean zegon etxe hau. Era berean, Joakinenak ziren Arizmendi goenaren Borda/Saletxeari zegozkion lur-sail, sagasti eta gaztainadiak.

1738ko maiatzaren 28an, Alegian izan ziren etxe honetako Josefa Joakina eta Migel Ignazio Sarasola.

1767ko otsailaren 2an 20 dukateko zentso bat sortu zuen Joakin Sarasolak eta horretarako *Arizmendi goena* eta bere borda, bere baratze, soro, belaze, sagasti, gaztainadi, arizti eta gainerako ondasunak hipotekan jarri zituen.

1797an Migel Ignazio Sarasolaren esku zegoen etxea:

*“vecino de esta Villa, é Dueño, y poseedor lexitimo de la casa **Arizmendi goena**, y sus pertenecientes existentes en la misma, dio en benta real y perpetua enajenación una tierra sembrada nombrada **Echaburuco sorochiquia** sita en esta Villa á Manuel...por precio de quinientos reales...confina por oriente y medio dia con tierras sembradas de la casa de **Albizuri** propia de don Joseph Joaquin de Eraso vecino de la ciudad de Pamplona; por poniente con tierras de la casa de **Arizmendi Tomasenea**, y por septentrion con las de la casa de **Arizmendi goena**”GPAH.*

Joakin Sarasola eta Maria Ignazia Balerdi ezkondu zirenean, mutilaren aitak, Migel Sarasolak, bere etxea entregatu zien, baina baldintza batekin:

*“reservando por diez años el derecho de vecindad para asistir a los ayuntamientos de esta Villa, y en el caso de separacion de la mesa y compañía tambien resrrbo la mitad del usufruto de la dicha casa de **Arizmendi goiena** su vorda y pertenecidos”GPAH.*

Bai, Sarasolatarren eskuetan egondako etxea da *Arizmendi goena*. Bere jabe zenbait: Joakin Sarasola (1840), Maria Magdalena Sarasola (1851), Jose Sarasola (1852), Katalina Sarasola (1857)...

13-.Arizmendi saletxe

1763an Gorostegitarrek bizi zen eraikin honetan: Margarita, Josefa Antonia, Maria Frantziska...Gurasoak: Tomas Gorostegi Altuna eta Maria Sebastiana Goikoetxea Esnaola.

1786an, Arizmendi saletxeren teilatupean Migel Ignazio Sarasola Galartza eta Josefa Antonia Goikoetxea Arantzazti bizi ziren beren seme-alabekin: Juana Bautista, Maria Ignazia, Jose Ignazio...

14-.Artano

Oso agiri gutxitan egiten da etxe honen aipamena. Salbuespenetako bat 1877koa da. Deitura honetako etxean bizi ziren Ramon Zabala eta Ignazia Alkainek ekarritako umeak: Juan Jose eta Felix.

Gauza bakarra dakigu ziur: Amezketako *Plazan* zegoela *Artano* esaten zitzaion etxe hau.

15-.Artetxe

Arretechea ó Artechea (casa) en el barrio de Ergoyen

Gaur egun ez dago bere arrastorik. Gure ustez, *Mizpirasagasti/Errementarine* etxe inguruan egon behar zuen, erreka aldetik. Bere garaian, *Ergone* auzoan zegoela esaten zen. Etxe ona zela esateko moduan gaude. Luis Maria Muxikaren ustez, *art-etxea (redil)* esan nahiko luke.

Arrazoiaren berri ez dugu, baina obra asko eskatzen zuen etxea zen delako *Artetxe* hau. 1639an, Juan Otermin maisu arotzak egindako lana aztertu eta tasatu behar izan zuten Abaltzisketako Juan Armendaritzek eta Idiazabalgo Domingo Aldasorok. Garai hartan Amezketako Erretorearena zen etxea, eta honek, don Migel Galartzak alegia, Armendaritz aukeratu zuen zeregin hartarako. Aldasoro nork aukeratu ote zuen? Begira:

“Y el dicho Domingo de Aldasoro por la de Juan de Sarasola y Mariana de Otermin su muger herederos del dicho maestro Juan de Otermin y Mariana de Ceruco su biuda”.

Bistan dagoenez, ordurako hilda zegoen Otermin arotza, baina diru-kopuru polita geratu zitzaien berak egindako lanarengatik: 3294 erreal. Dirua zen, diru asko ordurako.

ARGAZKIA: 10. ERREMENTARINEKO BORDA

Hurrengo informazioa ere estimagarria da.1664ko apirilaren 21ean Martin Galartza eta Agustin Artola letraduaren aurrean ari ziren hitzarmena sinatzen. Martin Galartza bere alaba Josefaren ordezkari gisa ariko zen bilera hartan. Izan ere, Amezketako erretore izandako don Migel Galartzak berarentzat utzi baitzituen ondasun guztiekin eta horien artean, Artetxe zeritzan eraikina. Hau zen Martin Galartzaren jarrera:

*“Que en nombre de la dicha Josefa su hija menor dava y dio en renta y por arrendamiento al dicho Agustin la dicha casa de **Artechea** sita en esta villa con su huerta y tierras sembradas y valdias manzanales castaños y montes segun y en la forma y manera que la tiene antecedentemente y con quatro cubas de embasar sidra que ay en la dicha casa con las resrvas y condiciones siguientes:*

Lo primero con reserva de dos aposentos de la dicha casa que son el uno que ocupava el dicho Don Miguel de Galarza, y el otro que ocupava Leonor de Galarza su hermana difunta, los cuales reservo para su avitacion y/o para lo que le convenga. Y con reserva tambien que si se le ofreciese ocasión a este otorgante de recibir gente de fuera, u otra porque tenga necesidad de ocupar mas piezas en la dicha casa lo pueda hazer con los huespedes que tuviere, y ocasión que se le ofreciere con que esto no sera continuado.

Yten con reserva tambien de que a Maria de Arrizibita criada que ha sido del dicho Don Miguel de Galarza se le de lugar para avitar y vivir en la dicha casa, y en la cocina en la conformidad que lo haze al presente”GAO-PT1044

Sei urterako hartu zuen etxea Agustin Artolak. Ordaintze hori beti izaten da aldapa gorakoa, baina ez zen errenta izugarria ezarri zitzaiona: 26 dukat

Ez da daukagun zaharrena, baina asko estimatzen dudan agiria da ondoko lerroetan eman nahi dena. Artetxe deitu etxean bizi zen Amezketako erretore jauna 1671an. Udazkenean hil zen, azaroaren 14an. Hiletak egin eta handik bi urtera, artean ere kontuak garbitu ezinean zebiltzan Amezketan, agiriak erakusten duenez:

*“En la villa de Amezqueta a onze de diziembre del mily seiscientos y setenta y tres ante mi el presente escrivano y testigo parecieron Miguel de Galarza y Miguel de Sagastume Irigoyena vecinos de la dicha villa testamentarios de don Juan de Amezqueta Rector que fue desta dicha villa difunto. Y dixeron que entre otros bienes del dicho difunto avian quedado en la bodega de la casa de **Artechea** donde vivia dos cubas de sidra siendo la una de las dichas cubas propia del dicho Don Juan y la otra*

de los dueños de la dicha casa. Las quales dichas cubas de sidra avia vendido y gastado el dicho Miguel de Galarza sin dependencia del dicho Miguel de Sagastume, y de su procedido se avia valido para los gastos de las funerarias del dicho difunto y para pagar algunas deudas y obligaciones que dexo, de cuya cantidad de las dichas sidras no avia llevado quenta por menor el dicho Miguel de Galarza, aunque si del precio a que se vendieron que fue a catorce maravedies cada azumbre, conforme se taso por la Justicia, y porque es hecho que se sepa la cantidad de sidra que avia en las dichas dos cubas para la justificación de la quenta de la dicha testamentaria, ambas partes de conformidad nombraron a Ygnacio de Zavala vecino de la villa, oficial cubero y perito en su arte para que midiendo la area de las dichas cubas declare la cantidad de sidra que avia en cada una dellas estando como estaban casi llenas.

Y el dicho Ygnacio aviendo aceptado dicho cargo, y medido las dichas cubas conforme arte, declaro que en la una de las dichas cubas que es la propia del difunto cavian ciento y sesenta y tres cantaras de sidra. Y en la otra que es de la dicha casa de **Artechea** ciento y sesenta y dos cantaras, que ambas partidas suman trescientos y veinte y cinco cantaras. Las quales al dicho precio de catorce maravedis cada azumbre salian mil y setenta reales y veinte maravedis haviendose el compto de azumbres en cada cantara que reducidos a ducados son noventa y siete, y tres reales y tres maravedis.

Y por que faltava algo para estar llenas cavalmente las dichas cubas y huvio muchas mermas en su venta como sucede de hordinario, declaro se podian reducir el valor y precio de las dichas sidras a s setenta y quatro ducados, y asi los declaro..."GAO-PT1040.

Don Antonio Etxeberria Amezketako erretoreak eta don Frantzisko Lardizabal apaiz benefiziatuak egindako aitorpenei esker, jakin badakigu bizi izan zen artean Josefa Galartza anderea Artetxe eta Loikadi etxeen jabe izan zela. Josefa hau Bartolome Etxeberriaren emaztea zen. 1704 aldera zorrez josita zebilen bikote hau. Kontuak garbitu izan zituztenean beren ondasunen artean honako hauek zeuden:

-*"Primeramente la casa de **Artechea** con su huerta y tierras sembradías y valdias y manzanales castaños robledales y jarales con los derechos de vecindad, sepultura y patronato...Otra casa llamada **Loycadi la mayor**"* GAO-PT1031.

1764an zirriborratutako dokumentu baten bitartez dakigu Andres Agirrezabala eta Josefa Zabalarena zela Artetxe; izeba Isabel Goikoetxeak egindako emaitza zen. Etxearen erdia errentan Domingo Zubeldia eta Juana Pagolari uzteko prest zeuden. Sei urterako izatekotan, 12 peso eskatzen zizkieten eta 2 kapoi urteko.

1765an Josefa Zabalarena zen artean; Bartolome eta bere seme Lorentzo Etxeberriari errentan emateko prest zegoen, baldin eta kondizio hauetara errendituz gero:

-“50 ducados. 48 en efectivo y 2 en comprar y plantar 22 arboles castaños y manzanos en los pertenecidos de la casa Arteche.

-2 capones

-la obligacion de sembrar en cada uno de los dichos nueve años un quartal de linaza septembral”.

Hori bai, beretzat, Andres senarrarentzat eta semearentzat geratzen zuten “*el aposento que ocupan ahora y la misma cocina en que oi se halla Thomas de Echeverria y la sala maior con sus alcobas y un aposento que tiene dicha casa en el segundo suelo*”.

Dirudienez, ondoko urteetan Matias Izagirreren eskuetara pasatu zen etxe hinen jabetza. Hori adierazten du 1770ko agiri batek. Halaz guztiz, aipatutako Etxeberritarrak bizi ziren bere lehorpean.

Handik urte batzuetara, 1772 aldera jotzen badugu, aurreko pasarte batean aipatutako Josefa Zabalak bere seme Jose Joakin Agirrezabalari etxe honen jabetza ematen ikusiko dugu. 1779ko agiri batek jakinarazten digunez, garai hartan badakigu non zegoen Jose Joakin:

“residente al presente en la Real Corte de Madrid”.

Madrilen egonarren, Jose Joakin Agirrezabala ez zen Amezketan zeuzkan ondasunei bizkarra emanda bizi. Esate baterako, don Juan Bautista Urretabizkaia alegiarrak Amezketan etxe berri bat egin nahi izan zuenean, erabaki hori zapuztu nahiean ibili zen Jose Joakin Agirrezabala Madriletik. Auzitara eramán nahi izan zuen don Juan Bautista: “*para impedir fabricar una casa en el Barrio de Ergoena de esta villa, suponiendo que le hace perjuicio a su casa nombrada **Artechea***”.

Nahiz eta Agirrezabala pittin bat saiatu, alegiarrak bere etxe berri jaso egin zuen. Gaur egun Urretanea deitu behar geniokeen etxeaz ari gara, hau da, *Migelenea, Aierbenea, Bixentenea, Albergue Bixente...*esan izan diogun horretaz.

1781an, Artetxe erdia Juan Ignazio Agirrezabalak hartu nahi izan zuen errentan, eta baita erdiari zegozkion ondasunak ere:

*“que son dos heredades de sembrar que estan a los dos lados de la casa **Mizpira Sagasti** sobre la Calzada, y camino publico, y toda la heredad contigua que está a espaldas de dicha casa Artechea con su jaro, que está pasado el rio que baja de Aralar a la parte de **Zuriarrain**”.*

1784ko urtarrilaren 3an, don Jose Joakin Agirrezabalak zioen Andres Agirrezabala eta Josefa Zabala difuntuen semea zela eta:

*“la dicha su madre fue dueña de la casa nombrada **Artechea**, y de todos sus pertenecidos existentes en el barrio de **Ergoena**”.*

1789an, etxe honen zati bat Jose Gastesi eta Maria Josefa Intxaurregi senar-emazteek erabiltzen zuten.

1820an doña Gregoria Barandiaran alargun amezketarrarena zen *Artetxea* legez. Abuztuaren 5ean egindako dokumentuan, errenta arazoak eskuetan zituela, banaketa hau egin zuen:

-Juan Bautista Egileorrenztzat, behe solairua (*habitación baja*, hitzarmeneko izkribuan), zati honi zegozkion ondasunekin, bederatzi urterako.

-Miguel Joakin Galartza eta Kaietana Oriozabalarentzat, azken aldian zerabilten zatia, ohiko ondasunekin. Senar-emazte hauek hogeitun urte onak egin zituzten etxe honetan.

-Martin Bizente Mendizabal eta bere seme Manuelentzat, geratzen zen etxe zatia eta gainerako baratzea.

Ez dakigu etxea noiz erori zen. Dakiguna, ordea, zera da: Fernando Amezketarraren kastakoa jendeak erosi zuela bere orubea:

*“Solar que ocupaba la casería nombrada **Arteche** con sus antepuertas sita en la calle san Bartolome de la Villa de Amezqueta y señalada con el numero cuarenta”.*

Seguru asko, 1850 alderako, eroria izango zen *Artetxe* esaten zitzaiona. Jose Joakin Bengoetxeak erosi zuen bere orubea. Maria Ignazia Olaso alargunarekin ezkondu zen Jose Joakin. Maria Ignaziak Jose Frantzisko Altunarekin izaniko alaba Rafaela ekarri zion matrimoniara. Gero, lau seme-alaba izan zituzten beren artean: Bartolome, Josefa Antonia, Karlos eta Ignazia Antonia.

1886an, Maria Lorentza Agirrerekin ezkontzera zihoala eta, Bartolome Bengoetxea Olaso semeari eman zion.

Egia esan, ez dakigu noiz erori zen etxe hau eta zergatik.

16.-Azpikoetxea

Amezketan bada *Garaikoetxea* esaten diogun eraikina. Baina, bazen baita ere *Azpikoetxea* deitzen zitzaiona.

Azken hau ez da agirietan asko ikusten den horietakoa. Urte asko eman dugu bere deituraren berririk izan gabe. Baina, bai, Amezketan bazen garai batean horrela esaten zioten etxea. Behar adina ez izanarren, datu sorta txukuna eskaintzen duen agiria da 1650eko bat.

Urte hartan Abaltzisketako erretore zanaren ondasunekin zer egin deliberatzen ari ziren. Don Martin Altuna zen elizgizon hura. Oso aberatsa. Oso. Amezketan 1615ean Tolosarengandik bereizi eta gure herriak behar zuen dirua biltzen hasi zirenean, erosketa asko egin zuen don Martinek. Inguru honetan ez ziren asko hura baino hura baino aberatsagoak.

Bere ondasunen artean zegoen *Azpikoetxea* zeritzana. Saltzera atera zuten 1650eko ekainaren 24an. Bazituen erosleak: Migel Mendizabal *Ugalde* eta Maria Safin Arsueta. Etxeaz ematen diren argibideak:

*“La dicha casa y caseria llamada **Azpicoechea** sita en esta Villa de Amezqueta con XXX, que tiene enfrente, y cinco nogales en su territorio junta a la misma casa XXX que tiene a las orillas del rio, y una tierra y heredad sembradia junto y a la parte XXX de debajo de la casa de **Artechea** llamada **Lunarrutueta** confinante con tierras de dicha casa y con el rio por las partes de abajo y un lado, y por la de arriba con la calzada y y camino publico, y otra tierra valdia sobre la dicha calzada del mismo nombre, y otra tierra sembradia llamada **Lausoro** a vista de la misma casa XXX de **Azpicoechea** a la otra parte del rio, y un castañal junto y mas arriba de la casa llamada **Galarza** que se dice **Sansasoro** confinante con un castañal de la casa de **Galarza de suso**, y una arca o granero viejo que esta en el quarto alto de la casa, y una arca y un escaño viejos, y un armario o escaparate, y una XXX, y unas llaves de fierro que todos estan dentro de la dicha casa, y con su derecho de vecindad y sepultura que tiene en la iglesia parroquial de San Bartholome de la dicha Villa, que asi la dicha casa como las dichas sus tierras y demas pertenecido como es savido y conocido por sus nombres y linderos notorios, y libre de censo”*GAO-PT1040.

Badakigu zenbat ordaindu behar izaten zuten Ugaldeko Migel Mendizabalek eta Gaintzan jaiotako Maria Safin Arsuetak: 400 dukat zilarretan.

1677an, bere jabea Migel Mendizabal zen:

*“Y como bienes de Miguel de Mendiçaval sobre las sus casas de **Ugalde**, y **Azpicoechea** y sobre sus huertas y tierras sembradias y valdias, y manzanales y castañales, robledales, y todo lo demas a ellas en qualquiera manera pertenecido”.*

1692an, bere azken nahia erakusten ari delarik, Maria Kruz Toledo alargunak senar zenak mundu honetan jaso gabe utzitako sosak zehazterakoan zera dio:

*“Algunas obras de canteria en la casa de **Azpicoechea** propia que era a la sazón de Miguel de Mendizaval vezino desta Villa la qual se arruyno por benida de aguas”* GAO-PT1092

Dauzkagun datuen arabera, bere azken urteetan Arizmenditarren eskuetan egon zen: Karlos Antonio, Teresa Ignazia eta Mateorenetan. 1857-1861 garaiko kontuez ari gara.

17.-Aztina

Nahiz eta oso informazio urria izan, izan bazela dokumentatua dago:

*“Y en el paraje llamado **Churdana** en medio de las heredades de las casas de **Aztina** y **Miraballes**”*GPAH.

18-.Barabarrena

Gaur egun ez dago Amezketan deitura honetako etxerik, baina XVII. mendean bazen Amezketako plaza inguruan. 1649ko izkribu batean Maria Lopez Lizeagarena dela ikusiko dugu. Hurrengo aipamena 1681ekoa da, eta orduan etxe hau Martin Matxinea zeritzan amezketar baten esku zegoen. Hurrengo jabea, Magdalena Matxinea, 1690an.

1731ko agiri batek jabe aldaketa izan zela islatzen du. Irailaren 22an egindako idatzi batek honela dio:

*“Por esta carta io Miguel de Liceaga vezino que soi de la villa de Amezqueta otorgo que doi en renta y arrendamiento la mi casa llamada **Barabarrena** sita en la calle publica de dicha villa de Amezqueta a Antonio de Gorostegui vezino de ella... para tiempo de seis años que empezaran a correr por el dia de San Martin, onze de noviembre primero venidero del corriente año. Renta anual:*

-cinco ducados y medio de vellon, pagaderos de San Martin a San Martin, con la condicion y libertad que le doi al dicho Gorostegui para que pueda hazer executar por si u por otros las obras que fuesen necesarias para la havitacion y adorno de dicha casa.

Testigos: Lorenzo de Elosegui, Pedro de Echeverria y Antonio de Artano estantes en dicha villa.

Firman Antonio de Gorostegui. Testigo: Antonio de Artano. Antemi Pedro Joseph de Ezquer de Lizarraga”.

1736ko otsailean Markos Antonio Maizena zen. Hala ere, ez dago behar beste informazio etxe hau nolakoa zen argitzeko. Horregatik da hain estimagarria 1763an, apirilaren 17an, bere semearen ezkontza-kontratua egiten ari zirela Maria Josefa Iturriozek emandakoa. Honela dio:

*“la dicha Maria Josepha de Yturrioz dijo que durante el matrimonio de con el dicho Marcos Antonio de Maiz su difunto marido compraron ambos la casa **Barabarrena** que esta pegante a la dicha de **Pasqualena** por escritura que paso en su razon ante Antonio de Olozaga escrivano de Su Majestad y del número de la villa de Alegria”*

Beste ohar bat ere, hau 1789koa, lagungarri gerta dakiguke *Barabarrena* etxeari buruz argibide gehiago izateko. Begira, urte hartan Barabarrenan Santiago Altuna eta Maria Josefa Lizeaga senar-emazteak bizi ziren bere hiru semerekin: Domingo, Jose eta Santiagorekin. Ez dago zalantzarik non zegoen *Barabarrena* etxea:

*“La casa **Barabarrena**, situada en el barrio de la plaza de esta villa de Amezqueta”.*

1789ko apirilaren 19an, *Ybarlucea goena* etxean sesioa piztu, epelak hartu eta zauriturik eraman zituzten Barabarrenera Domingo eta Jose Altuna anaiak. Argibide pittin bat ematen digu letraduaren txostenak, ama Maria Josepha Lizeagaren deklarazioa jasotzen ari delarik:

*“Reparo la testigo (Maria Josepha de Liceaga) desde su casa de havitacion nombrada **Barabarrena**, que esta a la vista de la en que estaban sus tres hijos, que alguna jente inquieta, que buscava quimera tirava piedras al balcon y casa de dicho Vicente de Ybarlucea”.*

Kale-kalean zegoen beraz *Barabarrena* deituraz artxiboetako agirietan aipatzen den etxe hau.

19-.Barrenetxe

Deiturak berak argitzen du non egon zitekeen eraikin hura. *Kalebarrenean* edo *Plazabarrenean*, noski. 1804ko agiri batean esaten denez, herriko sarreran: *“la casa nombrada **Barrenechea** sita en el cuerpo y a la entrada de esta nominada Villa de Amezqueta”*. Halaz guztiz, ez dirudi oso sarrera sarreran zegoenik:

*“Confina por Oriente con la regata por el Sur con la casa **Capaguindegui chiquia**, por poniente con la carretera general y por el Norte con un camino publico que se dirige a la regata y con el arbolado de las casas de **Ambrosionea** y **Zubiondo**”.*

1592rako behintzat bazen Amezketan *Barrenetxe* deitura zeraman aterpea. Urte hartako agiri batean *Martin de Barrenechea* zeritzanaren aipamana egiten da.

Gaur egun ez dago zutik dokumentu zenbaitetan aipatzen den eraikin hau. Ez gaude noiz erori zen esateko moduan, bere aipamenik ez da eta dokumentu askotan ikusten. Gure lehenengo dokumentua 1648koa da. Ikusten denez, herriko agintariak diru kontuak garbitu nahi zituzten. Tolosako herriarengandik bereiztea zela eta, Martin Barrenetxeak eta bere emazte Magdalena Paskoalenak lur-sail handi samarrak hartu zituzten. Gero, ordaintzeko ordua ailegatu zenean, ezin behar bezala erantzun. Horregatik, handik urte batzuetara, enkantera atera zituzten *Barrenetxea* eta *Paskoalena* etxeak. Herriak ere parte zuen enkante horretan, baina izan zen eskaintzaile hoberik:

*“Y luego pareció Juanes de Yxurra morador en esta villa y ofrecio por la dicha de **Barrenechea** y su pertenecido de por si ciento y veinte ducados de vellon”*GAO-PT1038.

1652an egindako eskritura batean ikusten da Frantzisko Olasorena zela, *“la casa nombrada **Barrenechea** con su huerta, y tierras sembradias, y valdias, manzanales, castaños y demás pertenecido a ella”*.

1681an bere jabea Martin Matxinea zen. Handik bederatzi urtera, Magdalena Matxinea eta bere senar Frantzisko Olasorena zen.

Handik urte gutxira Olasotarren eskura pasatu zen *Barrenetxe* esaten zitzaiona. Aurren aurrena, 1673an, Jose Olasorena zen. 1686an berriz beste jabea azaltzen da agirietan :

« *Y como vienes del dicho Martin de Olaso sobre la su casa de **Barrenechea*** »

1678an, apirilaren 7an, testamentua egiten ari da Martin Matxinena, eta ziurtasun osoz erakusten du lurra non hartzea nahi duen :

« *...mando que mi cuerpo sea sepultado en la yglesia parroquial en la sepultura que en ella tiene la mi casa de **Barrenechea**...de mi primera muger Juliana de Zubillaga a Maria que esta casada con Ygnacio de Gandarias, a Madalena que esta casada con Francisco de Olaso y a Maria Asencio que esta por serora en Nuestra Señora de Ugarte...Y dejo por por mis vienes la casa de **Barrenechea** con todo su pertenecido con algunos trastes dentro de ella que por ser de poca monta no los declaro...Madalena mi heredera universal* » GAO-PT1072

Nire iritzian, gaur egun *Plaza* inguruan jasotako etxea. Argitu dezadan puntu hau. 1769an *Mandegi* baserria Joaquina de Iraolarena zen, eta bere hondasunen artean zenbait lur-sail ere bazituen. Horietako bat erosi nahi izan zion Juan Jose Ibarluzeak. Non zegoen soro hori? Agiri zaharrak esaten duenez, *Zaval azpia* parajea. Sortaldetik, Ibarluzea beraren barrutia zeukan; hegoaldetik, *Barrenetxea etxeari dagokion lur-saila*; iparraldetik, *Arotzarenari dagozkionak* eta sartaldetik, *Lorentzena* eta *Argiñetxearenak*. Hemen aipatzen diren etxe-izen guztiak *Plaza* inguruan kokaturik zeuden eraikinenak dira. Horregatik diot *Plaza* gunean jasotakoa izan behar zuela *Barrenetxeak*.

Bestalde, 1770ko abenduaren 6an idatzitako agiri batean esaten denez, Ignazio Salegi eta bere bermetzailea prest zeuden Bartolome Artola *Loidiri* zor ziotena kitatzeko. Agiri horretan Ignazio Salegiri *Barrenetxea* deitura eransten zaio. Seguruenera, *Barrenetxean* jaiotakoa zen Salegi.

1777ko abenduaren 14an idatzitako eskritura batek dioskunez, jakin badakigu Domingo Iturriak etxe hau erretan hartzeko interesa bazuela. Areago. Bere jabea, Ramon Antonio Olasori 23 dukat ordaintzeko prest zegoen. Olasorena zen garai hartan etxe hau.

1782ko maiatzean, Maria Juaniz de San Remi alargunak Martin Galartzari eman nahi zizkion errentan belardi eta gaztainadi batzuk. Ramon Antonio Olaso zenaren alarguna zen Maria Juaniz. Mariak berak ezarriko dio Galartzari zenbat ordaindu behar duen bere lurak erabiltzeagatik: 14 dukat.

Etxe honen kokagunea non egon zitekeen jakiteko, zeharbidea hartuko dugu. *Lorentzena haundi* etxearen ondasunak izendatzerakoan, agiri batek biren aipamena egiten du:

“*La huerta **Barrenechea** con una parte del terreno libre con un nogal, que fue solar de la casa del dicho nombre, de dos areas y ocho centiáreas, lindante por el este*

con el rio principal, por el Sur con la casa y terreno de **Capaguindegui chiqui**, por el Oeste con la carretera y por el norte con un camino que baja a la casa de **Zubiondo** y terreno de esta.

Otra huerta en frente de la anterior sobre la carretera, lindante por el norte con la casa y terreno de **Ambrosionea**, por el Oeste con terreno de esta misma casa, y por el sur con el de **Capagundegui aundia**, y por el este con la carretera”

Beraz, gaurko Ambrosionea etxearen parean egongo zen, errepidez bestaldetik.

20-.Basaetxe

Oso informazio urriko etxea da hau. Halaz guztiz, daukagu balioa ez denik ezin esan, besteak beste, noizkoa den esaten digulako. XVII.mendekoa dela esan dezakegu, inolako zalantzarik gabe, *Urkola Etxeberri*.

1659an zentso kontuen berri ematen ari zen Joan Agirregoiena. Bere ondasunak aitortzerakoan, honela hitz egingo dio letraduari:

*“Sobre mi casa de **Aguirre goyena** sita en esta dicha villa de Amezqueta y sobre su huerta y tierras sembradas y valdias mançanales castañales y montes y sobre la cada nueva que he fabricado y fundado en el termino de **Urcola** jurisdiccion de esta dicha villa, y todas las tierras sembradas y valdias y montes castañales y robledales que tengo agregados a la dicha casa y demas pertenecido, que todo ello es savido y conocido en esta dicha villa por sus nombres y linderos notorios”*GAO-PT1041.

Agiri hau 1659ko maiatzaren 12an izenpetu zen Luis Lizarribar letraduaren aurrean. Lekukoak: Asentzio Ondartza, Adrian Ondartza eta Pedro Apaeztegi.

1687ko ekainaren 8an idatzitako agiri batek lehen argibidea ematen digu:

*“Sepase como nos Martin de Loydi Toledo vitarte y Pedro de Artola menor en dias suegro e hierno, vecinos que somos de esta dicha Villa de Amezqueta otorgamos y conocemos que damos en renta y arrendamiento a Miguel y Andres de Echeverria hermanos cuñados de mi el dicho Martin la nuestra casa y caseria llamada **Urcola echeverria** por tiempo de seis años por quarenta ducados de vellon cada año con dos capones”*GAO-PT1072

Oso antzeko agiria da 1678ko hau. Isabel Arana eta Benito Agirrebarrena letraduaren aurrean kontuak zuritzen. Ez da erraza aurreko pasartearen esaten dena eta orain datorrena ulertzen:

*“Digo que por que por quanto yo y el dicho mi marido intentamos fabricar una casa nueva en los terminos y partida llamada **Urcola** por tener en ellas muchas tierras baldias, y para este efecto tratamos de fundar a censo sobre nuestras personas y bienes hasta en cantidad de ciento y quarenta ducados de vellon”. GAO-PT1069*

1863tik aurrera, Migel Ignazio Amundarain eta Josefa Ignazia Loidiren familia bizi izan agirietan *Basechea* esaten zitaion honetan: Josefa Antonia alaba, besteak beste. Honez gainera, Juana Martina eta Gabriel Tolosa jasotakoak.

1877an Migel Ignazio Amundarain eta Josefa Ignazia Loidiren bizilekua zen. Urte hartan hartu zieten Sendotza Maria Bautista, Ignazio Maria, Antonio eta Ignazio Antoniok.

1891an Jose Ignazio Dorrontsoro eta Josefa Antonia Amundarain senar-emazteek etxe haxe zuten bizileku. Urte hartan beren alaba Maria Bautista eta seme Jose Ignaziok Sendotzako sakramentua hartu zuten.

Jose Maria Agirrezabala Gorostegik erosi zuen 1939an 7500 pezetan. Saltzailea: Maria de la Blanca Porcel y Guirior, Marquesa de Villa Alegre y San Millán. Zestoan bizi zen andere hau. Bere aita Luzianok emanda zeukan *Urkola etxeberri*.

21-.Bialix edo Miraballes

Aspaldikoa da hau ere. *Mendiko* eta *Lizeaga* etxeen artean zegoen, Arrondoko auzoan. Seguru asko bi etxebizitzako eraikina izan zen. Zati bat Mendiko aldekoa zen, eta bestea, Lizeaga aldera ematen zuena.

1648ko dokumentu batek erakusten digunez, *Miraballes* esaten zitzaion etxea *Torrean* bizi zen familiari zegokion:

*“la casa solar de la **Torre** con su huerta y tierras sembradías y baldias mançanales castañales y lo demas pertenecido suyo con la casa borda que tiene, llamada Miraballes y su pertenecido y derecho de vecindad, sepulturas y asiento que tiene en la dicha parroquial de San Bartolome”*GAO-PT1007.

Maria Juaniz Etxeberriak urte hartan aitortu zuenez, bere semeordeko zen Frantzisko de Amezquetari utzi zion oinordeko gisa.

1658ko agiri bati esker dakigu nola etxearen jabeak, Bartolome Amezketa Tolosako eskribauak, Martin Toledo harginari 500 erreal ordaindu zizkion:

*“a cuenta de las obras de canteria que va haciendo a examen en una casa suya llamada **Miravalles** sita en dicha Amezqueta”*.

1673ko agiri batek ere oso antzeko kontuak eskaintzen dizkigu. *Torrea* esaten zaion etxean jaiotako Bartolome eta doña Josefa Amezketa anai-arreabak gurasoek utzitako ondasunen kontaketa egiten ari ziren 1673ko urtarrilaren 10ean. Ondasun horien artean zegoen:

“El dicho Bartolome de Amezqueta otorgante aya de dar a la dicha doña Josefa su hermana para todas sus pretensiones que tiene en todos los dichos bienes en razon de la herencia de los dichos Francisco de Amezqueta y doña Ana de Munita sus padres una casa que hagora nuebamente ha fabricado en la jurisdiccion desta dicha Villa

llamada **Miraballes** con una pieça de pan llebar que tiene junto a la dicha casa confinante con las heredades de la casa llamada **Mendico** perteneciente a don Joan de Eraso y Amezqueta Señor de los Palacios de su apellido y la mitad de otra pieça sembrada que tiene comprada al Concejo desta dicha Villa confinante por ambos lados con tierras concejiles de la misma Villa y por abaxo con tierras pertenecientes a Maria de Garagarza”GAO-PT1068.

1677an Ambrosio Artolarena zen.

ARGAZKIA: 11. GUREGIPUZKOA.ARALAR:

1752an, Juan Agirre ofizial ikazkinak esan zuenez, Juan Agirre eta Domenja Goitia bere guraso izandakoena zen Miraballes., ya difuntos, fueron dueños de esta casa.

1736an Agustin Zubeldiarena zen etxea.

1777ko irailaren 22an, Amezketako eskribaua Juan Zubeldia *Miraballes* zeritzanaren borondatea testamentu izkribura eramaten ari da:

*“Quiero que sea sepultado en la Iglesia Parroquial de San Bartholome de esta villa de Amezqueta en la sepultura que en ella tiene mi casa de **Miraballes**”.*

Juan Zubeldia hau Agustin Zubeldia eta María Ignazia Lizeagaren semea zen, hilak biak. Maria Ignazia Miraballes etxearen jabea zen eta zegozkion ondasun guztiena, horien artean auzokidetasun eta patronato eskubideak. Bere amak horrela nahirik, etxe eta gainerako ondasunak Juan Zubeldiarenak izan ziren aurrerantzean.

Juan *Bialixkoa* Maria Bautista Arizmendirekin ezkondu zen eta beren seme-alaba legezkatzat jo zituzten Kaetano, Migel Ignazio, Jose Migel, María Ana eta Joakina Ignazia Zubeldia.

Juan Zubeldiak, testamentua egiterakoan, ez zeukan batere garbi nor izan zitekeen bere oinordekoa. Horregatik Batzorde baten eskuetan utziko du zeregin hori, eta bere ahal osoa emazte Maria Bautistari emango dio:

“Declaro que en atención a la menor edad demis hijos, é hijas no resuelvo hacer ahora mejora de tercio y quinto de esta dicha casa y de todos sus pertenecidos a favor de ninguno de mis hijos, sino que quiero dejar esta Comision para que se haga a su tiempo, en mi nombre; usando de mi derecho, concedo todo mi poder cumplido a mi esposa Maria Bautista de Arizmendi, y á Caiethano de Arizmendi y Miguel Antonio de Maiz, vecino de esta villa”

Juan Zubeldiak testamentu hau egin eta handik egun gutxira, Maria Bautistak dionez alargundurik dago iada. Izan ere, Juan 1778ko urtarrilaren 2an zendu zen.

1793an Joakin Bautista Artolarena dela esango zaigu. En noviembre de 1821eko azaroan, berriz, Juan Bautista Zubeldia dela bere jabea, *ausente en ultramar*.

1931an artean zutik zegoen etxe hau. Bertan bizi zen familiari haurra jaio zitzaion: Maria Izaskun Gonzalez Zubeldia. Maiatzaren 7an jaioetakoa da.

22-.Borda edo Larreta garaikoa.

Borda o Larreta garaikoa casa

Ez da agiri askotan aipatzen dena, baina aldian aldian bai: *Borda ó Larreta-garaikoa*. Bai, sarritan egiten da etxe honen aipamena modu horretan. Esate baterako, 1788ko agiri batek dio:

“Y el dicho Miguel Joaquin de Aguirre fiador las casas de Anciarbe, y Borda por otro nombre Larreta Garaikoa” GPAH-H388

Hala ere, 1788 baino askoz lehenangokoa da eraikin hau. 1672koa da bere lehenengo aipamen zehatza. Juan Agirrerenen zen garai hartan.

Gero, 1758tik aurrera, Frantzisko Antonio Agirre azaltzen da jabe gisa, luzaroan. 1798an ere, beste Agirretar bat: *“el referido Miguel Joaquin (Aguirre) fiador las casas de Anciarbe y Larreta garaikoa”*.

ARGAZKIA. 12. BORDA.

Ezaguna dena zera da: *Borda* deitzen zen hura, 1813an Migel Joakin Agirrerenen zela. Maizterra: Fermin Otermin. Urteko ordaina: 208 erreal. Zenbat ordaindu behar zen ikusita, baserri dezentetzat hartu beharko genuke.

Bai, Agirre asko ikusitako etxea da *Borda* esaten zaiona.

1863an Jose Antonio Jauregi eta Josefa Antonia Oterminen familiak hartu zuen eraikinaren erdia. Gainerakoa, Jose Ignazio Otermin eta Bautista Ignazia Artolarenak.

1884an, Bautista Altuna eta Frantziska Jauregi senar-emazteak beren seme Pedro Manuelekin etxe honetan bizi ziren.

1891an, Sendotza hartutakoen artean, etxe honetako seme propioa zen Jose Maria Altuna eta jasotako Gillermo Etxegoien zeuden. Bolada hartan Frantzisko Altuna eta Josefa Antonia San Sebastian senar-emazteak bizi ziren *Borda* deiturako teilatupean.

23-.Eliza Nagusia

Nikolas Ormaetxea Orixeren *Euskaldunak* obran bada *Otoitzak* izenburuarekin bataiatu zuen bertso sorta. Horietako batean honela dio Orixek:

“Eliz onen sorreraz ez da zer garbirik

Aundiagoko ori baiño ez ote da lenik?"

Amezketako eliza nagusiaz ere bi ideia hauek baliozkoa dira. Batetik, sorreraz ez daukagu puntu garbirik. Bestetik, ezagutzen dugun honen aurretik izan ote zen besterik?

Saia gaitezen gaiari gerri-gerritik heltzen. *Kontsejua* eta *Jauregi Haundiarekin* batera, San Bartolomeren elizan Amezketako eraikinik ederrena delako dakargu atal honetara. 1939an Don Manuel Lizarribar zen Amezketako erretorea. Gasteizko Gotzaitegitik luzatutako eskabideari erantzunez, agiri hau bidali zien:

"Amezqueta 26 de junio de 1939

Año de la Victoria

*Descripcion de la Yglesia parroquial de San Bartolome, su terreno contiguo, el terreno en la parte anterior de la misma Iglesia, el cementerio, la casa **Coadjutorenea** y su huerta, pertenecientes a la parroquia de la villa de Amezqueta, en cumplimiento de la orden de la vicaria general del Obispado de Vitoria, inserta en el Boletin Eclesiastico del primero de Mayo de 1939.*

*La Iglesia de San Bartolome se halla situada en el casco de la villa y contiene un solar de siete cientos treinta y dos metros cuadrados. La Sacristia se halla adosada por el lado Sur y contiene cincuenta y cuatro metros cuadrados. El terreno que rodea a la iglesia mide siete cientos catorce metros cuadrados y confina todo ello que se halla bajo un perimetro, por el Norte y Oeste con caminos publicos, por el Este con pertenecientes de la caseria **Igoen onuzcoa**, y bpor el Sur con la misma caseria y terreno publico.*

2-.El terreno situado delante de la iglesia y dedicado a jardin con varios árboles contiene ciento diez metros cuadrados, y confina por el Norte, Sur y este con caminos publicos y por el oeste con la escalera que da acceso a la Iglesia.

*3-. El cementerio que se halla situado a unos ciento cincuenta metros al este de la Iglesia contiene un solar de quinientos cincuenta metros cuadrados y confina por el Norte con camino carritel publico; por el Sur y este con pertenecidos de la caseria **Igoen-auzcoa**, y por el Oeste con el camino y terreno publicos.*

*4. La casa llamada **Coadjutorenea** señalada con el numero cincuenta y nueve de la calle de San Bartolome de la villa de Amezqueta, consta de planta baja, dos habitaciones y desvan, y ocupa una superficie de dos cientos cincuenta y siete metros cuadrados, y confina por el Norte y este con caminos publicos y por el Sur y Oeste con terreno propio.*

*5-. La huerta adosada a la casa **Coadjutorenea** por los lados Sur y Oeste, y perteneciente a la misma se halla cerrada con pared de mamposteria y confina por el Norte y Este con la casa **Coadjutorenea** y por el Este y Sur con caminos publicos. Contiene una superficie de cuatrocientos setenta y tres metros cuadrados.*

El cura Ecónomo Manuel Lizarribar”

Amezketako Eliza Nagusia *Ergone* edo *Ergoiena* esaten zaion etxadian dago. Elizaz gainera, inguru honetan daude *Seroretxea* izan zena eta gaur egun ere izen hori daramana, *Elizalde* eta *Elizondo* deituraz ezagutzen ditugunak. Eta baita ere *Erretoretxea* esaten zaiona.

Amezketan, San Bartolomeren ohoretan jasotako elizari buruzko daturik zaharrena aspaldikoa da. 1455ean, Kalixto III Aitasantuak eliza honen eta Ugarteko Errosario basilizaren ardura eramateko baimena eman zion Martin Ibañez Mendiola apaizari. Garai hartan, Iruñeko Gotzainaren agindupean zegoen eliza hau, eta horrela izan zen 1862ra arte.

Eliza hau diogu, baina orain zutik ikusten dugun eraikin honetaz ari ote da Erroman, 1455ko azaroan, Martin Ibañez Mendiolarik luzatu zitzaion dokumentua?

Ez, askoz tamaina txikiagokoa, askoz apalagoa izango zen Amezketako lehenengo eliza nagusia. Hau, bigarrena baita.

Ikusten denez, XVI.mendearen erdi aldera, Amezketak gogotik hazi eta eliza berria egiteko premia zegoela deliberatu zuten herriko agintariek, eta baita ere *Jauregi* Haundiko Patronoak ere. *Jauregi Haundi* oinetxekoek zuten eliza honi buruzko erabaki guztiak hartzeko ahalmena:

- Erretorea aukeratzea
- Apaiz benefiziatuak izendatzea
- Seroren hautaketa egitea.

ARGAZKIA: 13. ELIZA NAGUSIA.KANPOTIK.

Nola erakusten zuen Amezketako elizarekiko bere jabetza Jauregi Haundiko nagusiak? Erantzuna emateko 1790ko ekainaren 17ra jo beharko genuke. Egun hartan ezatu baitzuen Amezketako elizak bere nagusi berria: don Jose Joakin Eraso. Egun hartan Jauregi Haundi oinetxeari zegozkion etxe eta lurren jabetza hartu zuen. Elizarena ere egin beharra zeukan, aurrerantzean bera izango baitzen patrono berria. Horretarako, noski, eliz-atarira hurbildu zen, Korrejimentuko Aguzil nagusiaren konpainian. Ikus dezagun zer gertatu zen hortik aurrera, jabe egitearen zeremonia nola gauzatu zen:

*“El Alguacil tomo de la mano al Señor Don Jose Juaquin de Eraso, y le introdujo en la **Yglesia Parroquial de San Bartholome** de esta misma villa al mismo tiempo que resonaba la campana para el efecto que se dira, y dirijiendose al crucero de dicha Parroquia le puso en el banco y asiento prehemminente de el, que esta á la parte del Evangelio, y mas arriba que los demas asientos, y consiguiientemente con maior proximidad al Altar mayor, y hallandose sentado salio á decir misa Conbentual en el referido Altar Mayor Don Carlos Juaquin de Loydi Presbitero beneficiado de dicha*

Yglesia, y al mismo tiempo celebraron otras dos en los colaterales de Nuestra Señora del Rosario y el de las Animas del Purgatorio, Don Martin de Aguirre y Don Francisco de Echeverria Presbiteros y finalizada la celebracion, y despues de dadas las gracias el referido Alguacil mayor introdujo por la mano á dicho Don Jose Juaquin en la Sachristia de dicha Yglesia, donde habrio y cerro un cajon en que se conserban los ornamentos, y desde alli pasaron al coro, donde se paseo, y andubo manejando el Atril en el que se colocan los libros, y vajando de este sitio se dirijieron al Panteon que existe en el cruzero de dicha Yglesia con separacion y preferencia a las demas, y en la parte referida del Evangelio, y puesto de rodillas sobre el citado Don Jose Juaquin permanecio orando por un rato haviendose celebrado las tres misas a su intencion, y con el estipendio de un peso duro que dio por ellas á cada uno de dichos tres Sacerdotes precedente el toque de Campana como ba insinuado, y a que concurrieron demas de los testigos diferentes personas del Pueblo, y mediante esos actos quietos y pacificos aprendio dicho Don Jose Juaquin la posesion real y corporal velquasi de el Patronazgo, honores, preheminiencias, y derechos pertenecientes a su Palacio de Amezqueta, y a los Dueños de el en la dicha Yglesia de San Bartholome que con individualidad se especifican en el requerimiento que ba por principio de estas diligencias, y el enumpciado Alguacil mayor le protegio, y amparo en la referida posesion que fue tomada á vista y ciencia de quantos quisieron concurrir á aquel acto publico y sin oposicion de nadie, ni perjuicio de otro terzero que mostrase tener mejor derecho a dicho Patronato, y demas prerrogatibas adherentes á el, de todo lo qual dicho Alguacil pidio testimonio, e yo el escrivano le doy en la forma que de suso ba referido; y en fee de ello firme yo el escrivano siendo testigos los mismos que se contienen en las posesiones antecedentes=Jose Santiago de Urrutia=Don Jose Juaquin de Eraso=Antemi Josse de Arrataca”.

1547 aldera, Jauregi Haundiko jabea zen Juan Lopez, Martin de Amezketa erretorea eta Juan Ugartekoa alkatea izan ziren eliza berria egiteko asmoa bultzatu zutenak.

Lanean hasi ere egin ziren, baina 200 urte beharko dira gaur ezagutzen dugun honen antzekoa edo zutik ikusteko. Asko kostatakoa da eliza hau: itxurazko planorik ez, behar adina diru ere ez...Gaur egindakoa bihar erori...Harik eta 1710an Martin Zaldua arkitekтуari azterketa sakon-sakona eskatu zioten arte. Handik aurrera hobeto joan ziren obrak. Esan diteke 1750 alderako bukatuxea edo zegoela eliza, gutxienez barruko lanetan. Gero egin baitziren elizatariko sabaia eta eskailerak.

Erljio funtzioetarako ez ezik, zibiletarako ere balio izan zuen Amezketako elizak. Hori adierazten du, adibide gisa, 1631eko agiri honek:

“En la villa de Amezqueta delante de la iglesia parrochial de Señor San Bartolome della a dos dias del mes de febrero de mill y seiscientos y treinta y un años ante Rodrigo de Ygueravide escrivano de su majestad y del numero de Bozue y testigos de suso escriptos estando juntos y congregados segun lo an de uso y costumbre a

llamamiento de su jurado el alcalde y regimiento y vezinos de la dicha villa para tratar de las cosas tocantes a Dios nro. Señor y de su majestad... ”.

Eliza nagusiaren atariak bazuen, beraz, esanahi *zibila* ere. Areago. Eliza nagusian ez ezik, San Martingo ermitan ere bildu ohi ziren garai bateko amezketarrak beren herri arazoak erabakitzeko. 1750 aldera etorri beharko dugu, *Kontseju berria* jaso zen garaietara, bilera gehientsuenak udaletxean ikusteko. Gehientsuenak diot, zenbait kasutan gerora ere, 1823 aldera adibidez, sakristian hartzen baitzituzten erabakiak. Esate baterako, alkatea eta gainerako herri ordezkarien aukera egitea; edota, parrokiaren izenean, Gipuzkoako Batzorde Nagusietara bidali behar zen ordezkaria izendatu behar zenean. Aukeratutako honi *elector parroquial* esaten zitzaion. Erabaki *zibila* izanik ere, elizan hartu ohi zen.

Hala ere, *eliza* eraikina erlijiosotasunarekin loturik ikusi behar dugu nagusienik. Huts egiteko beldar handirik gabe esan liteke, Eliza katolikoak ezartzen zituela zedarri asko eta asko, eta horiek markatzen zuten barrutian mugitu behar izaten zutela gure aurrekoek.

Eraikinaren datuak: 38, 60 metro luzeran; 16,55 metro zabaleran eta altueran, 13,80.

Erretaula, retablo bikain hau Jose Zuaznabar oiartzuarrarena da. Berak egin zuen diseinua eta berak zuzendu zuen egin eta zutitzea ere. Estiloz barrokoa dela bistan dago. Zuaznabar arkitektoak obra asko utzi zuen eginda, eta Amezketakoa ez da eskasena.

Koruko obrak 1879 ingurukoak dira. Oso plano dotorea egin zuen Pedro A.Rekondok.

ARGAZKIA. 14. ELIZA NAGUSIA, BARRUTIK.

Organua 1963an estrenatu zen. Donostiako *Amezua* etxeak egindakoa da.

Sarrerako ate deigarri hori ere urte haietakoa da. Amezketako Eladio Balerdik egindakoa da.

Kanpotik datorrenari, gauza guztien gainetik, Elizan dauden argizaiola edo argiolak gertatzen zaizkio deigarri. Garai batean eliza gehientsuenetan ikusten ziren, baina bakan batzutan bakarrik eutsi zaio ohitura honi. Amezketan bizi-bizirik dago argiolen usadioa.

Garai batean, etxe baten jabe egiten zenak, besteak beste, sepultura eskubidea bereganatzen zuen. Hau da, hiltzen zenean, bere etxeari eliza barruan edota horma inguruan zegokion espazioan ehortzi ahal izateko eskubidea.

Etxe bakoitzak bazuen bere sepultura, eta etxeko emaztearen zeregina zen hiletako osteko elizkizunetan eta urte osoko igande eta jaiegunetan sepulturan argiola piztutzea.

1810.urtean bukatu zen hildakoei eliza barruan edo albo-alboan lurra emateko usadioa. Epidemien beldurrez, izurriteen beldurrez, kanposantua, hilerria egiteko agindua jaso zuten Amezketan ere. Urte horretan beraz bukatu zen mendez mende indarrean egondako usadio zaharra.

Hala ere, nahiz eta ehorzketak kanposantuan egin, etxe bakoitzari zegokion sepulturetan argiolak piztuz jarрати zuten Amezketan.

1960 aldera ohitura hori galdu egin zen, besteak beste, elizetako zoruak eguneratu zirenean. Amezketan zati on bat ez zen ikutu eta azken 400 urteotan ezagutu den bezala dago gaur egun ere.

Argiola eder asko ezkutatu da eliza honetatik. Batzuk ohostu zituztelako, beste batzuk etxera eraman zirelako...dena den asko geratzen dira hemen.

24-.Etarte txikia

Etarte chiquia (casa)

Oso aipamen gutxiko etxea. Zaharra ere bai. 1668an Migel Artolarena zen.

-25-.Etxetxipi

Echechichi (casa)

1681an, berriz, “*Y como vienes de Gaspar de Loidi la su casa llamada **Garaicoechea** y la otra **Echechipi** con sus huertas, tierras montes y demas sus pertenecidos*”.

Hauxe da etxe honen gaineko aipamen bakarra.

26-.Flaco

Ez du irakurleak ziurrenez etxe honi buruzko argibiderik izango. Bazela, izan zela ez dago zalantzan jartzerik. Hone hemen argibide sorta:

“*Casa **Flacoenea** señalado con el numero veinte de la calle San Bartolome. Ocupa una superficie solar de ciento cincuenta y dos metros cuadrados y se compone de piso bajo, uno alto y desván. Confina por Norte con una calleja que se dirige de la carretera al rio, por Sur con la pared medianera que hace con la casa **Juan Lopezenea**, por el Este con el rio Amezqueta y por Oeste con la Carretera*”.

Etxe nolanahiko etxea. Amezketako gehientsuenak baino handiago zen bere luze-zabaletan.

Plantxanea esaten zitzaion etxetik *Juan Lopezenea* esaten zaion horren arteko tarte horretan zegoela esango nuke. Dena den, ez dugu behar adina informazio etxe honetaz. Agiri batzuetan *Flaco* deitzen zaio, eta besteetan, *Placo*.

1677an don Antonio Jauregibarriarena zen, baina ez luzarorako ordea. Izan ere, 1685ko agiri batek argibide interesgarriak eskainiko dizkigu. Etxejabe berria don Juan Bautista Lardizabal apaiza zen, eta maizter izan nahi zuena, berriz, Juan Errazkin. Elizgizona Juan Lopezenea etxean bizi zen. Honela dio izkribuak:

*“En la Noble y Leal Villa de Amezqueta a seis dias del mes de agosto de mil seiscientos y ochenta y cinco años ante mi el presente escrivano y testigos parecieron presentes don Juan Bautista de Lardizaval de una parte y de la otra Juan de Errazquin anvos vecinos desta dicha villa y dixo el dicho don Juan Baptista que dava y dio al dicho Juan de Errazquin en renta y por arrendamiento la casa llamada de **Flaco** sita en la plaza publica de la misma villa y pegante a la casa principal del dicho don Juan Bautista y las tierras sembradas y valdias fructales y demas tocante y pertenecientes a la dicha casa de **Flaco** que todo es savido y conocido y notorio, y tan solamente por convenio de Anvas partes dejaron de conferir una pieza que esta pegante a la dicha plaza a la parte de arriba y otra pequeñita que hay en el puesto llamado **Zavalazpia** ayan de ser y sean para el dicho don Juan Bautista y su casa principal siendo antes como lo eran de la dicha casa de **Flaco** y que en permuta y trueque de aquellas le da y agrega otra pieza sembrada que tiene tocante a la su dicha casa principal de **Juanlopezenea** en el puesto llamado de **Jaureguizar** pegante a la parte de arriba llamada en lengua bulgar **Arzupia** y con esta condicion le dava y dio la dicha casa y demas tierras sembrada y valdia manzanales castañales y demas montes tocantes y pertenecientes a ella al dicho Juan de Errazquin y para tiempo de quatro años que an de correr desde el dia de San Martin once de noviembre deste presente año en adelante y por precio y cantidad de diez y seis ducados de vellon en cada uno de los dichos quatro años pagados al fin de cada uno en su casa y poder, y que ademas de los dichos diez y seis ducados, el dicho Errazquin ha de cumplir a su costa propia con la obligacion de la oblacion de pan y zera y aniversario tocante a la dicha casa en la yglesia parroquial del sr. San Bartolome desta dicha villa en todos los quatro años deste arrendamiento y sin descuento de maravedi alguno por ello como tambien a de pagar el suso dicho la foguera Provincial que le cupiere y repartiере esta Villa y su Concejo durante el tiempo de dicho arrendamiento”*GAO-PT1069

1751an jabe berria izan zuen etxe honek: Rafaela Jertrudis Lardizabal Jauregibarria. Oso zehatz-mehatz dakigu nola izan zen jabetza hartze hura, urriaren 23an:

*“En la misma villa, y dia mes y año suso dichos el espresado Alguacil acompañado de mi el escrivano paso a la casa nombrada **Placo** sita en la plaza de esta villa, a la que tomandole de la mano le introdujo al espresado Marcos Antonio de Maiz a quien en nombre de dicha Raphaela Jertrudez de Lardizaval, le dio posesion de dicha casa haciendo en señal de ella habrir y zerrar puertas y ventanas y lo mismo le*

introdujo en las heredades de dicha casa donde dicho Maiz arranco nabos é yerbas, é hizo otros actos de verdadera posesion... ”.

Ramon Antonio Pagola Mendizabali erosita, Juan Ignazio Aierbe Saralegirena zen 1904.

27-.Gaspar saletxe

Deitura hau erabiltzen zen sarritan *Altun berri* eraikina aipatzeko. Batzuetan pentsatu izan dugu gauzak horrela zirela.. Konfirmazioko agirietan, 1819koan esate baterako, *Larramendi* eta *Peruchoneco Bordaren* artean dator. 1877koan, berriz, *Larramendi* eta *Altun goena* aipatzen dira. Areago oraindik. Agiriren batean *Altunberri* edo *Gaspar saletxe* nahasten dira: *Censo de la casa Vordachuri y tambien la de Altuna berri por otro nombre Gaspar saleche*.

Baina, 1863an Sendotza hartu zutenen zerrenda egiterakoan, oso ongi bereizten ditu Amezketako erretoreak etxe biak.

1752an, Gaspar Galartzarena zen. Honi zor ote dio *Gaspar saletxea* deitura? Litekeena.

1819an Santiago Balerdi eta Josefa Ignazia Agirrezabala senar-emazteak bizi ziren. Beren alaba Maria Juana eta Maria Juana Bautistak Sendotza hartu zuten.

1863an familia handia bizi etxe honetan. Gurasoak: Jose Ramon Artola eta Maria Antonia Saralegi. Seme-alabak: Juan Migel, Jose Joakin, Felipe, Eustakio, Bartolome, Juan Jose, Ignazio Maria eta Frantziska Ignazia. Haez gainera, Justa Bizenta Azpeitia jasotakoa.

1877an Jose Ramon Saralegi eta Maria Antonia Galartzaren familia bizi zen etxe honetan. Urte hartan Sendotza hartutakoen artean zeuden alaba Josefa Joakina eta Maria Dolores.

Azken datu hau kontuan izanik, duela 133 urte, zutik zegoen artean.

28-.Gorostidi txiki

1756-1757an, Juan Antonio Gorostegirena zen. Ez dago behar beste datu zerbait gehiago eransteko.

29-.Ibarluze goena

Amezketak bi Ibarluze ezagutu ditu historian: Goena eta Barrena. Bigarren hau gaur egun *Juanlopezene* esaten diogun etxea zen garai batean. *Ibarluze goena* berriz XX.mendearen lehenengo erdian bota zuten, 1934-1935 aldera, Paper-fabrika egiteko. Hobeto esanda, sarrera edo Porteria jasotzeko. Oraindik ere bada gure herrian etxe hau zutik ikusi zuenik.

Ez zen etxe izugarria, baina beti izaten zen errentan hartuko zuen norbait. 1733ko apirilaren 24ko izkribu batek erakusten digu nola Frantzisko Lete zeritzan administradoreak errentan eman zion Pedro Zubeldiari 6 urterako:

*“Parecieron presentes Francisco de Lete, vecino de la villa de Tolosa, y administrador de la casa **Ybarlucegoena** sita en esta villa de Amezqueta propia de Don Joseph de Alava y Arizta vecino de la ciudad de Vitoria. Y dijo que con orden del dicho Don Joseph hizo poner en almoneda publica en arrendamiento para seis años la dicha casa y sus pertenecidos que empezaran a correr desde el dia de San Martin once de Noviembre....Se le havia rematado en veinte y quatro ducados de vellon a Pedro de Zubeldia vecino de esta villa”.*

Handik urte dezentera, 1789an, etxe honen atarian berebiziko iskanbila sortu zen Amezetako gazteen artean. Bi taldetan, bi kuadrilatan zeuden banaturik...elkarri erasoka. Egun hartan Bizente Ibarluzea eta Juana Campos Zeberio bizi ziren etxe honetan. Nahikoa lan izan zuten gazte haien indarrak baretzen...Agiriak esaten du, *Ibarluze goena* etxea “*esta inmediata a la casa conzejil vieja*”. Beraz, gaur egun Papel Fabrikako sarrera nagusia degoen puntu horretan zegoen. Por lo tanto, en los terrenos que en la actualidad ocupa la portería de la Papelera del Aralar.

1880 aldera era honetan ikusten zuten *Ibarluze*:

*“Confina por el Este con camino real y rio que vaja del monte Aralar; por el Sur y Oeste con camino carril que se dirige a la caseria llamada **Aguirrezabala**. Ocupa una superficie de ciento setenta y cinco metros y cincuenta centímetros. Consta de piso bajo, invirtiendo parte de él en cuerdas, cocina y dos cuartos y el primer piso en toda su extensión en desban, valuado en ochocientos siete pesetas ó sean siete mil doscientas veinte y ocho reales”.*

Garai hartan Plaza aldeko azken etxea Ergoenera bidean.

1884an, Jose Domingo Eizagirre eta Mikaela Artano senar-emazteen Fernando eta Justak Sendotza hartu zuten *Ibarluze goena*.

1891an, Jose Domingo Eizagirre eta Mikaela Artano bizi ziren bere familiarekin: Maria Kruz, Jose Martin, Maria Antonia...

ARGAZKIA: 15. DIONISIO ETXEBERRIAK UTZITAKOA

1930ean, Pedro Lete Letek Juan Ignazio Aierbe Saralegiri saldu zion. Urte gutxirako, noski, 1935an eraitsi egin zuten eta. Azken jabe propioa Jose Ramon Aierbe Sarasola izan zen, eta Sociedad Mercantil Anónima PAPELERA DEL ARALAR S. A. enpresari saldu zion.

30-.Igerategi

Yguerategui (caserio)

Litekeena da Ieregi/Iraregi eraikinarekin nahastea.

Apenas daturik daukagun etxe honen gainean. 1710 aldera Antonio Zubeldiarena zen:

*“Ipotecaron los vienes siguientes: Es a saver el dicho Antonio de Zubeldia la su casa y caseria de **Yguerategui** sita en esta villa con todas sus tierras sembradas y baldias, manzanales, castaňalas y robledales y demas pertenecido”GPAH-H388*

Gerozko berririk ez dugu ikusi agirietan.

31-Irulegi

Ongi dakigu non zegoen eraikin hau baina ez dago bere arrastorik. 1819an, Amezketako erretorea zen don Juan Ignazio Urretabizkaiak Sendotza hartutakoen zerrenda egin zuenean, ordena hau egiten du: *Garagarzanea-Arrechea-Sagastume-Yrulegui-Torrea*. Ez dago beraz zalantzarik. *Torrea* deitzen diogun etxe horren oso inguruan zegoen *Irulegi* zeritzana. Mende asko egin zuen zutik, baina egun batez erori egin zen eta ez genuen bere aztarnarik ezagutu.

1665ko agiri bat baliosoa da etxe honi buruzko xehetasunak jasotzeko. Juan Lopez Etxeberria eta Maria Yraolaren ezkontza kontuak argitu nahi izan zituzten beren gurasoek, eta honela hasten da agiria:

“En la noble y leal Villa de Amezqueta a veinte y siete días del mes de diciembre de mil y seiscientos y cinquenta y seis...parecieron presentes y se juntaron Asencio de Yraola y Maria de Yrulegui su muger y de la otra parte Juan Lopez de Echeverria menor y Maria de Yraola su muger en uno con algunos parientes de ambas partes.

*Y dixeron que por quanto a mayor servicio de Dios nuestro señor se avia celebrado matrimonio por palabras de presente segun orden de la Santa Madre Yglesia Romana entre los dichos Juan Lopez de Echeverria y Maria de Yraola, y que al tiempo y quando se retraso el dicho matrimonio los dichos Asencio de Yraola y Maria de Yrulegui su muger prometieron de donar a la dicha Maria de Yraola como a su hija legitima la casa de **Yrulegui** sita en esta dicha villa con todo su pertenecido y derecho de vecindad, y bel dicho Juan Lopez asimismo de dotarse y traer su capital de bienes para el dicho casamiento...Dixeron que donavan y donaron para el dicho casamiento a la dicha Maria de Yraola su hija la dicha casa de **Yrulegui** con su huerta y tierras sembradas y valdias manzanales castaňales y montes y demas pertenencias y con el derecho de vecindad”GAO-PT1039.*

1677an ere Juan Lopez Etxeberriaren eskuetan zegoen *Irulegi*. La cuestión es que esta casa habia sido destruida por un incendio hacia 1673. Y quiso volver a reedificarla:

*“Juan Lopez trataba fabricar unas casas nuevas en los sitios y casa bieja donde se le ha germado llamadas de **Irulegui**”*GAO-PT1083

1690an, Juan Lopez Oriazabala eta Klara Iraolarena zen etxe hau. Juan Lopez Etxeberriak eta Maria Irulegik emandakoa zen.

1732ko apirilaren 23an, Juan Lopez Oriozabalak *Irulegi* etxea berea zela aitortu zuen, eta horri horrela, bere jabetza seme Martin Oriozabalari eman nahi ziola. Hori bai baldintza jakin bat ezarri nahi dio: *“mantenua semeak aitari eman beharko diola bizi den artean”*. Horrez gainera, alaba bat ere ba omen zuen: *“que esta sirviendo en Albistur, que le hayan de dar sus alimentos”*.

Jose Oriozabalak 1775an aditzera eman zuenez, hipotekan eman *“la casa nombrada de Irulegui con su huerta y tierras sembradías y valdías, manzanales y castañales, montes y demas pertenecidos á ella, con los derechos de vecindad, sepultura y patronato, y libres de vinculo Mayorazgo y de otra obligacion”*.

Jose Oriozabalaren eskuetatik seme Jose Migel Oriozabalarenetara pasatu zen etxe horren jabetza eta *“de todos sus pertenecidos existentes en el varrio de Ergoiena”*.

1789ko apirilaren 19an neurritz kanpoko sesioa izan zen Amezketako plaza inguruan. Besteak beste, bi anaia, Domingo eta Jose Altuna, erabat jipoiturik egokitu ziren burrukaldi hartatik. Azkureak kendu zizkieten aldi baterako. Burrukan parte hartutakoen artean zegoen *Irulegi*ko Martin Jose Oriozabala. Epaileak aitorpena hartu nahi zion, eta baita bere etxera joan ere. Alferrik, ordea. Martin Jose, bere anaia Migel Ignazio eta lagun Juan Alfarorekin- *“que todos tres son de dicho Barrio de Ergoiena”*- Nafarroara joanda zeudela esan zioten *Irulegin*. Ignazio Oriozabala zen garai hartan bere jabea.

Martin Jose Oriozabala hau Josefa Antonia Egileorrekin ezkondu zen 1793 aldera, eta bere gurasoek etxea eman zioten:

*“Hicieron donacion y mejora de tercio y quinto al dicho Martin Josse de Oriozavala su hijo de la Casa de Irulegui, su huerta y tierras sembradias y valdias y demas pertenecidos a ella, con los derechos de vecindad, sepultura y patronato”*GPAH-H389.

1800 aldera, Martin Jose Oriozabala pikaroarena zen. Etxearen erdia alkilerrean Jose Migel Oriozabalari eman nahi zituen sei urterako. Agiria:

*“Martin Jose de Oriozabala es dueño legitimo de la casa nombrada de **Yrulegui** y de sus pertenecidos existentes en el barrio de Ergoyena en jurisdiccion de esta villa, y actualmente goza y usufructua la mitad de la dicha mitad al nombrado Jose Miguel de Oriozabala por tiempo de seis años”*DEA.Sig.:PO28-01.

Ez dakigu noiz hondatu zen etxe hau, baina 1859an zutik zegoen. Pedro Antonio Oriozabala zen bere jabea.

32.-Iturbe

Oso aipamen bakanekoa da. Hala ere, aldian aldian ikusi ohi da agiri zaharretan. Esate baterako, 1779ko batean. Armak hartzeko moduan zeudenen artean etxe honetako Lorentzo Otamendi zegoen.

1779ko zerrenda horretan non dagoen ikusita, bi puntu dira ukazienak. Batetik, Plazan zegoela horrela esaten zitzaion etxea. Bestetik, *Martonea* eta *Etxarte-Karreranea* inguru horretan zegoela.

33.-Iturbeltzaga berri

Yturbeltzaga-berria (caserio)

Oso datu urriak dauzkagu etxe honetaz. Dakigun apurrak dio 1793an Jose Antonio Gorostidirena zela.

34.-Iturbeltzaga haundia

Garai batean deitura bikoitza zuen eraikin honek: *Iturbeltzaga* eta *Danbolinenea*. 1819an Sendotza hartu zutenen zerrenda egiterakoan, don Juan Ignazio Urretabizkaiak *Danbolinenea* edo *Yturbeltzaga* esaten zion.

1639an, Juan Antonio Gorostegirena zen eraikina, *“la casa nombrada Yturbeltzaga situada en la calle publica de esta villa”* Juan Antonio Artola letraduak dioenez.

Baina, egiaz, non ote zegoen garai hartan etxe hau? 1794-1795an egindako eskritura batean, Juan Antonio Lantz letraduak zera idatzirik utzi zuen: *“Casa situada en el barrio de la Plaza, propia de Mathias de Gorostegui”*.

Dena den, ez da sarritan azaltzen den deitura. Aldian behin, bai ordea, nahiz eta aldaketa batzuk nozitu. Bere aipamen zaharrenetakoa 1641koa izan ditek. Azaroaren 10ean garrantzi handiko bilera egin zuten herrian, burujabetza lortzeak eragin zituen zorrei nola erantzun erabakitzeke. Bileran parte hartutakoen artean zegoen Martin Toledo *Tanbolinarena*.

1714an Juan Bautista Gorostegi eta Maria Bautista Iartza lur-sail bat saldu nahiean zebiltzan:

“...dueños de la casa Iturrivelzaga o Danbolinenea y sus pertenecidos sitios en la misma villa...dieron en venta a Migel de Yturrioz y Luisa de Liceaga una tierra sembrada encima y mas arriba de la casa de Laturu que vulgarmente llaman el

Camino del Calvario y debajo del que van a las casas de Zuriarrain que confirna por aquella parte con tierra de la de **Yrulegui**, y por la de hacia avajo con la de la casa de **Laturu**, y por el lado de la sierra de Aralar con tierra de la casa **Sansategui** y hacia al lado de dicho camino y estrada con eredad de la casa de **Ybarlucea**...”GAO-PT1001

Zenbait paperetan, **Iturribelzaga** ere esaten zaio. Honela idazten da esate baterako 1729ko irailaren 8an egindako agiri batean. Juan Bautista Gorostegi sei urterako errentan eman nahiean zebilen, eta baita maizter izango zena aurkitu ere:

*“Esta conbenido y ajustado con Antonio de Lessaca menor residente en la misma Villa de darle en renta y arrendamiento la casa de **Yturribelzaga** su huerta y tierras sembradas y baldias, manzanales y demas pertenecidos a ella...para seis años...reservando un quarto que dicha casa tiene abaxo en caso que biniere a avitar y morar a ella el otorgante...que el dicho Antonio aya de pagar a Martin de Garagarza a razon de trece ducados por año”.*

1760an Antonio eta Juan Antonio Gorostegi anaiak etxe honetan bizi ziren.Handik hamairu urtera, 1773an, Matias Gorostegi zen bere jabea:

*“Y como vienes de Mathias de Gorostegui la casa nombrada **Yturbelzaga**, con su huerta, tierras, montes, y demas pertenecidos a ella”. GPAH*

Konbentzioko Gerra zela eta, Amezketako herrian ere armak hartzeko moduan zenbat jende zegoen jakin nahi izan zenean, 1793an, aipamen hau egiten da:

*“En la casa de **Dambolinenea** Mathias, y Jossé Antonio de Gorostegui.”.*

1798an, bai, Matias eta Jose Antonio Gorostegirena zen:

*“las casas nombradas de **Yturbelzaga aundia** y la nueva fabricada contra ella llamada **Yturbelzaga chiquia**”.*

Hurrengo datua 1802koa da. Aralarren zuhaitzak botatzen ari zirela eta, Lazkaotik ohar hau etorri ze Amezketara:

*“Como delegado del Sr. Diputado general de esta Nobilissima Provincia estoi procediendo sobre talas hechas en los Montes de Aralar y Enirio, y por un auto asesorado dado el dia de ayer ha mandado dicho Sr. Diputado general que, entre otros, comparezcan personalmente dentro de tercero Juan de Echeverria, el Dueño de **Damboliñenea** y Vicente conocido con el aditamento de Trempe vecino de esa con apercibimiento de prision en defecto; y he de deber á vm. se sirva mandar, que los suso vengan á este Pueblo y su casa consistorial para las nueve horas del dia lunes primero 21 del que rige, y de quedar en ello espero me de aviso. Dios guarde...Lazcano. 19 de junio de 1802”.*

1819ko urtean Sendotza hartu zutenen zerrenda egiterakoan, don Juan Ignazio Urretabizkaiak honela idatzi zuen:

“Dambolinenea ó Yturbeltzaga.

Josefa Joaquina Gorostegui en Tolosa vide retro.

Maria Josefa, Maria Antonia, Jose Fernando: hijos legitimos de Jose Antonio y Maria Luisa Altuna”.

Beraz, arrasto egokia ematen digu Urretabizkaia erretoreak *Dambolinenea* eta *Iturbeltzaga* deitura pean etxe berbera zegoela argitzeko. Horrez gainera, oso modu ordenatuan egin zuen herriko etxeen zerrenda, eta hego aldera, *Iturbeltzagaren* hurrengoa *Magdalenenea* ipintzen du. Gauza berbera adierazten du askoz beranduago, 1880 aldera, idatzitako agiri honek.

“Solar de las casas quemadas llamadas Iturbeltzaga ó Iturbeltzaga aundia é Iturbeltzaga chiquia. Dicho solar ocupa una superficie de dos areas setenta y cuatro centiáreas, confina por Oriente con el rio, por Mediodia con solar de Magdalenenea y por Oriente con camino real y por Norte con solar de Allabinea (sic)...”.

Ikusten denez, erreketak handiak izan ziren hiruzpalau etxe erretzeko: *Iturbeltzaga* biak, *Magdalenenea* eta *Allaneginea*. Pentsatu dezakegu garai beretsuan hondatu zirela.

35-.Iturbeltzaga berri

Yturbeltzaga-berria (caserio)

Oso datu urriak dauzkagu etxe honetaz. Dakigun apurrak dio 1793an Jose Antonio Gorostidirena zela.

36-.Iturbeltzaga txiki

Yturbeltzaga Chiquia (caserio)

1179koa da etxe honi buruzko lehen aipamena. Urte hartan Manuel Antonio Zubeldiarena zen. 1862an Fernando Arregirena.

1793an, Matias Gorostegirena.

37-.Jostundegi

Oso xehetasun gutxi daukagu etxe honetaz. 1637an Kontsejuak ezarritako ordainketa zerrendan dator bere aipamena. Nire iritzirako, *Ergoene* auzoan zegoen. Zergatik? 1637ko zerrenda hori egiterakoan, eliza inguruko etxeekin batera datorrelako: *Urçallearena, Joaneche, Jacueche, Jostundegi*...Baina hementxe bukatzen dira eraikin honi buruz dakizkigunak.

38-.Kapagindegia txiki

Kapagindegi txiki esaten bada, haundi izenekoa ere izan zela bistakoa dugu. Bai, gaur egungo Medikuetxe esaten diogun horretan zeuden bata zein bestea, liburuan esaten dugunez.

Etxeari buruz aurren-aurrena emango ditudan datuak 1880 ingurukoa dira:

*“Casa llamada **Capaindegui- chiquia**, sita en la calle San Bartolome, señalada con el numero 10...La dicha casa **Capaindegui-chiquia** confina por Oriente con la via (ferrea) **digo** comun de la Villa, por Mediodia con la casa llamada **Ugalde chiquia**, propia del Señor Marqués de Valdera, por Poniente con terreno de Jose Ignacio Gorostegui y por Norte con la casa llamada **Capaindegui chiquia (Capaindegui aundia**, beharko luke) propia de dicho Gorostegui. Consta de un piso y desván sin forma de entarimacion”. TJE-179 Liburukia-2 Liburua. Finka: 8*

Martin Jose Altunarena 1849an. Honela zioen 1859ko agiri batean:

*“Que Martin Jose Altuna vecino de Alegria y dueño de una porcion de la casa nombrada **Capaguindegui** sita en la propia villa de Amezqueta y señaladamente de la parte de hacia el Norte denominada **Capaguindegui-chiquia** que la tenia arrendada por siete ducados de vellon de renta anual convino con Jose Ygnacio Gorostegui...”GPAH-H396*

Ezin esango dugu eraikin handia zenik. Seguru asko, oso xumea izango zen, kaskarra.

39-.Lakuntzarena.

Gaur egun ez gara gauza etxe honi buruzko informazio bete beteak eta argigarriak emateko, baina izan bazen Amezketan deitura honetako eraikina.

1639ko maiatzaren 10ean egindako bilera batek ziurtatzen digu *Lacunçarena* esaten zitzaion teiltupea bazela gure herrian. Alde batetik, Juan Martin Aranzazti eta Juan Lopez Aranzazti anaiak bere ama alargunarekin, Katalina Aranzazti Zubillagarekin azaldu ziren letraduaren aurrera; beste aldetik, berriz, Juan Lopez Larruntza bakar-bakarrik, Migel Larruntza eta Maria Esteban Aranzazti senar-emazteen semea, hauek zenduak baitziren ordurako.

Maria Esteban aipatu berria hau Juan Martin Aranzazti eta Maria Juaniz Zubillagaren alaba zen. Beraz, bere seme Juan Lopez Larruntzari zegozkion bere aiton-amonen ondasunak, eta puntu hori deliberatu nahi izan zuten guztien artean:

*“Que el dicho Juan Martin de Aranzasti aya de donar y done al dicho Juan Lopez de Larrunça su nieto la casa llamada **Lacunçarena** que es en la plaza de Ybarlucea desta dicha Villa”.*

Bileran parte hartu zutenek xehetasun batzuk utzi zizkiguten *Lakuntzarena* etxea non zegoen adierazteko:

*“la dicha casa de **Lacunzarena** que segun dicho es esta sita en la plaza de Ybarlucea desta dicha villa que por la parte de arriba confina con casas de **Tanbolinarena** y por la parte de abajo con la casa llamada **Mari Yrunena** y su huerta pegante al de dicha casa a la parte del rio y tierras sembradías mançanales castañales y robledales y demas pertenecido suyo y sepultura que tiene en la parrochial de se Señor San Bartolome desta dicha villa y derecho de vecindad, con carga y obligacion de veinte ducados de moneda de plata doble que la dicha casa debe al concejo desta dicha villa que en virtud de facultad Real se le cargaron para la paga del censo o censos que saco para su exempcion”*GAO-PT1005.

40-.Larragain

Etxe honi buruzko aipamen zaharrenak Lizeaga abizenari loturik daude. Aurren-aurreneko datuak esaten digunez, 1760an Juan Frantzisko Lizeaga zen bere jabea.

Etxe honek ezagutu zuen egunik gogoangarriena, ziurrenez, 1772ko maiatzaren 25an izan zen. Udaberriak odolak mugiarazten omen ditu noski...Egun hartan ezkontza dokumentu pare onartu zen bere teilatupean, Juan Antonio Artola Amezketako eskribauaren aurrean.

Lehendabizikoa Juan Frantzisko Labaien eta Manuela Antonia Lizeagarena izan zen. Ezkon berriak *Iparragirre* txikian jartzekoak ziren bizitzen.

Segidan, Juan Frantzisko Lizeaga *Toledo* eta Maria Katalina Labaienena izenpetu zuen Juan Antonio Artolak. Agiriak airtotzen duenez, “*Juan Francisco de Lizeaga era viudo de Maria Antonia de Larreta*”. Dote dotorea zekarren ezkontzara, bereak baitziren “*las casas de **Toledo goyena** y esta de **Larragain***”.

ARGAZKIA: 15. ATERA BEHARRA

Handik bi urtera, 1774an, Migel Lizeaga *Toledo goena* eta Magdalena Agirrezabalaren seme Migel Ignaziok zioen, *Toledo goena* eta *Larragain* etxeak bere guasoenak zirela.

1793an bere jabea Juan Frantzisko Lizeaga zen.

1877an Frantzisko San Sebastian eta Maria Bautista Agirreren bizilekua zen etxe hau. Urte hartan Sendotza hartutakoen artean etxe honetako zenbait zeuden: Migel Jose, Katalina, Josefa Martina, Maria Joakina eta Maria Juana. Hauez gainera, Paskual Azpeitia zeritzan jasotako bat ere bai.

1884an ere Frantzisko San Sebastian eta Maria Bautista Agirre senar-emazteak bizi ziren. Faustino esaten zioten jasotako bat zuten etxean.

Gaur erabat galdurik badago ere, duela mende bat zutik zegoen. 1922ko irailaren 26an Ramona deitu zioten haurra jaio zen etxe honetan. Bere gurasoak: Manuel Ignazio Amondarain eta Maria Jauregi Karrera.

41.-Larruntzarena

Seguru asko, deitura honek zehazten duen etxeak bat baino izen gehiago izango zuen. Hiruzpalau izan ditu gutxienez. Hori da gure errezeloa, gure irudipena. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan, Hipoteka Kontadurien sailean, honela ikusi dugu idatzirik:

“Larrunzanea Naparranea”.

1856an artean zutik zegoen etxe hau. *Larruncenea Nafarrenea* deitzen dio agiriak (GPAH-H395). 1963an galtzen dugu bere arrastoa.

Orain arteko hutsa balitz, beste modu batera deitzen ere ikusi dugu agiri zaharretan: *“Larrizanea, ó Marianena (y en lo antiguo Nafarranea)”*.

Izenak izen eta deiturak deitura, ez dakigu ziurtasunez non zegoen etxe hau. Gure ustez, Plazakoa da; *Arrakatanea-Argiñetxe* ingurukoa. Argi eta garbi dagoena, baina bazela esateko agiri bat baino gehiago dago. Norbaitek uste lezake *Larruntza* etxe biak eta *Larruntzarena* bat bera izan litezkeela. Ez dirudi emango diren agiriak kontuan hartuz gero. Lehendabizikoa, batipat, oso argigarria da horretarako. Halaz guztiz, eza dezagun pentsa erabat argiturik geratzen denik etxe honi eskainitako txatala.

Lehenengo aipamena nahikoa zaharra da. 1604an gaude. Agiriak ez du inolako zalantzarik erakusten etxe honi izena ematerakoan:

“Testamento de Maria de Yraola muger legitima de Ygnacio de Echeverria vecino de la villa de Amezqueta, en ella a 20 de henero de 1604.

*...estando enferma de enfermedad corporal y sana de la voluntad y en mi buena memoria juycio y entendimiento natural...mando que mi cuerpo sea sepultado en la yglesia parroquial de San Bartolome desta dicha villa en la sepultura de la casa llamada **Larrunzarena** que es de Maria Juaniz de Yraola mi hermana, con el avito del Serafico Padre San Francisco...*

*Yten mando se funde en sufragio de mi alma una memoria perpetua en la dicha yglesia parroquial de San Bartolome desta villa de un ducado de renta al año con cargo de una misa cantada diaconada para cuya fundacion mando se tomen veinte ducados de moneda de vellon es a saver de procedido y valor de un bivero de manzanos que el dicho Ygnacio de Echeverria mi marido e yo tenemos en tierra y pertenecido de la dicha casa de **Larrunzarena**, y ha de ser quando huviere crecido y estuviere a la sazón para poderlo trasplantar y expender...Yten por quanto como queda referido esta el dicho vibero en tierra de la dicha casa de **Larrunzarena** es mi voluntad quando se*

sacare se aplique del lo que fuera justo a Juan Lopez de Larrunza y Maria Joaniz de Yraola su muger mi hermana. Lo qual encargo al dicho mi marido”GAO-PT1043.

1679an elkarrekin ezkondu nahiean zebiltzan Asentzio Arrataka eta Serafina Larruntza. Asmo hori letraduaren aurrean ofizial egin nahi izan zuten. Esandako urte horretan, urtarrilaren 30ean egin zen bilera. Alde batetik, Serafinaren gurasoak zeuden: Juan Lopez Larruntza eta Maria Juaniz Iraola. Bestetik, Frantzisko Arratakaren alarguna, Maria Garagartza bere seme Asentziorekin. Bilerak helburu bakarra zuen. Alde bakoitzak ezkon berrientzat zer nolako dotea zekarren erakustea.

Juan Lopez Larruntzak eta Maria Juaniz Iraolak honela hitz egin zuten:

*“Prometieron en dote a la dicha Serafina de Larrunza su hija unica para en casamiento de con el dicho Francisco de Larrunza la su casa de **Larrunzaena** con su huerta tierras sembradias manzanales montes y demas pertenecido y con su sepultura que tiene en la Yglesia parroquial...y con el derecho de vecindad y Patronato que todos ellos son sitios en jurisdiccion desta dicha Villa sabidos y conocidos por sus limites y linderos”.GAO-PT1086*

Larruntzaena etxeaz gainera, beste osagarri asko zuen Asensioaren doteak: upel bat, errapa gordetzeko sei kutxa sarraildun...

Hurrengoa Maria Garagartza delakoa izan zen hitz egiten. Berak esango duena oso baliosoa gertatuko zaigu, Larruntza etxe biak aipatuko ditue eta. Honela dio:

*“La dicha Maria de Garagarza dijo que para en casamiento de con la dicha Serafina de Larrunza al dicho Asenzio de Arrataka y en virtud de su poder que le dio por el testamento de bajo de cuja disposicion murio el dicho su marido que lo otorgo por testimonio de Luis de Lizarribar escrivano real y del numero de la Villa de Alço le daba y donaba por dote las dos casas llamadas **Larrunza Andia** y **Larrunza Chipia** con sus huertas tierras sembradias...”GAO-PT1086*

Esan nahi da, hiru etxe bazirela Larruntza deituraren jirabueltan: Larruntzarena, Larruntza Haundia eta Txikia. Seguru asko, Larruntzarena hori ez zen bere jatorrizko izena, beste bat baino. Hori da gure hipotesia. Ez gaude, ordea, zein izan zitekeen esateko moduan. Lastima;

Aukeratu den bigarren agiria 1687koa da. Alegiako herrian izenpetua. Interesgarria da bere edukia:

“Parecieron presentes el Padre fray Martin de Larrunza Monxe en la Horden de San Benito comensual de la Parroquial de Sn. Martin de la Villa de Madrid y Maria Joanis de Yraola viuda de Juan Lopez de Larrunza vecina de la Villa de Amezqueta.

Y ambos de conformidad dixeron que por quanto se hallan sin herederos forzosos por descendencia ni acendencia ni esperan tenerla respecto de que el dicho Padre fray Martin es monxe profeso en la dicha horden y la dicha Maria Juanis muy

*constituída en hedad, y deseando se conserve la antigua y onrrada memoria de sus pasados quedando aquella entre sus parientes propincuos y respecto de que Lorenço de Echeverria es sobrino carnal de la dicha Maria Joanis y primo del dicho padre Fray Martin estan de acuerdo en donarle por la causa referida y por el mucho amor y voluntad que le tienen la su casa de **Larrunzena** con su huerta y pertenecido y con las cargas y obligaciones a que esta afecta y con la obligacion de que el dicho Lorenço aya de sustentar a la dicha Maria Joanis su tia mientras su vida de ella en su mesa y compañía dándola tambien el vestuario y calzado necesarios conforme a la calidad de su persona y que al tiempo de morirse le aya de hacer las onrras de su entierro y noveno dia y covo de año en la parte e iglesia que quisiere el dicho Lorenço”GAO-PT1072*

Bai, etxe honi Allaneguinea ere deitzen zioten. Bai, Karlos Allanegirena izan zen 1760tik 1777ra.

1819an, etxe honetan bizi ziren Jose Joakin Zalbide eta Ana Frantziska Lantzen seme-alaba Martin Esteban eta Maria Angelak Sendotza hartu zuten.

1857an don Pedro Laisecarena zen:

*“Que Don Pedro Laiseca como marido de Doña Maria Concepcion Ybero vecino de Azpeitia y Jose Ignacio Sarasola vecino de la citada Villa de Amezqueta declararon que por escritura otorgada el veinte y siete de octubre de mil setecientos cincuenta y nueve en fieltad de don Joaquin Antonio Sasiain escribano Numeral que fue de esta dicha Villa de Tolosa, Carlos de Allanegui, Carlos Toledo y Juan Antonio Gorostegui fundaron un censo de doscientos ducados vellon de capital al redituadote tres por ciento anual á favor de la Comunidad de Santa Clara de esta diocha Villa hipotecando el principal su casa de **Larruncenea** (¿) ó **Allanegui**, y los fiadores las de Sansategui, Rementaldegui propias del referido Sarasola y la de Yturbelzaga...”GPAH-H395*

1863an, Jose Ramon Sagastume eta Frantziska Ibargunereren familia bizi zen: Martin Jose, Frantzisko, Aszension...

Ez dakigu noiz erori, erre edo hondatu zen etxe hau. Ez daukadu oraingoz horren arrastorik.

42-Lillodi

.Ez da etxe honen ezaugarrietakoa agiri askokoa izatea. Urri samarrak dira dauzkagunak. Horietako bat 1662koa da. Tratuan ari dira bi familia:

“Escriptura de compañía de obejas entre Martin de Berrenaras y Magdalena de Muñoa, y Francisco de Arizmendi y Lillodi su hijo.

En la villa de Amezqueta a quince de febrero de mil y seiscientos y sesenta y dos... parecieron de la una parte Santiago de Arizmendi vecino desta villa en nombre

de Maria Martin de Berrenaras viuda vecina y de la otra Magdalena de Muñoa viuda y Francisco de Arizmendi y **Lillodi** su hijo legitimo y de Juan Lopez de Arizmendi y **Lillodi** su padre...

La dicha Maria Martin de Berrenaras avia dado a los dichos Magdalena de Muñoa y su hijo veinte y nueve ovejas mayores y doce borregos que se computan por seis ovejas mayores para que las tuviesen en compañía o en tiempo de tres años desde el dia de San Martin pasado...las quales fueron estimadas e a saver las dichas veinte y nueve ovejas mayores a veinte y quatro reales y medio cada una y las dichas doce borregos a doce reales y quartillo”.

1676. urtean ere Frantzisko Arizmendirena zen:

*“sobre la mi casa solar de **Lillodi** y sobre su huerta y tierras sembradas y valdias manzanales castaños...”GAO-PT1069.*

1690an, lur-sail bat saldu zion Martin Etxeberriak Juan Mendizabali. Honela hasten da salmenta eskritura:

*“...a vos Juan de Mendizaval maestro herrero vecino de la misma Villa y dueño y poseedor de la casa llamada de **Lillodi** y morador al presente en la Villa de Villafranca...una tierra y heredad que tengo y me pertenece en el puesto llamado **Lillodico echaburua**, que a la sazón se alla parte sembrado, parte castañoal y otra parte pedregal y que alinda por la parte de arriba con la borda y heredad de la casa **Zabala Maisuena** y por la de abajo y lados alinda con las propias tierras y heredades de la dicha Casa de **Lillodi**”GAO-PT1091*

XVIII.mendearen bigarren erdialdean Frantzisko Arizmendi eta Angela Karrera senar-emazteena zen.

ARGAZKIA. 16. EGIN BEHAR.LILLODI.

Gatozen 1790 aldera. Urte hartako San Pedro egunez Nafarroa aldera abiatu zen Bartolome Sasiain amezketar gaztea. Besteak beste, garia ebatera zihoan, eta horrela, diru piska bat irabazi nahiean. Abuztuaren 28an itzuli zen, San Agustin egunez. Oso bisitaldi laburra izan zen, zeren, *“en el mismo dia salió diciendo, que iba a la villa de **Puentelarreina**, é hizo desde ella un viaje á esta Provincia, á beer un partido de pelota, pero luego se volvió a dicha Villa de **Puentelarreina**, y en donde ha sido hecho preso por la Justicia de aquella villa, en la inteligencia de que hera Juan Antonio de Recalde, natural y vecino de esta de Amezqueta”*GAO-PT1228.

Gertatu zen agintariak Juan Antonio Rekalde atzeman nahiean zebiltzala. Billabonako Migel Antonio Olozagaren hilketa egozten zioten agintariak. Juan Antonio ez baino Bartolome harrapatu zuten, eta orduan hasi ziren honen familiarentza benetako buruaustea.

Aita, batipat, gogotik saiatu zen bere seme gizagajoa lehenbailehen askatzeagatik. Zeruak eta lurak nahastu zituen bere seme gaztea libratu bitartean. Esate baterako, 1790an epailearengana jo zuen, bere seme gaztea askatu zezala eskatuz. 23 urte zituen Bartolome *Lillodikoak*.

1811an Donostiako Santa Klara komentuari zela ikusiko dugu. Urte hartako martxoaren 26an errentan hartu nahi izan zuen Jose Antonio Artano amezketarrak. Donostiako komentuari izenean don Zipriano Insausti jardun zen tratoan Artanorekin, letreaduaren aurrean.

Egia esan negoziaketa honen hasierako ahaleginak lehenagotik zetozen. Otsailaren 9an, Sor Michaela Antonia de Santa Rosa abadesak Insausti administradoreari askatasun oso aitortu zion Artanorekin trata itxi ahal izateko. Hori bai, obra batzuen premian zegoen *Lillodi*. Etxeaz gainera, gainerako ondasun guztiez gozatzeko aukera ematen zitzaion. Esate baterako, 4 ondazilegiz baliatzeko. Sei urterako hartu zuen Artanok, azken eguna 1817ko azaroaren 11 izango zen. Baldintza estuak ezarri zizkion Insaustik: 50 dukat dirutan, 2 kapoi Gabonetan, arkume bat Pazkoetarako eta sei oilasko San Juanetarako entregatu beharra. Urteberritatik aurrera hasi beharko zuen errenta horri erantzuten.

Hori gutxi balitz, zera ere betetzera behartu zuen bere burua:

“catorce á diez y seis estados de mamposteria de cal y canto en el lienzo que mira hacia el mediodia y la fachada, y de cinco á seis estados de argamasa en el parage donde esta cerrada con tablas; y con estas deberá cubrir los abujeros que tiene en los suelos y todo a su costa y sin descuento de las rentas”.

Bistakoa denez, baldintza gogorretan hartu zuen Jose Antonio Artanok *Lillodi*. Abal-emaile bezala Migel Ignazio Artola eraman zuen. Lekukoak: Juan Ignazio Sarasola eta Jose Urrezola, biak Amezketa bizi zirenak

Asko kostata baina, eskritura firmatzea lortu zuen Migel Ignazio Agirrezabalak, garai hartan Ikaztegietako letradua zenak.

1863an, Martin Antonio Artano eta Josefa Antonia Sagastumeren babeslekua zen *Lillodi*. Maiatzaren 22an lau seme-alaba joan ziren Alegiara Sendotza hartzera: Pedro Migel, Ignazio Antonio, Maria Dominika eta Bernardina.

1877an ere Martin Artano eta Josefa Antonia Sagastume bizi ziren etxe honetan Jose Maria semea eta Kaietana alabarekin.

43-.Lorentzena handi

Aspaldiko etxea da. 1563an jaio zen Migel Lorenz, Domingoren semea. Seguru asko, lotura badute bi hauek *Lorentzena* etxearekin.

Gaur egun ez dago Amezketan deitura honetako etxerik. Aspaldi galdu zen bere arrastoa. Nahikoa lan eman dit etxe hau non zegoen jakiteak. Gutxigorabehera banekien, baina ziurtasuna falta zitzaidan. Egun batean, ordea, argibide honekin egin nuen topo:

*“Que dotaban y dotaron por este contrato oneroso y para con dicho Andres, con la casa llamada **Lorencena** y otra casa pegante á ella llamada **Arançasti** con todas sus tierras, manzanales, castañales, robledales y derecho de vecindad con todo lo demas sus pertenencias y asi la Borda que tiene la dicha casa de **Lorencena Oloqui** con todo su pertenecido para que sean para ella y quie su derecho tuviere”. (DEA.Sign.:P031-01).*

Aipamen hau kontuan izanik, zalantza gutxi izan genezakeen *Lorencena* etxearen kokaguneaz. *Aranzasti* etxearen inguruan zegoen, *pegante* agirian esaten denez, hau da, *erantsia*. Hala ere, badugu puntu hori nahasten digun apunte txiki bat. *Auzaetxe* non dagoen esateko, bere jabeek zera diote:

*“situada en esta villa en frente de la casa nombrada **Lorenzena**”*

Bai, *Auzaetzerekin* aurrez aurre baldin bazegoen, Amezketako sahiesbidea egin zen lurretan egon behar zuen derrigorrez.

1731ko agiri batek, ordea, berriro erabat nahastu zizkidan urak. Hona hemen erreferentzia berri eta bihurria:

*“hipoteco dicho Martin de Yguerategui principal la casa de **Thelleria bitartea** y esta contigua por la parte de arriba con la que oy llaman **Lorenzena**, y otra casa llamada **Ausaechea** comprada en el mismo paraje”.*

Beraz, Auzetxeren aurrean, *Telleri bitarteren* segidakoa izango zen *Lorentzena*. Ustez.

1654ko otsailaren 11an, Migel Toledo eta Maria Lorenzenak letraduaren aurrean lur-sail bat saltzeko asmoa erakutsi zuten:

*“vendemos y damos en venta real...para agora y de aquí adelante para siempre jamas a Ygnacio de Echeverria y Maria de Yraola su muger vecinos de la misma villa para si y para sus hijos herederos y sucesores y para quien dellos huviere titulo y causa, voz y razon legitima en qualquier manera es a saber un suelo y sitio de casa donde estuvo fundada la casa de **Lorenzena** (que se germo por incendio de fuego) con la tierra que tiene contigua y pegante a la parte del rio, el qual dicho suelo y sitio alinda por la parte de delante con la calle y calçada real de la dicha villa de Amezqueta, y por la parte contraria con el rio de la misma Villa y por un lado de azia la plaza della con la casa llamada **Galarçaechea**, y por el otro lado con un camino que sale de la dicha calçada azia las casas de **Çavala**, y se lo damos por libre de vinculo y maiorazgo y censo...por precio de ocho ducados de moneda de vellon”*GAO-PT1039

1683an, Andres Imazek berea zela aitortu zuen:

1657ko agirik batek argitzen duenez, hoguei bat urte lehenago, lur-sail baten eman omen zion hamairu dukatengatik Mariana Sarastumek Frantzisko Ibarluzeari. Frantzisko aitortu zuenari sinestera, Mariana Sarastume hau:

*“era dueño (sic) de la casa de **Sasturayn Correo echea** sita en la dicha villa de Amezqueta”.*

Kontua zen, 1657an, Mariana Sarastumeren alaba Maria Lopez Aiestaranek berreskuratu egin nahi zuela lur-sail hura, hamairu dukat haiek itzuliz.

Egin dezagun aurrera egutegian. Gatozen 1678ra, otsailaren 7ra. Migel Artola Sasturain eta Maria Lopez Aiestaran zentso kontuak garbitzen ari dira:

*“Sepan quantos esta publica escritura de censo redimible y al quitar vieren como nos Miguel de Artola **Sasturain** y Maria Lopez de Aiestaran su muger ...otorgamos que por nos y en nombre de mis hijos herederos y subcesores bendemos fundamos e nuevamente imponemos a censo redimible...en favor de Benito de Sagastume Irigoena y Elena de Amezqueta su muger...obligamos la nuestra casa llamada de **Sasturain la menor** con su huerta y tierras sembradas y baldias manzanales castaños y demas pertenecido*”GAO-PT1085.

Ia garai beretsuko dokumentu batean, Migel Artola eta Maria Lopez Aiestarani buruz ari delarik, eskribauak dio:

*“dichos Miguel de Artola y Maria Lopez de ayestaran principales (deudores) la casa de **Sasturain lorrechea** con su huerta...”*GPAH-H388.

Egia esan, ez dakit zer adierazi nahi duen *Lorretxe* deitzeraekin. Katetxe? Garraioetxe? Auskalo.

Datu interesgarrietako bat 1681koa da:

*“Y como vienes del dicho Miguel de Artola la su casa llamada **Sasturain bitartea** con su huerta, tierras, montes y demas sus pertenecidos*”GPAH.

Azken zita honetan *Sasturain bitartea* deitzen ikusi dugu ketradua. Handik bi urtera ere, 1683an Migel Artolarena izanez jarraitzen zuen etxe honek:

*“Y como vienes del dicho Miguel de Artola la su casa llamada **Sasturain chipia** con todos sus pertenecidos*”GAO-PT1087

1686an, Migel Artolarena zen.

1757an, Antonio Etxeberriarena:

*“de la una Antonio de Echeverria Rector de la Parroquial de esta Villa, difunto, y Ygnacio de Arrataca tambien difunto, ambos vezinos que fueron de esta Villa, y por otra Miguel de Elormendi vecino del Lugar de **Uztegui**, y Lorenzo de Goicoechea, vecino de esta de Amezqueta...*

*Y para la seguridad del principal, y reditos de dicho censo hipotecaron, es á saver el dicho Don Antonio de Echeverria principal deudor las tierras y pertenecidos de la casa nombrada (que fue) **Sasturain chiquia**, que no se beian los vestigios de dicha casa, aunque se hallaban en ser dichas tierras, con los derechos de vecindad y sepultura en jurisdiccion de esta Villa, y varrio de **Ergoiena**. Y el dicho Ygnacio de Arrataca con sus huertas, tierras y demas pertenecidos las dos casas de **Larrunzas**”GPAH-H388*

Hauxe da etxe honen daukagun azken datua. Gerozkorik ez dago. 1788. urtean Kotxetako etxe saila erakusten duen grafiko bat daukagu, baina ez du deitura horretako etxearen aipamenik egiten. Ez da lan erraza etxe hau non egon zitekeen esaten ausartzea.

59-.Torreberria edo Torretxeberri

Torreasalechea ó Torreberria (casa)

Larraitz bidea 6.

Zalantza pittin bat badugu etxe honen kokaguneaz. Non ote zegoen? 1797ko agiri batean esaten denez, eraikin hau, Zabala etxeen parajeen zegoen:

“la casa nombrada de Torreberria con todos sus pertenecidos en el partido llamado Zavalas”.

Beharrik beste agiri batek okerra zuzentzen digun:

*“Y como bienes del nominado Juan Antonio de Artola tambien fiador la casa nueva que tenia trabajada en el paraje de Zuriarrain azpia llamada **Torreberria**”.*

1783an, Juan Antonio Artolarena zen eta era su propietario y tenía arrendada a Santiago Agirreri utzi zion errentan. Aurreneko urteetan, asko kostata baina, ordaindu zuen errenta Santiagok. Azken bi urteetan deus ordaindu gabe zebilen. Hori horrela, etxean zeukanetik zerbait eramatea erabaki zuen Artolak. Santiagoren ondasunak hauek ziren: garia eta artoa, bi behi bere txahalekin, idisko bat eta bi zaldi.

ARGAZKIA: 22. TORRETXEBERRI

1793an Joakin Bautista Arizkorreta Artolarena zen. Bartolome Etxeberriari eman zion errentan. Agiria urriaren 26an izenpetu zuten. Hurrengo zortzi urteetan.

Torreberria Bartolomek erabiliko zuen. 30 dukat dirutan, bost anega gari eta bi kapoi leun leunak entregatu behar zizkion, gainera.

1825ean, Ildefonso Atxukarrorena zen.

1866 aldera, Estatuari erosi zion Juan Frantzisko Agirrezabala Garagartzak; amezketarra, notarioa, ezkondua zen. Segidan Juan Ignazio Gomendio Larretari salduko dio. Salneurria: 1504 eskutu (escudo). Errotaria zen Gomendio lanbidez eta Joakina Galartzaren ezkontidea. Hiru alaba izan zituzten: Ignazia Antonia, Maria Josefa eta Frantziska. Amak Frantziskaren aukera egin zuen etxe ematerakoan.

1891an, Jose Fermin Agirrezabala eta Frantziska Gomendiok osatutako sendia bizi zen etxe honetan.

1920 aldera Jose Maria Agirrezabala Garmendia eta Ignazia Antonia Bengoetxea Agirre senar emazteak bizi ziren. Urte hartan jaio zitzairen ala Biktoriana.

60-. Torresaletxe

Informazio urriko eraikina zen hau. Dakigun apurra zera da: Lizeaga eta Mendiko artean zegoela *Torresaletxe*, *Miraballes* zegoen bezala. Hona hemen informazio txukun bat:

“Sus pertenecidos consisten en un terreno unido alrededor de la casa, comprendiendo dentro de su perímetro este y su antepuerta, que confina por Este con pertenecidos de la Villa, y por el Oeste con los de Mendico y Liceaga y por el Norte con los de la expresada casa de Mendicoa”.

1854 aldera, jabe aldaketa izan zen. Juan Antonio Atxukarrok Guillermo Martini saldu zion:

*“venta real y perpetua á Dn. Guillermo Martin su convecino la caseria nombrada **Torresalechea** y sus pertenecidos existentes en Amezqueta, los mismos que adquirio en compra de sus hermanos consanguineos Dn. Nemesio y Dña. Joaquina de Achucarro en escritura formalizada el trece de agosto de mil ochocientos cincuenta y uno”.*

1877an Joakin Ignazio Karrera eta Maria Tiburtzia Tolosa senar-emazteak eta hauen seme-alabak bizi ziren: Juan Domingo, Mercedes Ignazia, Juliana, Ildefonsa...

1780 aldera jasotako oharra dira hauek:

*“Caseria llamada **Torresalechea**, situada en el barrio de **Arrondoa**, cuartel del Mediodia y señalada con el numero 3. El edificio se compone de piso bajo y uno alto: ocupa en su planta inclusa una tejabana”.*

1863an Joakin Ignazio Karrera eta Maria Tiburtzia Tolosaren familia erretiratzen zen etxe honetan: Frantziska Ramona eta Juana Frantziska Tolosa jasotakoa.

1877an Juan Ignazio Karrera eta Maria Tiburtzia Tolosa senar-emazteak bizi ziren, Angel Maria, Jose Ramon, Josefa Ignazia seme-alabekin. Jasotako bat ere bazuten: Pedro Alejandrino Tolosa.

1882ko abenduaren 1ean hil zen Guillermo Martin, Extremadurako Plasencian. Bere ala Dolores Martin Salteraini utzi zizkion bere ondasunak, eta horien artean *Torre saletxe*.

Ez gara gauza izan etxe hau noiz erori zen jakiteko.

61.-Ugalde txiki edo Etxarte

Ez dirudi garrantzi bereziko etxea izan zenik. Ez da informazio asko eragindako etxea.

Amezketako Plaza inguruan zegoen etxe hau, eta ez du inolako loturarik Ergonekoarekin. Hiru modutara deitzen zitzaion: *Ugalde txiki* edo *Etxarte* edo *Perutxo etxea*. Lehenengo deitura hori gehiagotan ikusi izan dut agirietan. Beste biak, askoz gutxiagotan.

1704ko agiri batetik bildua:

*“Y como vienes de del dicho Martin de Yturbe sobre la casa de **Loicadi menor**, y la porción de la casa **Echarte**”.*

1729ko urtarrilaren 13an Iñigo Gomendiok Tolosako San Frantzisko komentuari 100 dukat hipotekan hartzen. (LMM).

1778an Maria Ignazia Iturberena zen etxea, eta agiriak dioenez, *“situada en el varrio de la Plaza de la villa de Amezqueta”*.

Oso modu berezian deitzen zaio etxe honi 1798ko agiri batean, nahiz eta jatorrizko erreferentzia askoz lehenagokoa izan:

*“hipotecaron entre otros bienes un censo de cuarenta ducados de principal que deben los bienes que fueron de Martin de Landa Amezaga y Maria Josepha de Aguirrezabala su muger que paga oy sus reditos Martin Esteban de Lanz vecino de esta villa como comprador de la casa llamada **Poechea** ó **Echarte** con su tierra nombrada **Presaburua** en virtud de escritura otorgada el dia diez y seis de mayo de mil setecientos treinta y nueve”GPAH.*

Juan Antonio de Lantzek 1800.urteko martxoaren 17an idatzitako batean esaten denez:

*“Al tiempo que que contraje matrimonio, Martin Esteban de Lanz y Maria Luisa de Artola, mis padres, me hicieron donacion de la Casa de **Ugalde chiquia** con su huerta y pertenecidos”.*

Beste agiri batean, Juan Antonio Lantzi egin zitzaion dohaintza aipatzerakoan esaten da:

*“los referidos Martin Esteban de Lanz y su muger le mejoraron a dicho Don Juan Antonio en el tercio y quinto de la casa de **Echarte oy Ugaldechiquia** que con su huerta existe en el Barrio de la Plaza”.GPAH-H394*

Agiri hori borobiltzen ari zirelarik, Juan Antonio Lantzek bera uxatuko dizkigu zalantzak bere bigarren etxearen gainean:

*“Dejo otra casa llamada **Echarte, ó Ugalde chiquia**”.*

1816ko agiri batek oso zehatz-mehatz esaten digu non zegoen etxe hau:

*“Juan Bautista de Lizarza y Maria Ignacia de Iturbe su muger vecina de esta villa de Amezqueta, haciendo relacion de que por escritura otorgada por testimonio del mismo Echarri (Areriako eskribaua), havian echo donacion de la casa de **Echarte** en el varrio de la Plaza de esta dicha Villa que se halla frente a la casa **Arratacanea**, á favor de Juan Antonio de Lizarza su hijo”GPAH-H391*

1863ko agiri bati esker erreferentzia gehiago daukagu etxeaz, baina argigarri izan beharrean ez dakit iluntzen ez ote digun. Honela dio:

“Ugalde chiquia antes Echartea.

Sita en el Barrio de la Plaza sin numero se compone de una area de treinta y siete estados equivalentes a mil treinta y cinco pies cuadrados y setenta y nueve metros noventa y nueve decímetros. Linda por Mediodia con el callejón de Martinea (Martonea beharko luke), por Poniente con las casas de Echarte y Norte con la callejuela de Capagundegui”.

Aparte idatzitako ohar batean irakurri diteke:

“De la finca de este numero se ha segregado el solar de la casa totalmente en ruinas llamada Ugalde chiquia de 1 area y 84 centiareas que ha pasado a ser una finca independiente”.

Bolada batean Migel Antonio Aguirrezabala Zubillagarena izan zen, honek amezketar zenbaiti erosita. Segidan, ordea, Angel Juan Alvarez Alonsori saldu zion 66.760 errealean.

1884an Martin Ibarguren eta Frantziska Garmendia bizi ziren, eta hauen seme-alaba Maria Josefa, Jose Antonio eta Mikaela, hauez gainera, Florentina Iturmendi jasotakoa.

62.-Ugarteko eliza

Agiri zahar guztietan, oso modu berezian deitzen zaio: Baseliza edo Abadia Rural.

Goazen 1641eko agiri batera. Edozein alderditik begiratzen diogula ere, oso argigarria da dokumentua. Gauza guztien gainetik zera erakusten digu: nola eta nortzuen artean egiten zen Ugarteko erretorearen aukera. Astiro astiro irakurtzea merezi du:

*“En la villa de Tolosa a veinte y dos dias del mes de abril de mil y seiscientos y cuarenta y un años, ante mi el escrivano y testigos, parecio presente doña Maria de Elexalde Ydiaquez muger lexitima que fue y quedo de don Juan de Lapaça ya difunto cavallero que fue de la Horden de Santiago, tutora y curadora de la persona y vienes de don Nicolas de Lapaça su hijo lexitimo y del dicho su marido dueño y poseedor del mayorazgo que fundo Francisco de Lapaça su tio tambien difunto en que esta yncorporada la casa de **Ugarte andia** sita en la villa de Amezqueta, y ella vecina desta de Tolosa.*

*Y dixo que por fin y muerte del Licenciado don Jose de Lapaça Rector que fue de la parroquial de la villa de Usurbil y abad en la rural Yglesia de Nuestra Señora de Ugarte sita en la dicha villa de Amezqueta esta baca la dicha abadía rural de Ugarte cuya presentazion y nombrazion toca y pertenece a la dicha casa de **Ugarte andia**, y a la de **Ugarte Jaureguia** y **Argañaras**, sitas en la misma villa y a sus dueños poseedores administradores, como a patronos merelegos presentadores de la dicha abadía rural, conforme la costumbre y memorial usada y guardada.*

*Y esta otorgante como tal tutora y curadora del dicho don Nicolas de Lapaça su hijo de hedad de veinte y quatro años poco mas o menos dueño y poseedor de la dicha casa de **Ugarte andia** uno de los tres patronos presentadores de la dicha abadía usando del dicho su patronazgo dijo que nombrava y nombro presentava y presento para abad de la dicha Yglesia rural de Nuestra Señora de Ugarte a don Juan Lopez de Amezqueta clerigo presbitero oriundo de la villa de Amezqueta persona abil y suficiente y en quien concurren las partes y calidades necesarias para usar y ejercer la dicha abadía rural, que la obligación de ella es tan solamente decir una misa los dias domingos y fiestas de goardar porque la administración de los sacramentos toca y pertenece al Rector de la Yglesia parroquial de San Bartolome dela dicha villa de Amezqueta y pedio y suplico al Ilustrisimo y Reberendisimo señor obispo de Pamplona y a su vicario general y oficial principal y a cada uno de su señoría y mercedes manden aprovar esta presentación y se sirban a mandar el el titulo y colación de la dicha abadía rural y para hazer la presentación de este boto y las demas diligencias...”GAO-PT1047*

Erretorea aukeratzen zen bezalatsu egiten zen serorarena ere. Hori erakusten digu agiri honek:

“En la villa de Amezqueta diocesis de Panplona a veinte y dos dias del mes de diciembre de mill y seiscientos cuarenta y quatro años ante mi el escrivano y testigos infraescriptos parecio presente Rodrigo de Ygueravide escrivano de Su Magestad y vezino desta dicha villa y dijo que el es administrador de la casa solar de Argañaras y de su pertenecido en virtud de poder que tiene del capitan Diego Yñiguez de Echevarri y Doña Maria de Argañaras y Murguia su legitima muger vezinos de la ciudad de San Salvador de Jujuy provincia de Tucuman por sustitucion en este otorgante echa del que

tiene el Lizenziado Martin Yñiguez de Echavarri y Juan Yñiguez de Echevarri vezinos de la ciudad de Vitoria hermanos del capitan Diego Yñiguez de Echevarri y por quanto la dicha **casa solar de Argañarás** es una de tres patronas de la yglesia rural de Nuestra Señora de Ugarte que es en jurisdiccion desta dicha villa de Amezqueta y como a dueños de la dicha casa compete e incumbe a los dichos capitan Diego Yñiguez de Echavarri y su muger y a este otorgante como a su poder haviente las presentaciones de abad y seroras de la dicha **Yglesia Rural de Nuestra Señora de Ugarte** y por que por fin y muerte de Mariana de Amezqueta ultima serora que fue de la dicha Yglesia estava aquella sin servicio de que necesitava. Por tanto, usando de su derecho en la forma mas valedera nombrava y nombro elegia y elegio por tal serora desta dicha Yglesia Rural de Nuestra Señora de Ugarte en lugar de la dicha Mariana de Amezqueta difunta a Maria Lopez de Toledo hija legitima de Martin de **Toledo vitarte**a y Maria de Aguirre su legitima muger difuntos vezinos que fueron desta dicha villa por ser como es onesta y recogida de buena vida fama y opinion y que para serlo concurrian en ella las partes y calidades requisitas.

Y pide y suplica al Ilustrisimo Señor Obispo de Panplona y su Provisor y Vicario general y oficial principal y a qualquier dellos manden dar y den a la dicha Maria Lopez de Toledo posesion y titulo de tal serora y de todos sus honores antelaciones y preeminencias segun y como la dicha Mariana de Amezqueta y las otras seroras sus predecesoras han tenido y goçado y poseydo como es costumbre y se ha echo en las demas sus vacantes.

Y por quanto este otorgante no puede hir en persona ha hazer esta dicha presentacion dava y dio todo su poder cumplido qual de derecho mas puede y debe baler a Pedro Fernandez y Rada (idatzirik **yrada**), Sancho de Yztyriz- Juan Ruyz de Vicuña y Marcos de Ripalda procuradores de la curia episcopal de Panplona y a cada uno y a qualquier dellos in solidum para que en razon de lo susodicho en nombre de este otorgante y representando su persona quedan parecer y parezcan ante el dicho Señor Obispo y su bicario general y oficial principal y otros qualesquier jueces que de la causa puedan y devan conocer....Y lo otorgo asi siendo presentes por testigos Martin de Ygueravide, M. Juan de Echeverria y Juan de Aguirre Cachaverro, moradores en esta dicha villa y el dicho otorgante a quien yo el escrivano doy fe que conozco, y lo firmo de su nombre.

Rodrigo de Ygueravide. Ante mi Luis de Lizarribar”GAO-PT1040.

ARGAZKIA. 21. UGARTEKO ELIZA.

Aurreko pasarte batean ikusi denez, garai batean Amezketako Erretoreak bete ohi zuen Ugarteko elizakoa ere. Meza igandean bakarrik ematera beharturik zegoen. Erabaki hori aldatzeko akordioa lortu zen 1671ean. Don Juan Amezketa zen garai hartan gure herriko Erretorea, eta Don Benito Toledo apaiza prest zegoen Ugarteko ardura bere gain hartzeko Hau zen Erretorearen pentsakera:

“El dicho señor Rector como tal Abad de la dicha hermita tiene obligacion tan solamente de decir una misa en ella los dias festivos y hacer plegaria. Y aora por haver de asistir como tal Retor en la dicha Iglesia Parroquial todos los dias como tambien a la administracion de los Santos Sacramentos no puede cumplir con la obligacion de decir los dias festivos en la dicha hermita la dicha misa y hacer las plegarias por estar tambien la dicha hermita distante desta dicha Villa en mas de media legoa de camino; por cuia causa se havian conbenido en que el dicho Don Benito (obteniendo primero del Señor Vicario General de este Obispado licencia ad divinis para decir y celebrar todos los dias festivos dos misas, la una en la Parroquial del Señor San Bartolome y la otra en la dicha hermita) aya de cumplir con la obligacion de decir todos los dias festivos en dicha hermita una misa y hacer plegaria”GAO-PT1082.

Ongi baino hobeto lotu zituzten akordioaren muturrak:

-Sei urterako izango zen hitzarmena.

-70 dukat eman behar zizkion Amezketako Erretoreak don Benito Toledo apaizari.

Ez dirudi garai hartan Ugarteko baseliza egoera izugarrian zegoenik, batez ere sakristiari zegokionean. 1676an, Migel Galartzak letratuaren aurrean esandakoak dira hauek:

“Que los Patronos de la Yglesia rural de Nuestra Señora Santa Maria de esta Villa que es en el barrio de Ugarte, entre otras cantidades le consignaron cien ducados de vellon para en quenta y pago de las obras de canteria que en la sacristia de la dicha Yglesia los debia hazer por escriptura que le otorgaron por testimonio de Juan de Mendizabal escrivano en esta forma, a saver, en Juan de Arandia vezino de esta Villa cinquenta y siete ducados de vellon por tantos que a la dicha Yglesia rural le debe por los frutos de la primizia del año pasado de seiscientos y setenta y uno y los quarenta y tres ducados restantes en el capitan Miguel de Liceaga vezino tambien de esta villa por tantos que debia a la dicha Yglesia por los frutos premiziales del año pasado se seiscientos y setenta tres”GAO-PT1084.

1752an argitara emandako liburu batek (*Libro del Obispado de Pamplona/Real Patronato*) hau dio Ugarteko baselizaz:

*“Es simple Abadía Rural del **despoblado de Huarte** en Arciprestazgo Mayor de Guipúzcoa. Estas Abadías Rurales son iglesias o hermitas dirruidas o desiertas de lugares cortos, despoblados en cuyos terminos siembran los vecinos de los lugares próximos e inmediatos, y de los diezmos que asi se cogen proceden los frutos de que se componen dichas Abadías Rurales, que son de poca consideración porque no llegan a la congrua necesaria para ordenarse a titulo de ellas, a excepcion de unas pocas que podian llegar a la congrua necesaria”.*

Liburuari eraskinak ezarri dizkotenek hau diote:

“Las abadías rurales son antiguos pueblos que quedaron deshabitados y en los que subsistía la iglesia. Sus abades no tenían obligación de residencia al no haber habitantes, pero cobraban los diezmos”.

Gure garaian *Erretorea* esaten zitzaion Ugarteko elizaren martxa eramaten zuen apaizari. Garai batean ez zen horrela. 1671an, testamentua egiten ari zelarik, don Juan Amezketak honela dio:

*“Como yo don Juan de Amezqueta clérigo presvitero **Rector** de la Yglesia parroquial de San Bartolome desta Villa de Amezqueta y **Abad** de la Yglesia rural de Nuestra Señora de Ugarte”*GAO-PT1045.

63-.Unanbide txiki

Sarritan dator *Unanbide chiquia* edo *Maleonea* bezala. Bakar batean, baita *Malonea* bezala ere. *Baleonea* ere bai, esate baterako, 1778ko agiri batean:

*“como vienes del expresado Martin de Lizeaga tambien fiador **Unanbide chiquia** por otro nombre **Unanbide Baleonea**”*GPAH-H388

Simonenea ere deitu izan zaio. Geroxeago ikusi ahal izango da zergatik.

Paper zaharretan *Unanbide txiki* deituraz ezagutzen zen etxea bizpauru modura aipatzen zen: *Unanbide chipia*, *Unanbide la menor* edota *Unanbide Baleonea*. Bestalde, 1998an argitara eman zen “AMEZKETA herriko mapa” estimagarrian *Unanbide txiki* (*Malkonea*) deitura erabiltzen da.

Etxe honi buruzko erreferentzia zaharrenetako bat 1607koa izan diteke. Urte haietan Juanes Toledo eta Martina (¿) Zubillagarena zen:

*“hipotecaron los dichos impondores la su casa llamada **Unanbide** de su havitacion sita en dicha Villa de Amezqueta y las piezas y tierras llamadas **Lausoro**, **Legarra**, **Artese Sagastia**, **Legar azpia** (¿) y castañal llamado **Yunsala** (¿)”*GPAH-H388

1677koa litzateke gure bigarren aipamena. Urte hartan lanean ari zen Migel Galartzakoa, hargina. Badakigu norena zen etxea ere; Bautista Gorostegirena:

*“En la villa de Amezqueta a treze de septiembre de mil y seiscientos y setenta y seis años, por una parte Miguel de Galarza maestro cantero...de las obras de canteria que va haciendo en la casa llamada de **Unanbide chipia**, que ha recibido de Juan Bautista de Gorostegui cinquenta y seis ducados de vellon...”*GAO-PT1069

1683an, Bautista Gorostegirena zen eraikin hau.

1750an Simon Gorostegi azaltzen zaigu bere jabe eta erabiltzaile bezala. Bolada hartan *Unanbide Simonenea* ere deitzen zitzaion. Agerian dago zergatik.

1760an, Maria Ignazia Arantzasti, Ignazio Gorostegi zenaren alargunak, errentan eman zion Migel Ignazio Larretari. ordaina: 27 dukat eta 2 kapoi.

1770ko uztailean, Maria Ignazia Arantzastik maizter berriak izan zituen *Unanbide chiquia* etxerako. Antonio eta Jose Mateo Artola sei urterako haetu nahiean zebiltzan. Maria Ignaziak dirutan 34 dukat jasoko zituen, eta generotan gari anega bat eta bigarrena, arto anega. Agirian, ordea, beste baldintza bat ere ezarri zien jabeak maizter berriei:

“de dar a dicha Maria Ygnacia un aposento en dicha casa a su eleccion y lugar en la cocina sin que por ello hubiese descuento alguno”

1776ko martxoaren 27an Maria Ignazia Arantzasti alarguna, testamentua egiteko asmoz, letratuarengana joango da. Bere familia eta etxeari buruzko datu interesgarriak ematen ditu Maria Ignaziak

*“Casada con Ygnacio de Gorostegui, vecino que fue de esta villa, el qual hallándose trabajando en el Real Astillero del Ferrol falto de esta vida, y de este matrimonio tuvimos diferentes, y solamente quedo con vida al tiempo de la muerte de Ygnacio, Antonio de Gorostegui su hijo, y mio, quien quedo por único heredero de todos los vienes raíces. Y es asi que a dicha herencia tocava y pertenecía la casa nombrada de **Unanbide chiquia**, con su huerta, y tierras sembradías y valdias...Asi bien declaro para maior claridad que el mencionado Ygnacio mi marido fue hijo legitimo de Simon de Gorostegui y Maria Arano de Gorostizu su mujer, ia difuntos, y dicho Simon fue dueño y propietario de la casa Unanbide”.*

Ongi zioen Maria Ignaziak. Badakigu jakin Ignazio Gorostegi Ferrolen hil zela eta baita eguna ere: 1754ko ekainaren 16an. Ferrolen eman zioten lurra.

1778an, Martin Lizeaga Urzateguik zioen Urbizegiko parajea gaztainadia zuela, *“de aquellos que se llaman “ondacilleguis” de manera que el terreno que ocupa es privativo de la villa, y toda su arboleda, y usufruto propio de dicho Liceaga como dueño que es de la casa de **Unanbide chiquia**, la qual dicha tierra castañal confina por sus quatro partes con tierra concejil de esta villa”.* Gaztainadi hau erosi nahiean zebilen sarritan aipatu izan den Migel Antonio Maiz lurneurtzailea.

Handik urtebetera, Martin Lizeagak gogoratuko digu baduela *“una tierra sembradía que está sobre la Casa de **Irigoena aruzcoa**, confinante por Oriente con el Camino sendero que baja para dicha casa, y con tierras de ella; por el poniente y septentrion con tierras de la casa de **Espilla**; por medio dia con tierras de Ygnacio de Carrera, y que es la misma que le dio en permuta de otra tierra el dueño de **Miraballes**”.*

1780 aldera, badakigu non zegoen etxea eta norena zen ere:

-*“En el varrio **Arrondoa**, de Martin de Liceaga”.*

1795ean Ignazio Gorostegi azaltzen da bere jabe bezala. Zentso bat hartzekotan zebilelarik, hipotekan utzi behar izan zuen “*el dicho Gorostegi, principal deudor la casa Unambide Simonenea*”.GPAH-H389

1824 aldera jabe aldaketa izan zuen etxe honek. Saltzaile, Antonio Ramon de Liceaga, Orbaizetako seme aeta Gares (*Puente la Reyna*, agirian) herrian bizi zena. Eroslea:

“...otorgo venta Real de la casa de **Unambide chiquia ó Malonea** y de sus pertenecidos á favor de **Manuel de Carrera** por la cantidad de once mil y noventa y quatro reales y ocho maravedis vellon”GPAH-H394

ARGAZKIA. 22. EGIN BEHAR.UNANBIDE TXIKI.

XIX. mendea amaitzen ari zelarik, Karlos Joakin Bengoetxea Oriozabalaren bizilekua zen. *Fernando Amezkettarraren* biloba zen Karlos Joakin (1829-05-07). Tomasa Artano Artolarekin ezkondu zen Karlos Joakin. Bost seme-alaba izan zituzten: Ana Joakina (1859-07-03), Maria Dominika (1861-08-20), Ignazio Antonio (1863-08-26), Martin Antonio (1865-10-22) eta Frantzisko Joakin (1871-04-14). Azken hau *Patxi Gaiztoa* ezinenez oso ezaguna egin zen. Esaten denez, *Patxi Gaizto* honek erre omen zuen *Unanbide txiki*. Behi pareta eta tresna batzuk atera omen zituen. Gero, aseguruak emandakoa xahutu zuenean, eskean egiteari eman omen zion *Patxi Gaiztok*. Eskean zebilela ere bihurrikeria batzuk egin izango zen. Hori da zurrumurrua.

1877an, Simon Artano eta Ana Josefa Galartza bizi ziren etxe honetan. Ignazio Antonio semeak urte hartan hartu zuen Sendotza. Bi urteko haurra zen Ignazio Antonio sakramentua hartu zuenean. Ignazio Antonio honek Saint Pierre&Miquelon uhartean bukatu zuen, Canadian. Bertan ezkondu eta hil ere hantxe zen 1924ko urtarrilaren 1ean.

Ignazio Antonio Artano honen odoleko bat -Stèphan Artano deritzana- da gaur egun (2010) Saint Pierre&Miquelon uharteko presidentea. Hori horrela, Asanblea Frantziarrean diputatu maila du.

Har dezagun berriro Ignazio Antonio Artanoren gurasoen arrastoa. 1884an berriz Simon eta Ana Josefa etxez aldaturik ikusiko ditugu. *Unanbide txikia* utzi eta *Galartza azpikoan* jarri ziren bizitzen. Etxe honetan seme-alaba gehiago izan zituzten: Martina Antonia (1878), Maria (1880), Joakina (1882), Antonio Maria (1884), Josefa Antonia (1885). Amezketa utzi eta Astigarragara joan ziren bizitzera, eta herri honetan beste hiru seme-alaba gehiago izan zituzten: Jose Manuel (1891), Maria Josefa (1893) eta Manuela Ignazia (1895).

XX.mendeak ikusi zuen *Unanbide txiki* edo *Maleo* etxearen desegertzea. Non zegoen badakigu, baina ez da arrastorik geratzen. Irakurri dugunez, suak kiskalita bukatu zen, *destruida por incendio...*

64-.Urbizegi

Oso datu gutxi dago etxe honi buruz, baina daukaguna oso argigarria da. Bi modura deitzen zaio: *Urbizegi etxeberria* eta baita *Urbizegisaroe* ere. Dokumentu bakanetako bat 1659koa da. Letraduaren aurrera azaldutakoak Rodrigo Toledo goiena eta Ambrosio Lizeaga, azken hau maisu arotza. Eskuartean zerabilkiten gaia:

*“Que por quanto el dicho Ambrosio de Liceaga avia fabricado para el dicho Rodrigo de Toledo goyena y con su orden una casa nueva de obras de carpintería llamada **Urbicisaroe** en jurisdiccion desta dicha villa en conformidad del concierto verval que entre si avian echo, aviendole dado y entregado al pie de las obras toda la madera y material necesario, en que tan solamente ha puesto el dicho Ambrosio de Liceaga.*

Y por que fue concierto entre ambas partes, que quando se acabase la fabrica de la dicha casa se examinase la manufactura della, por oficiales del arte nombrados por cada parte el suyo y su valor se le pagase al dicho Ambrosio a los plazos y segun estaban concertados, y de su parte se avia pedido el dicho examen y el dicho Rodrigo avia convenido en ello”. GAO-PT1040.

Ambrosio Lizeagak egindako lana tasatzeko adituok aukeratu zituzten: Ataungo Pedro Urrestarazu eta Legorretako Juan Olaizola. Hauen epaia:

“segun han sido informados por ambas partes vale quatrocientos y veinte y nueve ducados de moneda de vellon, esto con que el dicho Ambrosio de Liceaga aya de hazer y haga en la dicha casa para de aqui al dia de San Martin deste presente año es a saver el asentar y cubrir de teja una partida del tejado de la dicha casa que falta dandole el dicho Rodrigo la ripia clavazon y teja y demas material necesario para ello a tiempo.

Y que asiente y ponga en forma una partida de tabla aserrada que agora se halla en el quarto alto de la dicha casa, dandole el dicho Rodrigo la clavazon necesaria para ello.

Y que asi bien haga quatro puertas de tabla y los asiente y ponga en los marcos que estan echos y patentes en sus puestos dandole el dicho Rodrigo el material necesario para ello, haviendo todo ello para el dia de San Martin, para que asi quede la dicha casa avitable y su fabrica mas perfecta”GAO-PT1040.

Alde biek, Rodrigok eta Ambrosiok gogo onez onartu zuten adituek egindako txostena. Erabakiok 1659ko uztailaren 23an hartu ziren.

ARGAZKIA: 23. EGIN BEHAR. URBIZEGI.

1880 aldera, Maria Josefa Labaien Garinena zen.

1884an Manuel Ignazio Lizeaga eta Maria Josefa Otamendi bizi ziren. Maria Josefa alabak Sendotza hartu zien urte hartan.

Urte haietan, bi bider aldatu zen jabez. Lehenengoa: Ignazio Aiertza Lizeaga. Bigarrena: Lorentzo Jauregi Iraeta.

1891an, Sendotza hartutakoen artean Agapito Arrigorriaga zegoen. Maria Josefa Otamendik jasotakoa zen Agapito hau.

65-Urkazarra

Urkazarra (casa)

1758an Juan Garagartzarena zen etxe hau. Oso gutxitan ikusi dugu bere deitura agiri zaharretan.

66-.Urkola

Erorita dago gaur egun. Helbidea: Urkolaparte auzoa, 8a.

Aspaldikoa genuen etxe hau. 1649an, Karlos Loidirena zen.

1683an, Martin Toledo Loidirena zen etxe hau:

*“Y como vienes del dicho Martin Toledo Loidi las sus casas llamadas de **Toledo Vitarte** y **Urcola**, y las dos sus bordas, y demas pertenecidos”*GAO-PT1087.

1686koa da bigarren aipamen. Urte hartan Benito Agirrerena zen. Erorita dago une honetan.

ARGAZKIA: 24. GUREGIPUZKOA.

Bere aipamenetako bat 1736ko otsailekoa da. Une hartan bere jabea Karlos Loidi zen eta baita bere bordarena ere.

1772ean Rodrigo Zabala eta Maria Antonia Larreta senar-emazteak bizi ziren etxe honetan, maizter gisa. Urte hartan hil zen Rodrigo testamentua behar bezala egin gabe. Artalde handia utzi zuen: 200 ardi eta 30 bildots. Rodrigo hil zenean horietako buru batzuk *Toledobitarteko* Miguel Agirrezabalak hartu zituen. Ez dut uste urte haietan hain artalde handirik izango zenik Aralarren.

1801an, jabez aldatu zen etxe hau. Peritoak argi eta garbi adierazi zuen bere balioa:

*“importaban á saber la referida casa de **Urcola** con sus pertenecidos sesenta y tres mil ciento quatro reales y diez y nueve maravedis de vellon y la insinuada casa borda catorce mil novecientos sesenta y dos reales y veinte y seis maravedis...”*GPAH

Nolanahi ere, oso egoera larrian zegoen *Urkolari* zegokion borda. Halaz guztiz, Tolosako Esteban Irigoienek hartu zuen subastan.

1859ko agiri bati esker dakigu:

*“Que el licenciado don Jose Maria Furundarena escribani publico de S. M y del numero de la misma (Tolosa)...dio en venta real perpetua al Señor Don Luciano Porcel Marques de Vilalegre y San Millan y vecino de la Villa de Cestona las caserías nombradas **Urcola, Borda de Urcola y Urcola-echeverri ó Basechea...**”GPAH-H396*

Luziano Porcel Granadan hil zen 1877an. Bere alaba bat izango da oinordekoa: Maria Basilia Maria Blanca Porcel y Guirior

1884an Manuel Ignazio Amondarain eta Maria Bautista Lizarribar senar-emazteak bizi ziren etxe honetan. Seme Lukasek Sendotza hartu zien urte hartan eta baita Maria Tolosa jasotakoak ere.

67-.Urkola saletxe

1863an Bautista Amondarain eta Katalina Rekalde biltzen ziren *Urkola saletxe* honetara. Beren seme Bartolomek urte hartan hartu zuen Sendotza eta baita ere Esteban Tolosa jasotakoak. Bigarren familia ere bizi zen etxe honetan: Pedro Garro eta Martina Rekalderena. Hauen Katalina Josefa alabak eta Kasildo eta Josefa Antonia jasotakoek Sakramentu verbera hartu zuten.

Handik hamalau urtera ere, 1877an Bautista Amondarain eta Katalina Rekalderen familiak etxe honetan jarraitzen zuen: Jose Ignazio, Joakina Ignazia, Jose Joakin, Manuel Maria eta Juan Antonio, eta Gregorio Tolosa jasotakoa.

68-.Urrizbiribil

Agiriren batean bigarren deitura ere ikusi diogu: *Berrantetchea o Urizbiribil* (sic) casa.

Seguraski, Amezketak ezagutu duen parajeririk garaienean zegoen baserri hau. 500 metrotan, gutxigorabehera. Bigarren ezaugarria: aspaldikoa izatea. Bai, 1656an bere jabeak Juan Toledobarrena eta Maria Erauskin senar-emazteak ziren. Hurrengo urteko beste agirik batek berriz zera adierazi nahiko luke: jabez aldatu zela. Ikus zer dioen agiri honek:

“En la villa de Amezqueta a veinte y tres de Julio del mil y seiscientos y cinquenta y nueve años ante el escrivano y testigos Doña Maria de Ygueravide viuda muger legitimas de el capitan Martin de Jauregui barria y Mendivil vecino que fue desta villa difunto y madre legitima y administradora de don Antonio de Jauregui barria y Mendivil su hijo y del dicho su marido de una parte y de la otra maese Ambrosio de Çuriarrayn vecino desta dicha villa.

*Y dixerón que por quanto el dicho Ambrosio de Çuriarrayn en conformidad de concierto que hizo con la dicha doña Maria y el dicho su marido obro y fabrico la obra de carpinteria de la casa **Urrizbiribil** en jurisdiccion desta villa, aviendole dado y entregado al pie de la obra toda la madera y recando necesario...”GAO-PT1041.*

Hurrengo agiria hiru urte beranduagokoa da. 1659an gaude, uztailaren 23.egunean.

“Carta de pago de Ambrosio de Liceaga maestro carpintero vecino de la villa de Amezqueta a favor de dona Maria de Ygueravide.

*Confiesa Ambrosio que ha recibido del capitan don Martin de Jauregui barria y Mendibil y de Doña Maria de Ygueravide su muger y viuda...doscientos y catorce ducados y medio de moneda de vellon a cuenta de una mayor suma que le devian por las obras de carpinteria que por orden suya dellos ha hecho en la casa llamada **Urrizpiribil** que nuevamente han fabricado y fundado en jurisdiccion de esta dicha villa. Los quales doscientos y catorce ducados y medio ha recibido en esta manera en vida de dicho don Martin y despues della de la dicha doña Maria es a saber treinta ducados que le dieron en una mano para empezar la dicha obra, y ciento y ochenta ducados que con orden y cesion verbal suya cobro de la casa de **Toledo vitarte**a sita en esta villa y de sus dueños vecinos della en los ocho años pasados a respecto de veinte y dos ducados y medio en cada uno por otros tantos de reditos de censos que tenia que aver sobre la dicha casa en cada un año...”GAO-PT1041.*

1717an, urtarrilaren 29ak suak kiskalita geratu zen. Katalina Olano andereak egun hartan galdu zuen bizia. Hezur apur batzuk baino ez zituzten aurkitu. Amezketako elizan lurra eman zitzaien:

Catalina de Olano se quemo en un incendio que sucedio en la casa de Urrizbiribil y aviendose encontrado algunos huesos de su cuerpo se enterraron.

ARGAZKIA: 25. EGIN BEHARRA.

1751ean jabe berria ezagutuko du zorigaizto ugariko etxe honek: Rafaela Jertrudis Lardizabal. Jabetza ospakizuna honela egin zen urriaren 23an:

“Donde en la casa jermada de Urrizbiribil en jurisdiccion de esta villa de Amezqueta el dia mes y año suso dichos el espresado alguacil asistido de mi el escribano paso a dicho paraje y tomando de la mano al espresado Marcos Antonio de Maiz le introdujo en las heredades de dicha casa, y depuse le llevo a las arboledas de ella, donde anduvo paseando dicho Maiz arranco yerbas, rompio ramas de arboles, e hizo otros autos de verdadera posesion quieta y pacificamente...”.

Juan Antonio Pagolak 1780ko lehen egunetan jaso zuen maiorazkoaren barruan zegoen etxe hau. Errentan hartu nahi ziotenak azaldu zitzaizkion etxera: Joakin Garaialde eta Jose Larreta *Loiola* berrikoa. Ez dirudi baserri izugarria zenik, Pagolak ezarri zien errentari erreparatzen badiogu: 20 dukat, 9 gari anega, beste bat artotan, 2 axuri eta 2 ahari.

Egia esan, egoera kaskarrean zegoen *Urritzbiril* baserria; agirian esaten denez, *jermada* zegoen, hau da, erortzeko arrisku bizian. Dena den, Bartolome eta Jose Larretak eduki zuten errentan 1783tik aurrera. Pagolatarrena izanez jarraitzen zuen.

69-.Zabala

Lope Martinez de Isastik piztu zidan zalantza. 1625ean idatzitako liburuan *Compedio historial* tituludunean alegia, hiru *Zabala* etxe aipatzen ditu:

-*Zavala goiena*

-*Zabala bitartecoa*

-*Zabala barrena.*

Gaiari gaur egungo ikuspegitik helduz gero, ez dago inolako zalantzarik *Zavala goiena* eta *Zavala barrenaren* gainean. Baina, zeinetaz ari zen Isasti *Zabala bitartecoa* aipatzerakoan. Hor dago koxka; Hor dago auzia;

Son varias las construcciones que tienen en *Zabala* su primer referente. Ocurre así con Perutxunea: *Zabala Peruchunea*. Lo mismo cabe decir de Alegirietxea: *Zabalaolasagasti*. En el caso de Martinea aparece como *Zabala Martinea*. Después vendrían *Zabalbarrena*, *Zabalgoena*, etc., así como un terreno que aparece en muchos documentos y citado con la denominación de *Zabal azpia* o *Zaval azpia*.

1623ko uztailaren 3an, garrantzi handiko bilera egin zuten Amezketako auzokideek. Tolosarengandik banatzeak sortutako zorretatik hirugarren zatia nola banatu behar zen deliberatzen ari ziren. Azkenean behintzat adostu zuten etxe bakoitzari eskatu behar zitzaiona. *Zabala* deiturarekin edo hauek datoz zerrendan:

-“*Yten a la casa de Çavalbarrena cinquenta ducados.*

-*Yten a la casa de Çavala de Oriarena cinquenta ducados.*

-*Yten a la casa de Çavala de Alegriarena treinta ducados.*

-*Yten a la casa de Martin de Aguirre cinquenta ducados.*

-*Yten a la casa de Çavala de Peruchorena treinta ducados.*

-*Yten a la casa de Çaval goyena diez ducados”.*

Zerrenda horretatik samurra da etxe-izen batzuk bereizten: *Zabalbarrena*, *Perutxorena*, *Zabalgoena*...eta hortik aurrerakoak? Batek daki. Saia gaitezen, ordea, bide gehiago urratzen.

1625ko bilera horretan, etxe guztiak sailkatu eta, kobraketa hobeto egite aldera, lau kuadrila izendatu ziren, eta kuadrila bakoitzak bere etxe saileko diruak bildu behar zituen. Esate baterako, bigarren kuadrilak, besteak beste, “*las seis casas de Çabalas*”

izango ditu kobrantza egiteko. Bai, *Zabala sei etxeak*. Baina, zein ez guztien artean egiazko *Zabala* erreferentzia?

Izan ere, hurrengo dokumentuak erakutsiko digunez, bazen Amezketan *Zabala* esaten zioten etxe bat. Hori ematen du aditzera 1637ko maiatzaren 10ean egin zen bilera batek. Dote kontuen erabakia eraman nahi zen dokumentuetara. Ezkonberriak: Migel Agirrezabala eta Maria Migel Loidi *Toledo*. Agiriak ez du dudarik islatzen: “*En la casa de Çavala que es en esta noble villa de Amezqueta*”. Bazen, beraz, deitura horretako etxea gure herrian. Bigarren erakutsia: Familia onaren etxea zen *Zabala*. Hauek dira agiriaren puntu azpimarragarrienak:

“*En la casa de Çavala que es en esta noble Villa de Amezqueta a diez dias del mes de mayo de mill y seiscientos y treinta y siete años antemi Rodrigo de Ygueravide escrivano de su majestad y del numero de las villas de Bozue y testigos de Yuso escritos parecieron presentes de la una parte Martin de Aguirre y Çavala Maria Osoa de Çuriarrain Çavala su legitima muger vecinos de esta dicha villa en uno con Miguel y Mariana de Aguirreçavala sus hijos legitimos y algunos parientes suyos. Y de la otra Martin de Loydi y Toledo Vitarte y Maria de Aguirre su legitima muger vecinos asi bien desta dicha villa en uno con Juan de Loydi y Maria Miguel de Loydi sus hijos legitimos y otros parientes suyos.*

Y dixeron que por quantos a servicio de Dios nuestro señor y su divino favor y honra de las partes se havia celebrado matrimonio por palabras de presente entre los dichos Miguel de Aguirreçavala y Maria Miguel de Loydi y Toledo. Y entre los dichos Juan de Loydi y Toledo y Maria de Aguirreçavala y porque es uso y costumbre guardada que los dichos padres den y repartan de sus bienes temporales a sus hijos para que con ellos mejor puedan sobre llevar las cargas del matrimonio y sustentar los hijos que Dios nuestro señor les diere sobre que havian tratado entre si ciertos capítulos y condiciones utiles que el efecto y que se havian conbenido de otorgar al tenor de ellos escriptura de contrato matrimonial y doctacia...

Por tanto los dichos Martin de Aguirreçavala y Mari Ochoa de Çuriarrain su muger...que davan y dieron la casa solar de Çavala que esta sita en esta villa de Amezqueta y su huerta tierras sembradias manzanales, castañales y los robledales, prados, conpras y mejoras y dos bordas de ganado, remienta de labranza y cubos que ay en la dicha casa, y dos cajas y quatro arcas que asi bien ay en ella y derecho de vecindad y todas las demas pertenencias que por sus nombres son conocidas y notorias... son obligados a darles en cada año durante su vida de estos otorgantes anega y media de trigo y anega y media de mijo...se reservan para si y su marido para en vida y muerte todo el bastago y ajuar que tienen en la dicha casa y todo genero de ganado mayor y menor fuera del que de suso se declaran. Y Por quanto estos otorgantes tienen fuera de los dichos Miguel y Maria de Aguirre otros tres hijos llamados Ygnacio, Juan y Leonor de Aguirreçavala que estan por casar les señalaban y señalaron a cada diez ducados por sus legitimas paterna y materna...

Davan y dieron al dicho Miguel de Aguirreçavala su hijo para con la dicha Maria Miguel de Loydi su muger e hijos que Dios nuestro señor en uno les diera la dicha casa de Çavala y todo su pertenecido, compras y mejoras...

*En siguiente, los dichos Martin de Aguireçavala y Mariosoa de Çuriarrain su muger dixerón que prometían y prometieron en dote a la dicha Mariana de Aguirre su hija para con el dicho Juan de Loydi y Toledo e hijos que Dios...ducientos ducados en dinero y tres camas cumplidas al uso de la tierra y una caja de madera, una novilla, un bargote, cinco obejas y cinco corderos y ella honestamente bestida con tres sayas y su ropa...donavan y dieron al dicho Juan de Toledo Loydi su hijo legitimo para con la dicha Mariana de Aguirre su muger e hijos que Dios nuestro señor en uno los diere y sus subcesoras la casa solar de **Toledo Vitarte**a que es sita en esta dicha villa de Amezqueta y su huerta tierras sembradías manzanales castañales robledales, prados, compras y mejoras echas y borda de ganado, remienta de labranza que tienen, cubas y arcas que ay en en la dicha casa derecho de vecindad y todo lo demas pertenecido a ella. Y demas de los dichos bienes dan y donan al dicho Juan de Loidi su hijo, una baca con su cria o preñada la qual aya de escoger el dicho Juan entre las que tienen... ”.*

Non ote zegoen Zabala etxe dontsu hori, zorioneko etxe hori? Urteak eman nituen erantzunik gabe. Han galdetu, hemen arakatu eta beti gauza bera, hau da, erantzunik gabe. Tolosan, Gipuzkoako Artxibo Orokorrean, behin eta berriz laguntza eskatu nion Ana Otaegiri. Baita honek agiriak, agiri franko eskaini ere. Hala ere, espero genuen erantzunik ez inondok ikusten...

Egunak joan, egunak etorri, hor jarraitzen nuen kezka horren zalantzarekin. Argituko ote dut kontu hau? Korapilo hau askatzeko gauza izando ote naiz? Etsipenak behin baino gehiagotan hartu ninduen mendean.

Horrelaxe joan nintzen Tolosara 2010ko maiatzaren 10ean. Goiz nahasi samarra izen zen egun hartakoa. Eguna dotore zabaldu zen, eguraldi onaren promesaz beterik. Indar handirik gabe, baina eguzkiak ere bere burua erakutsi nahi izan zuen. Eguerdialdera, zeruan gero eta hodei gehiago zebilen, arratsaldeko lehen orduan zeharo estaltzeraino. Euri tantak ez ziren urrun...San Frantzisko pasealekuan errumaniar bat ari zen eskuetako soinu handi eta zuria astitzen. Jendeak, aldian aldian, zentimoak botatzen zizkion, batez ere adinean aurrera zihoazenek. Ez zen akordiolari txarra, nahiz eta bere errepertorioa oso estandarra gertatu.

Burutazio horiekin nenbilela hara hor non ikusten dudako dokumentu hau:

“Testamento de Magdalena de Olasagasti vecina de Amezqueta.

En el nombre de Dios. Amen. Sepan quantos esta carta de testamento y ultima voluntad vieren como yo Magdalena de Olasagasti muger legitima de Juanes de Alli vecina de esta villa de Amezqueta, estando en cama de enfermedad corporal y sana de

mi juicio y entendimiento natural deseando poner mi alma en carrera de salvacion y dexas ajustadas las cosas tocantes al descargo de mi conciencia...

Encomiendo mi alma a Dios nuestro señor que la crio y redimio el cuerpo a la tierra de que fue formado el qual quiero que despues que yo fallesciere sea sepultado en la iglesia parroquial de San Bartholome de esta dicha Villa en la sepultura propia de la casa de Çavala y en la dicha iglesia...

Yten declaro que tengo por bienes mios la casa de Çavala Olasagasti y su huerta y tierras sembradías y valdias mançanales y castañales y demas pertenecido y derecho de vecindad y patronazgo que tiene en esta dicha villa y su iglesia parroquial”GAO-PT1036.

Aski garbi dago, beraz, auzia. Jakina denez, Alegietxeri Olasagasti ere esaten zaio. Deitura hori arestian aipatu den Magdalena Olasagastiren sendiak emandakoa da, zalantzarik gabe. XVI.mendea amaitu aurretik baziren Olasagastiarak etxe honetan. Ezin harritu, beraz, aldin behin etxe honi Zabala Olasagasti deitzen baldin bazaio.

1677an, Migel Arizmendirena zela ikusten dugu:

“Y como bienes del dicho Miguel de Arizmendi sobre la su casa de Çavala y sobre su huerta y tierras sembradias y valdias manzanales castañales y robledales y todo lo demas pertenecido”GAO-PT1069

Beste agiri zahar batek, arazoa bihurri eta korapilotsuago egiteko, oso garbi adierazten du guk gaur egun Martinea esaten diogun etxeak bigarren deitura bat ere bazuela. Hauxe da agiria:

*“Miguel de Aguirrezabala de Martinea estuvo casado con Maria Miguel de Loidi naturales que fueron de esta villa y dueños de la casa de Aguirrezavala y como tal en escritura otorgada el dia siete de enero de mil seiscientos y sesenta y tres ante Luis de Lizarribar escrivano numeral de la Villa de alzo fundo á censo cinquenta ducados de vellon a favor de Maria de Aguirre Jauregui **hipotecando para su seguridad la casa de Aguirrezabala por otro nombre Martinea** propia del dicho Miguel, consta a folio 421 del registro de hipotecas de mil seiscientos y setenta y dos”AMUA-0070/020.*

Bada kontuan hartu beharreko beste dokumentu bat ere. 1809ko azaroaren 10etik 1810eko urtarrilaren 19ra, herriaren lur-sailak neurtzen aritu ziren amezketar batzuek: *“razon de los dias ocupados en la medicion de las tierras ipinaldes (¿) y concegiles de la villa de Amezqueta”*. Honako neurketa egite hau egin zuten zati batean:

11-...Berrenaras, Semperena, Carrera, Zabalbarrena.

12-...Zabalbarrena, Miquelenea, Maisuena, Bernaras, Zabalandia, Goyenechea.

13-... Ayecio, Elizalde, Armaechea, Berrenaras.

